produktuak (Balore publiko eta pribatuak bereziki) ere zuzenki eskaini ditzatela eskatzen ari zaie. Europako gainerako herrialdeetan bezala berrikuntza guzti hauek eta produktu klasikoak, prezio errealistetan gainera, kobratu behar dira, gordailuak eta maileguak dagoeneko prezio errealistetan kotizatzen diren bezala.

Zerrenda luza daiteke, baina behar bada arazorik ulergarrienak eta aipagarrienak adierazi ditugu. Guzti hau, Euskal Herriko finantz erakundeak etorkizuna globalki erabakitzera eramaten ari da, gerora arazo partzialtako bakoitzaren inguruko erabakiak hartu ahal izateko.

Egin beharreko galderarik garrantzitsuenak ondorengoak dira: Zer izan nahi dut etorkizunean? Zer espero du gizarteak erakunde bakoitzarengandik? Zeintzuk dira arazo hauei aurre egiteko beharrezko tamaina eta egitura?

Erakunde bakoitzarentzat erantzunak desberdinak izango direnez, bezero, merkatu eta produktuei buruzko aukerak ere desberdinak izango dira, aukera horiek burutzeko dimentsio eta baliabideak desberdinak izango diren bezalaxe.

Euskal kreditu-erakundeentzako 1992ko horizontea

Nahitaezkoa da gure kreditu-erakundeentzako erreferentzi datatzat 1992ko abenduaren 31z hitz egitea. Baina ezin dugu kalean egiten den bezala egin: "92a baino lehen eta ondoren..."

1992ko abenduaren 31n (ikusiko dugu atzerapenarekin egiten den ala ez) finantz espazio europar librea sortu beharko da. Hitz gutxitan esateko, Merkatu Batuan kapital-zirkulazio librea eta kreditu-erakundeen aldetik finkatze-askatasuna egongo dela esan nahi du.

Ordurarte, Espainiar estatu osoa, Europako Elkartearikiko Espainiaren Atxekipen-Akordioetan ezarritakoaren menpe egongo da. Arlo honetan zera ezartzen du:

- a) 1985etik 1992rarte Espainiak merkatuko ekonomi premien klausula ("oraingoz aseta gaude"ren antzeko zerbait) eska dezake, Komunitateko Banku eta Kutxen finkamendua diskrezionalki mugatzeko.

- b) Merkatu espainiarrean, bertan finkatzen den Atzerritar Bankarentzat mugak daude gordailuak erakartzeko. Muga hauek poliki-poliki urritzen joango dira 1993an guztiz desagertu arte.
- c) Atzerritar banka honek ezingo ditu hasieran 3 bulego baino gehiago eduki, bulego nagusia barne. Gerora gehituz joan daitezke, 1993an libre geratuko direlarik.

Baina maiz Atzerritar Banka Estatuan aspaldi sartu zela ahaztu egiten da. Espainiako Atzerritar Banka erregulatzen zuen 1978ko ekaineko erret deketua argitaratu zenean sartu ziren erakunde hauek Estatuan, eragikera guztiarekin. Aurretik, lau salbuespen zeuden betidaniko mendeetako presentziaz, zeintzuek Espainian emakida indibidualen bidez iharduten bait zuten.

Gaur egun, erret deketu bidez Espainian ezarritako atzerritar erakunde hauek 50 inguru banku dira. Horrez gain banku atzerritarrek krisian zeuden espainiar bankuak erosi dituzte. Beste banku batzuetan atzerritar partaidetza gehiengoa da; estatutu berezidun bankuak ere badaude eta badaude kapital-arrisku erregimeneko bankuak ere, kapital atzerritar eta nazionalaren artean.

Beraz, ia banka-espezialitate ezagun guztiak estaltzen dituzten mundu osoko bankuak (hauen arteko indartsu eta famatuena) ditugu. Banka honek dagoeneko sartu du eragin konkurrizale eta berritzailea, eta Estatuko Finantz Erakundeek (eta Euskal Herrikoak) positiboki erreakzionatu dute. Atzerritar bankaren aurrean guztiz ohiturik ez bagaude ere, berarekiko ondo prebenituta gaudela behintzat esan daiteke.

Euskal Herriko eta Nafarroako gure komunitateetan banka atzerritarra ez da beste toki batzuetan bezainbeste sartu. Lehen aipaturiko arrazoiez gain zera gogoratu behar da: ahalbideetako sukurtsalen dosifikazioa dela eta, banka atzerritarrak nahiago izan duela Madril, Bartzelona eta beste hiri garrantzitsuenetatik hastera. Azkenaldi honetan, eskainitako estatistikaz aparte, Euskal Herriko eta Nafarroako Komunitate Autonomoetako hiriburuetan sukursal berriak ireki dira.

Eta adierazgarria da hau ere: Euskal Herriko Kutxa eta Bankuak edo gure ingurunean finkatuak, Estatuko gainerako herrialdeetan banka atzerritarrarekin buruz buru daude.

Bestalde, 1986tik Estatu espainiarra eta ondorioz baita euskal banka edo gure ingurunean finkatua ere, Europako Elkarte Ekonomikoko erregulazio bankario eta orokorrari atxekirik dago. Are gehiago: Estatu espainiarrean, Europar Elkarteko proiektu mote-

letan oinarritutako barne-arauak ezarri dira kreditu-erakunde espainiarrentzat. Aurrikuspen honi esker, gure banku eta kutzak komunitateko lerroekiko aurrez doitzen dira maiz.

Badirudi Kutxa Atzerritarrez ahazten garela. Esandako ia guztia hauei ere aplika dakieke, Estatu espainiarraren sarrerarako baldintza legalei dagokienean. Baina ez Espainiaren atxekipenerako negoziatioetan eta ezta gaur eguneko finantz biziaren ere, ez da Atzerritar Kutzek arazo serioak sor ditzaketenik pentsatu.

Europar Kutzek, Euskal Kutzek bezala berezko lurraldearekiko atxekimendu-zentzua dute. Europar komunitatearen bizitzak urte batzuk baditu dagoeneko eta Europar Kutzek ezin izan dute beste Estatu batzuetara salto egin. Honek ez du beren bezeri sektore baten nazioarteko arazoak alde batera utzi dituztenik esan nahi: korrespontsali akordio bidez edo tamaina handiagoko akordio bidez ebatzi dituzte.

1993eko urtarriletik aurrera Elkarteko finantz espazio libre sortutakoan, beren estiloa aldatu egingo ote da? Europar Kutxa handiek Banku hedatzaile handi bezala jokatu ote dute? Oraingoz eta salbuespen gutxi batzuk ezik, ez dirudi beren estrategia handiak nabarmenki hortik joango direnik.

Gure Komunitate Autonomoetan lan egin nahi duten Kutxa eta Banka Atzerritarrek, kontuan izan beharreko faktore gehigarria izango dute. Merkatu berrietara sartzeko, dagoeneko beste finantz erakunde hedatzaile batzuk topatu dituzten berezko mugak dira: enpresen barneko kulturak (gauzak egiteko modua) eta herri bakoitzaren kultura nazionala. Eta gure ingurune berezko hesi hau, gure kreditu-erakundeen alde joka dezakeena, herriaren, publikoaren eta bezeriaren ondarea ere bada.

Eta orain alderantziz: Nahi izango al dute euskal finantz erakundeek Estatutik kanpora irten? Nola? Nora? Erantzun hauek, lerro batzuk goragoko beste haien ondoren planteatu beharko lirarteke... Zer izan nahi dut etorkizunean? Zer espero du gizarteak erakunde bakoitzarengandik?, etab...

1993ko urtarrilaren 1a garrantzitsua da gure Kutxa eta Bankarentzat. Baina behin eta berriro diogu data horretarantz bideraturik daudela dagoeneko. Konkurrentzialtasun handiagoz lanean hasiak dira dagoeneko.

Horietan lan egiten dugunok beso batez idiei helduz eta bestean "akuilua" dugularik jarraitzen dugu. Egunetik egunera "plazak" egiten ari gara. Eta gertatzen dena zera da: dagoeneko harria arinago mugitzen dugula.

EL SISTEMA CREDITICIO PRIVADO

LE SYSTEME DE CREDIT PRIVE

El sistema crediticio privado vasco tiene unas características propias que le dan una acusada personalidad. Debemos referirnos fundamentalmente a la Banca Privada, Cajas de Ahorro y Cooperativas de Crédito. Los Gobiernos de Euskadi y Navarra tienen competencia exclusiva sobre las Cajas de Ahorro y las Cooperativas de Crédito, y competencia más restringida sobre la Banca Privada.

Además de los procesos de fusión de las Cajas de Vizcaya y Alava, debe recordarse la fusión de los Bancos Bilbao y Vizcaya. La presencia aquí de la Banca vasca (con domicilio social en las dos Comunidades Autónomas) es baja, frente a la gran influencia de las Cajas de Ahorro. Existe notable actividad por parte de la banca aquí asentada, con domicilio social fuera de nuestro entorno. La Banca Extranjera tiene aún poca presencia cuantitativa. Entre las Cooperativas de Crédito del Estado y vascas, destaca Caja Laboral Popular, que trabaja en los cuatro Territorios.

En el artículo puede verse un análisis comparativo de las entidades financieras. Sigue un análisis de la situación en ambas Comunidades Autónomas. Se estudian luego los problemas actuales de las entidades vascas: pequeño tamaño relativo (con sus ventajas e inconvenientes), costes de explotación algo altos, búsqueda de ingresos adicionales por nuevos productos y servicios, etc. Se afrontan con serenidad, pues la carrera hacia el "libre espacio financiero europeo" comenzó hace cierto tiempo. Seguirán adoptando probablemente estrategias diferentes, en función de distintas vocaciones.

Le système de Crédit privé basque a ses propres caractéristiques, ce qui lui donne une forte personnalité. Nous nous rapportons principalement à la Banque Privée, aux Caisses d'Epargne et Coopératives de Crédit. Les Gouvernements d'Euskadi et de Navarre ont une concurrence exclusive sur les Caisses d'Epargne et les Coopératives de crédit et une concurrence plus restreinte sur la Banque Privée.

En plus des processus de fusion des Caisses en Biscaye et Alava, nous devons rappeler la fusion des Banques de Bilbao et Vizcaya. La présence ici de la Banque Basque (ayant un siège social dans les deux communautés autonomes) est peu importante face à la grande influence des Caisses d'Epargne. Il existe une certaine activité de la part de la Banque établie ici, dont le siège social est hors de notre territoire. La Banque Etrangère n'a encore qu'une petite présence quantitative. Parmi les coopératives de Crédit de l'Etat et celles des Basques, la Caja Laboral se distingue par son travail sur les quatre territoires.

Dans cet article, on retrouve une analyse comparative des entités financières. A la suite, une analyse de la situation dans chaque Communauté Autonome est présentée. Les problèmes actuels des entités basques sont étudiés ensuite: relativement de petite taille (avec leurs avantages et inconvénients), coûts d'exploitation assez élevés, recherche de recettes supplémentaires par de nouveaux produits et services etc. Celles-ci s'affrontent avec calme, car la course vers le "libre espace financier européen" a commencé depuis un certain temps. Elles continueront à adopter probablement des stratégies différentes en fonction des diverses vocations.

Herri-Kreditu Sistema

Alberto Jz. de Aberasturi

Mendebaldeko Gobernuak sarritan izaten dute kreditu-arloan parte hartzerik; aspaldidaniko jokaera da hau. Betidanik, bi izan dira nagusiki mailegu- edo kreditu-arloan izan diren eritziak: sozialista eta liberala.

Sozialistek luzaroan egin dute lan kreditua nazionalizatzearen alde. Horrela, Bankuak Estatuarenak izango lirateke, norbanakoek, ostera, arlo honetan partehartzerik izango ez luketelarik.

Liberalek, ordea, kredituak pribatuen eskuetan uztearen alde agertzen dira, eta ez dute onartzen Gobernuak arlo honetan zuzen-zuzeneko partehartzerik izan dezaten. Liberalen ustetan, Gobernuak kreditu-arloan eskuhartzeak baliabide-banaketa bihurriak dakartza eta ez du norbanakoen jokaeraren besteko eraginkortasunik.

Baina hain eritzi aldendu bi hauen artean badago erdibiderik. Erdibide honek iharduera pribatua du nagusi, baina, aldi berean, Gobernuak tresna egokitzen jotzen ditu, batetik, kredituak araupeztearen ardura norbanakoen eskuetan askatasun osoz uzteak ekar

litzakeen gehiegikeriak mugatzeko, eta bestetik, bankuek berentzat errentagarri ez izateagatik betetzen ez dituzten ekintzak buruzteko, hauek Gizartearentzat garrantzi handikoak direnean.

Gobernuaren eskuhartze moderatzaile eta osagarria babesten duen teoria honen ondorioz, ekialdeko munduan zehar kreditu publiko eta erdipublikorako sistemak zabaldu egin dira, arlo pribatuaren osagarri modura.

Gaur egun normala dugu Gobernuak ekonomian ihardutea. Hau ez da unerik egokiena kreditu-arloan Gobernuaren ihardueraren aldeko eta aurkako arrazoiak, abantailak eta oztopoak aztertzeko, baina bai, ordea, kreditu-arloan Gobernuak protagonismo gehiago ematearen arrazoa agertzeko. Erakunde pribatuek askotan ez dute zenbait zerbitzu eskaintzen, edota egitekotan ere erdizka egiten dute. Zerbitzuok eskaintzean datza jokabide honen gakoa. Gobernuak onartu egin dute ekonomian eskuhartu beharra eta badakite kreditu publikoa eginbehar hori betetzeko tresnarik garrantzitsuenetariko bat dutena.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak 1980an, bere agintaldirako helburu nagusien artean ekonomia berpizteko baliabide guztiak erabilteza aipatu zuenean, erabilgarri ziren bide guztiak eskatu zituen, eta hauen artean Euskal Herri-Kreditu Sistema sortzea.

Hala eta guztiz ere, Euskal Herriak ez du horretarako sistema berezirik, ez gaur ezta aurreko estatutu-aldian ere. Horregatik, Euskal Herrian indarrean dagoen kreditu ofiziala Espainiako Estatuarena bera da.

Herri-Kreditua historian zehar

Sistema estatala I. Mundu-Gerraren amaieran agertutako larrialdi ekonomikoaren ondorioz sortu zen.

“Banco Hipotecario” izenekoak izan ezik, berau 1872an sortua, beste erakunde guztiak gerraosteko urteetan sortu ziren.

“Crédito Marítimo y Pesquero” delakoa, 1919an; “Banco de Crédito Industrial” delakoa, 1920an; “Banco de Crédito Agrícola y Local” delakoa, 1925ean. Honezaz gainera, 1939an “Instituto de Crédito para la Reconstrucción Nacional” izenekoak, gaur egun

aienatua, sortu zen. 1929an "Banco Exterior" izeneko sortu zen. Banku hau ez dago erakunde ofizialen artean, ez zuten nazionalizatu eta.

Banku hauen ezaugarriak nabarmenena epe luzearako kredituak ematea zen. Arlo pribatua, ostera, ez zen jokaera honetaz usu baliatzen.

Banku hauen eginkizuna, beren izenek adierazten dutenez, batetik, industria, kanporako merkataritza, etxebizitzaren eraikuntza, nakazaritza eta arrantzua bultzatzea zen, eta bestetik, Udalerrien herri-lanetarako dirulaguntzak ematea.

Garai batean elkarrekiko loturarik gabeko ekintza desberdinak burutu ostean, Egonkortasun Planaren barruan 1958ko abenduan banka ofizialaren berregituraketa gertatu zen, Plan honek Europarekiko isolamendua hautsi zuela.

Herri-kreditua bultzatzeko eta ekonomia berpiztearren, erakunde guztien iharduerak koordinatzeko ahaleginak egin ziren.

Arlo pribatua osatzea eta Ekonomi Plangintzarako Gobernuak ezarritako artezpide nagusiak betetzea izan ziren jokabide erizpideak. Horretarako, 1962an Bankuak nazionalizatu egin ziren eta beren dirubideketa-moduak Herri-Ogasunaren bidez zehaztu. Honen ondorioz, emandako kredituek gorakada itzela jaso zuten, era berean kreditu-motak ere ugari egin zirelarik. Zabalkunde hau zela eta, errentagarritasunik gabeko eta ekonomikoki ezelango zentzurik ez zuten dirubiderapenak egin ziren, beherantz zihoa-zen arloei eutsi nahian, hain zuzen.

Jokaera "politikoak" ere izan ziren, Herriak ez zuen hauen berririk jaso baina, edota jaso bazuen ere, ez modu sinesgarrian behintzat.

Euskal Herriarentzat (berau industrigune garrantzitsua zela kontutan izan dezagun) zabalkundea onuragarri izan zen; baina, hala eta guztiz ere, agerian utzi zuen industria nagusiaren makaltasuna, honen garapena kanpotarren esku zegoen eta.

60. hamarkadako gehiegikeriek, arestian aipatuak, eustezinezko egoeran murgildu zuten aipatu Kreditu-Sistema Publikoa; honen, ondorenez, bertaxuketa sakona eta helburuak aldatzea ekarri zuela. 1971n hasi ziren bertaxuketa-lanak.

Aurrerantzean ere, kreditu-sistema Gobernuaren plangintzarako tresnatzat jotzen zen, baina hori bai, eragiketa guztietan erren-

tagarritasuna bilatuz. Honekin haxe lortu nahi zen: Banku ofizialek dirubide-orekaren arabera ihardutea, edo errezago esanda, Bankuek urterik urte galera handiagoak ez izatea, honek mirri edo porrot teknikora eramango bait lituzke.

Aipagarria dugu 1969. erarte Herri-Ogasunak Kreditu-Sistema Publikoari emandako dirutzak ez zuela interesik ordaindu beharrik. Honen ondorioz Banku ofizialen emaitzak aldaturik agertzen ziren.

Horregatik, Banku ofizialek Herri-Ogasunak utzitako eskuarteei esker irauin zuten eta honen truke Herri-Ogasunak ez zuten inolako ordainik jasotzen.

Esan liteke, beraz, zergadunak zirela herri-kredituaren merketasunaren ondorioz sortutakoak ordaintzen zituztenak.

Hau dirubideketa-iturri pribilegiatuatariko bat zen; bestea, diruezarketa-txartelek osatzen zuten. Zein neurritarainoko garrantzia zuten ikusteko, esan dezagun 1982rarte Kreditu ofizial Taldearen diru-iturrien %95a zirela.

Diruezarketa-txartelak Herri-Ogasunak jaulkitako tituluak ziren. Hauen interesa Herri-Ogasunak berak jartzen zuen, eta Banku eta Aurrezki-Kutxek beren ahalbide ekonomikoen arabera erosketak egitera beharturik zeuden. Derrigorrezko eskurapen motatako txartelak zirenez gero, berauek interes txikikoak ziren, kreditu sistema pribatuak, honen kalteordaina eman asmotan, norbanakoei interes altuak ezartzen zizkiela.

Horrela, batetik, zergadunak orokorki, eta, bestetik, Banku eta Aurrezki-Kutxetara diru-eske jotzen zuten enpresa eta norbanakoak ziren ezarritako zirkuitu pribilegiatuari eutsi behar ziotenak.

Moncloako Itunak ditugu kreditu-sistema publikoaren garapenerako azken urratsaren hasiera. Itun hauen helburuetariko batek adierazten zuenez, dirubideketa-sistema hau zirkuitu pribilegiatuetatik askatu beharra dago. Horretarako haxe lortu nahi zen: kreditu ofizialerako dirubideketaren herena norbanakoei ordaintzea, eta gainera merkatuko prezioetan, hau da, norbanakoei beren dirua uzteko eskatzen duteneko interesean (erreditu-sarian).

Prozesu hau bete bazen ere, argi dago berau zelanbaiteko hutssegitea izan zena. Heren horri eusteko nazioarte mailako merkaturara jo beharra egon zen, honek, pezetaren balio-gutxitzea zela eta, makina bat galtze ekarri zituela. Horrez gainera, kreditu ofi-

ziala ahalbide errealean gainera hazteak Herri-Ogasunen dirubideak etengabe gehitzea ekarri zuen. Hau dela eta, Herri-Ogasunak utzitako dirutzak, urte bakoitzeko, 250.000 milioi pezetatiko gorakada jasango du 1981-1985era bitartean. Kreditu ofiziala ez da 1986a arte gauzà izango, eta orduan ere ez oso-osoan, Herri-Ogasunak utzitako dirutzari dagozkion interesei aurre egiteko. Orduarte ordaindu gabeko interesak zorrari gehitzen zitzaizkion, berau normala denez, gehituz joanez.

Bilakaera honen azken pausua ez da Moncloako Itunen helburuen sakontze hutsa besterik: Liberalizazioa, eta honek kreditu-mota guztietan partehartzea dakar; Bankarizazioa, eta honek, ostera, zirkuitu pribilegiatuak gutxitzea.

Ez dago arrazoirik, 1992rarteko prozesua 1979an hasi zena baino arrakastatsuagoa izango dela susmatzeko. Kreditu ofizialaren modernizazioa kredituzko iharduera librea zabaltzean oinarritzen da, eragiketa guztietan bere ehunekoak gehituz, baita dirubide pribilegiatua gutxitzean ere.

Gehiago zehaztuz, 1987an dirubideketa pribilegiatua %60,6a izan bazen ere, asmoa 1991ren amaierarako %36ra heltzea da. Zail ikusten dugu, beraz, 1992rako aipatu helburu biak betetzea.

Kreditu-Sistema Publikoaren autonomia edo deszentralizazioa

1984.ean, kreditu ofiziala delakoaren lehendakariak idatzi zenez, herri-kreditu sistemak, erakunde moduan, zeukan arazorik garrantzitsuena Autonomien Estatura egokitzea zen. Hau horrela izanik, Banka ofizialak martxan jarri zuen bulego berriak irekitzeko plana. Honez gainera, honako hau ere esan zuen: Autonomi Estatura egokitze hori ezin lor daiteke bulegoak ireki eta erabakiak deszentralizatze soilarekin. Beharrezkoa da etengabeko harreman-bideak ezartzea, horretarako ordezkatza eta erabakietan partehartzeko ihardute-sail egokiak sortuz.

1984.ean aurreko hau irakurri baguen ere, ez dugu orain arte asmo hauek gauzaturik izan, ez bait da ezertxo ere egin eskuhartze-bideak urratzeko. Euskal Herrian bulego berriak zabaltzearen bidez halako administrazio-deszentralizazioa besterik

ez dugu lortu. Adibidez, 1980an gure Herrian ez zen bulego bat bera ere, ostera 1982 eta 1984aren bitartean ondorengoak ireki ziren: Crédito Agrícola-ren bulego bat Lizarran; Banco Hipotecario-renak, bi, bata Iruñean eta beste bat Gasteizen; eta beste bi Crédito Industrial-arenak, Iruñean eta Bilbon.

Abertzaletasunaren ikuspegitik Eusko Jaurlaritzak defendatu zituen tesiak, berau Nafarroako Gobernuaren aldean askoz ere gogorrago agertuz.

1980-84erako Jaurtze-egitarauan agertzen zenez, Eusko Jaurlaritzaren ihardutze-egitaraua gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa dugu Euskadi baliabidez hornitzea, baliabideok egitarau honen eskatzen dituen ekonomi beharrezane aurre egiteko bestekoak izan beharko dutelarik.

Baliabide hauek elkarrekin zerikusia duten bi bideetatik etorriko dira:

- Eusko Ogasun Autonomotik.
- Eusko Dirubidezko Sistematik.

Baliabide-iturri hauek finkatzea Eusko Jaurlaritzaren helburu behinenetarikoa bat dugu.

Herri-Kreditu sistemari zegokionez, adierazpen atzerakoiak agertzen ziren, herri-krediturako erakunde bat sortzearen beharri-zana balioesteko behar diren azterlanak egitea jotzen bait zen helburutzat. Erakundearen helburuak legez zehaztuko lirateke, baita berorrenetzako baliabide-kopuruaren zenbatekoa ere.

Jarrera honen aldean, osterantzekoa dugu PSE-PSOEk 1980-84 aldirako Jaurtze-egitarauan egindako eskaintza. Berau hitzez hitz kopiatuko dugu gaur geroari begira itzelezko garrantzia izango bait zuen.

PSE-PSOEk 1980an Euskadiko Kreditu Ofizialerako Erakundea sortzea proposatzen zuen, berau Ogasun-Sailaren agindupean jarririk. Berorren domuaren %50a Eusko Jaurlaritzaren izenean jarriko litzateke, eta gainontzekoa, Aurrezki-Kutxa Probintzial, Tokiko eta Kooperatibenean. Erakunde honek ondorengo diru-iturriak izango ditu:

- a) Autonomi Elkartearen aurrekontu-izendapenak.
- b) Diruezarketa-txartelen jaulkipena, berauek Estatuko Kreditu Ofizialerako Erakundearen txartelak ordezkatuko dituztela-

rik, Aurrezki-Kutxen eta Kooperatiba-Kutxen herri-diruen ehunekoaren barruan, baita banka pribatuan ere, berauek Euskal Herrian izan ditzaten zorkarien heinean.

Honez gain, Euskadiko Kreditu Ofizialerako Erakundeak, batipat, ondorengo lau eremuetan ihardutea proposatzen zuen, beren ekimenerako egokien eritzitako moduan antolatzeko ahalmena izanik.

Aipatutako eremuak hauetxek dira:

- Nekazaritza eta Arrantzurako Kreditua.
- Etxebizitzak Eraikitzeko Kreditua.
- Toki-Kreditua.
- Industri Kreditua.

Gaur egun, adierazpen hauek egin zirenetik bederatzi urteren buruan, eta 1980az geroztik Estatutuarekin gertaturikoa ikusirik, harrigarria gertatzen da Eusko Jaurlaritzaren jarrera hain beldurtia izatea. Denok dakigunez, honek gaia aztertzea proposatzen zuen bakarrik. Are harrigarriagoa dugu PSE-PSOeren joera, beronek, autonomistagoa izanda ere, Euskadiko Kreditu Publikoa delakoaren sorkuntza proposatzen bait zuen.

Funtsean, PSOeren hauteskunde-proposamenak hauxe zekarren: Estatuan indarrean zegoen kreditu-sistema publiko bera Autonomi Elkartean ezartzea. Honez gainera, kreditu ofiziala oinarritzen den bi baliabide-iturri pribilegiatuz baliatzea proposatzen zen: Diruezarketa-txartelak eta aurrekontu-izendapenak.

Guzti honek, alde batetik, eta autoantolakuntzarako ahalmenak eta Eusko Jaurlaritzarekiko menpekotasun politiko zuzenak, bestetik, nahikoa formulazio autonomista sakona osatzen zuten.

Ikus dezagun orain zein izan zen eritzi hauen bilakaera. Eusko Jaurlaritzak aldeztzen zuen filosofian tresneriari geroz eta garrantzi handiagoa ematen zitzaion, eta badirudi joera hau eguneroko aginte-lanetan ihardutearen ondorena zela. Adibide bat jartzearren, esan daiteke bere egoera mediku batenarekin gonbara daitekeela, hain zuzen ere, gaixo bati ebakuntza egiteko medikuntza ezagupideak izateaz gainera, ebakuntzearako tresneria egokia edukitzea beharrezko dela konturatzen den medikuarenarekin. Era berean, Jaurlaritzan apurka-apurka nagusituz zihoan eritzi hau: aginpi-deak bakarrik edukitzearekin ez goaz inora, berauek praktikan

jartzeko baliabide egokirik ez badugu. Hau dela eta, aginpideak eskuratzeak berarekin ekarri beharko zituzkeen berau praktikan jartzeko beharrezko baliabideak. Eta non hara, tresnetariko bat kreditu-sistema publikoa dugu.

Hauxe izan zen 1983.eko apirilean eusko talde teknikoak Estatu Gobernuko ordezkariak teknikoari iragarri zion jokabidea, ordezkariak tekniko honen buru Ogasun-Ministeritzaren Idazkari nagusi teknikoak izan zelarik.

Hauxe izan zen laburbilduz planteamendu horri emandako erantzuna.

Onartezina zela Estatuarentzat planteamendu hau, tresneria inori uztearen aldeko bide horrek tresna barik uzten bait zuen Estatu bere eginkizunak betetzeko. Ez litzateke inolaz ere onartuko dirubideketa pribilegiatua Autonomi Elkartera eskualdatzerik, berau sistema osoaren funtsa baita.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzak idatziz aurkeztu zion bere jokabidea Estatu Administrazioari. Formulazio zehatzagorik egon zegoen arren, PSE-PSOEren hitzez hitzezko hauteskunde-egitarauaren testua bidaltzea erabaki zen. Hala ere, erantzuna ezin izan zitekeen erabatekoagoa. Hitz gutxitan azaltzen du Estatuaren ize-nean negoziaketan parte hartzen dutenen idazkiaren azken idaztalak. Beronek hauxe dio: azken batean, kreditu ofizialaren arloan, ez da onartuko inolako eskualdaketarik egiterik. Hauxe izan zen ituna lortzeko egindako azken kontaktua.

Interesgarritzat jotzen dugu epilogo modura 1984.eko hauteskundeetan PSE-PSOEek aurkeztutako eritzia. Bertan hauxe aldarrikatzen zen: Kreditu ofiziala ekonomiaren ordenamendurako oinarrizko tresna dugu, berau lurraldeka sailkatzeak berorren funtsezko xedeak ukatzea lekarke (ekonomiaren arlokako ordenaera). Dirubidetza-erakundeetatik hartzen dituen baliabideak uztea, bere erakunde-ahalbide errealak antzutea litzateke.

Hauxe izan da lau urtetako bilakaera, 1980-84, oposizioan egotetik agintean egotera artekoa. Orduetik hona, Eusko Kreditu Publikoaren sorkuntzak amets galduetan darrai.

Ondorioak

Europako merkatu bakarrari begira helburu nagusi bi lortu nahi dira. Batetik, egungo kreditu-sistema publikoa, hau da, Estatuak, bere abantailez desjabetzea, dirubideketa moduari dagokio-

nez. Eta bestetik, betiko Bankaren egituraz ahalik eta gehien jabetuz joatea, bai bezeroei zuzentzerakoan, zein berorren antolaketari dagokionean. Helburu bi hauek badute elkarrekiko zerikusirik, kreditu-sistema publikoaren lehiakortasuna, iturri pribilegiatuak baztertutakoan, bere eginkortasunaren pentsutara geratzen bait da. Aukeratu den sistema lehia irekian oinarritzen den sistema liberala dugu, bertan aurrera egiten duten bakarrak ondoen prestatutakoak izanik. Sistema hau gaur egun Europako Elkartearen indarrean dagoena dugu.

80. hamarkadan izandako esperientzia eta eraldaketa honetarako bideratu diren baliabideak, batipat borondatezkoak, kontutan izanik, zentzuzkoa litzateke 1992rako jarritako helburuak bete ez izatea, ezta, beraz, aldi horretan kreditu-sistema publiko eraginkorrik sortzea ere.

Badirudi ba, Estatuko Gobernuaren jarrera zakarra ikusirik, ez dugula Euskadirako kreditu-sistema publikorik izango. Edozelan ere, arlo honetako edozein aldaketak zurtz eginda utziko gintuzke, ez bait da halakorik gertatzerik espero.

A. J. A.

EL SISTEMA DE CREDITO PUBLICO

LE SYSTEME DE CREDIT PUBLIC

El Sistema de crédito público es una forma de actuación de los Gobiernos intermedia entre la nacionalización, que propugnan los socialistas, y la abstención liberal.

En Euskadi, no ha existido un sistema autónomo de crédito. Por ello, el crédito que ha venido actuando es el estatal.

El Sistema público tuvo su origen en el período posterior a la I Guerra Mundial. En ese período nacen los Bancos públicos que hoy conocemos.

Tras un período de lánguida existencia, a tono con la realidad económica del Estado, los desarrollistas del franquismo intentaron convertirlo en un instrumento al servicio de la Planificación Pública.

Los excesos del desarrollismo, créditos políticos o antieconómicos, llevaron a una situación cercana a la quiebra del sistema público de crédito. En 1971, hubo que reestructurar el Crédito Oficial.

En la actualidad subsiste gracias a la obtención de recursos de privilegio, dotaciones del Tesoro y Cédulas.

La tendencia a futuro es la de eliminar estas fuentes privilegiadas, que directa o indirectamente pagan todos los ciudadanos.

El Gobierno Vasco ha intentado infructuosamente conseguir la transferencia del Crédito Oficial.

La postura socialista, que en 1980 era favorable a dicho traspaso, varió radicalmente en 1983, al alcanzar el poder, afirmando que en ningún caso se aceptaría transferir la financiación y que el planteamiento del Gobierno Vasco era inaceptable. El planteamiento que tan radicalmente se rechazó, era la copia literal del Programa de Gobierno del PSE-PSOE de las elecciones autonómicas de 1980.

Desde 1980, la situación ha quedado bloqueada, y no parece que vaya a solucionarse a corto plazo.

Le Système de crédit public est une forme d'activité des Gouvernements à cheval entre la nationalisation que les socialistes défendent et l'abstention libérale.

Il n'a jamais existé en Euskadi de système autonome de crédit. C'est la raison pour laquelle, le crédit qui a joué un rôle important est celui de l'Etat.

Le Système public provient de l'après guerre (1914-1918). C'est à ce moment là que sont nées les Banques publiques que nous connaissons aujourd'hui.

Suite à une période d'existence végétative en accord avec la réalité économique de l'Etat, les protagonistes du développement à outrance franquiste essayèrent de la convertir en un instrument au service de la planification publique.

Les excès du développement, les crédits politiques ou antiéconomiques, amenèrent à une situation proche de la faillite, le système public de crédit. En 1971, il a fallu restructurer le Crédit Officiel.

Il existe encore actuellement grâce à l'obtention de recours de privilège, des dotations du Trésor et des Cédules.

La tendance à venir est d'éliminer ces sources privilégiées que tous les citoyens payent directement ou indirectement.

Le Gouvernement Basque a essayé en vain de faire transférer les fonds du Crédit Officiel.

L'attitude socialiste qui en 1980 était favorable à ce dit transfert changea radicalement en 1983 en arrivant au pouvoir, en affirmant qu'en aucune façon il serait accepté le transfert du financement et que la proposition du Gouvernement Basque était inacceptable. La proposition qui fut rejetée si vivement était la copie littérale du Programme du Gouvernement du PSE-PSOE des élections autonomes de 1980.

La situation est restée bloquée depuis 1980 et il ne semble pas qu'une résolution va être prise très prochainement.

Finantz sistemaren egitura berria: Bankuen bategitea

Pedro Luis Uriarte

1. Abiapuntua: Europako finantz espazio berria

Europaren batasun politiko eta ekonomikorako bidea urratu eta garatzeari 1957.ean ekin bazitzaion ere, 1985.erarte aurrerakuntzarik gutxi izan da "Europako finantz merkatu bateratua"ren osatze-bidean. Halere, azken hiru urteotan egoera zeharo aldatu da, aipatu aldi honetan aurreko hiru hamarkadotan zehar izan duguna baino aurrerapen handiagoa gertatu delarik. Bultzakada honen arrazoia "Europako Agiri Bateratua" onartzea izan zen. Agiri honek —1987.eko uztailaren 1ean jarri zen indarrean— EEEren sortze-ituna birmoldatzea ekarri zuen, Europaren eraikuntzan aurrera egiteko asmotan. Alderdi ekonomikoari dagokionez, Europako Elkarterako merkatu bateratua sortzea du helburu. Merkatu nagusi hau 1993.eko urtarrilaren 1erako jarri nahi da indarrean.

Guzti honen ondorenez, badirudi Europako enpresa guztientzat, baita berauetan lan egiten dutenentzat ere, aldi berriak datozela. Merkatu bateratuak ahalbide itzelak eskainiko dizkigu, baina

baita herronka eskerga eta izugarriak ere. Beraz, jakin egin behar-ko dugu herronka hau zertan den eta, ondoren, ebaluatzen. Aupa-da honi egokiro erantzuten saiatu beharko dute gure enpresek... eta garaiz erantzuten gainera.

Finantz arloan, orain artekoaz gain, beste gertakari bat dugu aipagarri. Euskal Herriko Bankuei 1993.eko urtarrilaren 1ean amaitzen zaie Estatuak EEEn sartutakoan negoziatu zuen aldibaterako egokitze-epaia. Guzti honi eta EEEn benetazko barne-merkatu bateratu horren egituraketari esker, pertsona, merkantzia eta diruek, egungo merkatu nazionaletan gertatzen den bezalaxe, nahi bezala ibili ahal izango dute. Gure finantz arloek ere izugarritzko aldakuntza jasango dute, eta hasieran behintzat, merkatal lehiak inoiz ez bezalako gorakada.

Finantz arloan, Europako merkatu bateratua dela bide, Europako Elkarteak osatzen duten Herrialdeetan kokaturik dauden Banketxeek askatasun osoa izango dute beren iharduketa edo aktibitate aukeratzekoan, bai Elkarteko beste Estaturikideetan bulego berriak irekiz, beren jatorrizko Estatuetatik finantz zerbitzuak eskainiz. Guzti hau burutzea, gainera, errazagoa izango da Elkarteko Estaturikide bakoitzean Bankuentzako indarrean diren baimen, kontrol eta gainbegiratzeko-sistemak elkar hartuz onartzen badira.

Egoera horretarako heltzeko, lege-esparruak aldaketa sakona jasan beharko du. Aldaketa hau, banku-iharduketari dagokionez, ez da nazio-mailako banku-araudien elkar-egokitze edo harmonizazio sakona izatera mugatuko, zergabidezko edota diruzko politiken antzean, Banketxeen iharduketa eta emaitzetan eragin nabarmena duen zenbait jaurtze-politikaren harmonizaziora ere iritsiko bait da.

Ekonomi arloari dagokionez, Elkarteko mailako finantz espazio bateratura eramango gaituzten erreforma guztiak ildo beretik datoz, eta, beharbada, sorburu berbera izango dute, alegia, 320 milioi biztanlek osaturiko Europa honek duen hazkunde-ahalmen eskerga horretaz baliatzeko nahi logikoa. Merkatu bateratu bakar honek, mugarik gabeko honek, hazkunde ekonomiko handia eta lanpostuen sorkuntza nabarmena ahalbideratu behar ditu. Erreferentzia modura, bere irabaziak, ekonomi iharduerari buruzko gehikuntz terminotan neurtuta, Cecchini delako txosten egin-berrian azaltzen denez, Europako Elkarateak 1985ean lortutako Estatu Produktu Gordinaren %2,5etik %6,5era bitartekoak izango dira (dirutan 9,8tik 16,6 bilioi pezeta); Estatu batzuetatik bestetarako eragina zeharo alda daiteke baina.

Baina, edozelan ere, azpimarratu egin nahi dut, bankari dagokionez mundu-mailan kokatzen bagara, aurrerakuntza hauek ez direla gizarte-dinamikaren beraren ondorio besterik, berau finantz berrikuntzak eta informazio-teknologiek eragina delarik. Honen ondorenez sortuz doa poliki-poliki merkatu unibertsal globala, tresneriaz, geografiaz eta ordutegiz mugarik gabekoa alegia.

Esan daiteke, beraz, bere banka Europako barruti bateratu berririk horretan murgiltzeak, gaur egungo finantz munduko berrikuntzetara egokitu beharra dakarrela, baita gure herrialdeko zein mugaz kanpoko lehiakortasun askoz zorrotzagoari aurre egin beharra ere. Egoera honetan ezinbestekoa dugu erantzunik egokiena bilatzen jakitea.

Beti ere oro har hitz eginda, nire ustetan, arestian esandakoari aurre egiteko egokitze-lan apropos batean murgildu beharko luke gure bankak. Egokitze-lan hau, erakunde nagusien kasuan, ondorengo hiru artezpideotan oinarrituko litzateke: eraginkortasuna, internazionalizazioa eta askotarikotasuna (dibertsifikazioa). Egokitze-prozesu honi zenbaterainoko garrantzia eta premia eman erabakitzea erakunde bakoitzaren ardura izango da, eta berauek beti izango dute helburu Europako finantz espazioak sortutako bideak arrakastaz urratzea, horretarako, ezinbestekoa izanik gure finantz sistemaren lehiakortasuna sendotzeko behar izan daitezen neurri guztiak hartzea, berau finantz erakundeen eta agintarien ardura delarik.

Azken hauei eginkizun erabakiorra dagokie benetan, gure eraberritze-prozesuak oraindik duen atzerapen nabarmenagatik baino ez bada ere, bai beharrezko merkatu liberalizazioaren arloan, zein gure erakundeen lehiakortasun-berdintasuna bermatzerakoan.

Banketxe eta Aurrezki Kutxei dagokie, ostera, azkenaldi honetako irabaziek eskaintzen dieten aukera egokiez baliatuz, horietako bakoitzak bihar-etziko Europako finantz barrutian izatea lortu nahi lukeen erakundearen oinarriko zutabeak zein diren aztertu eta, horren arabera, erabakiak hartzea. Horretara irixteko, baina, honako hauek zehaztu behar: zer eskaini, zein bezeria landu, noraino zabaldu ala mugatu bere zerbitzu-barrutia, eta zer-nola joka kompetentziari aurre hartu ahal izateko. Galdera horiei eman beharreko erantzunetan ez dute zergatik bat etorri Banku eta Aurrezki guztiak, ezta beti-beti fusio-bidetik jo behar ere, nahiz eta gaur egun gure artean ia besterik entzuten ez dela dirudien.

2. 1993ari begira zenbait estrategia

Gaur egun gertatzen denaren ikuspuntu zehatzagorik izateko, esan beharuko genuke Europako herronka ez dela arin-arinka urratzen dihardugun merkatu unibertsal globalean gertatzen ari diren dardara eta egokipenen zati edo atal bat baino, prozesu honen amaieran, mundu-finantza merkatu bateratu horretan izango garelarik.

Horrelaxe da, bai, behin XXI. mendean murgilduz gero, ez dugu mundu-finantza merkatu global bateratu bakar bat besterik izango, handiko eta hemendiko zenbait hiriren arteko salerosketak orekatu eta zuzenduko dituen alegia (Donostia eta Tokio, adibidez), nahiz eta eremu desberdin, aktibo desberdin, zein kenkari desberdinei egokiturik izan.

Globalizazio honek banku-esparruaren berregituraketa sakona dakar, baita eraginkortasun-maila jakin batera iritsi ez daitezen erakundeak, arin batean, beste erakunde eraginkorrago eta lehiakorrago batzuek ordezkatzeari ere. Eta guzti hau laster asko somatuko dugu etorkizuneango merkatu naturalean: Europan.

Etorkizuneko banku- edo finantz negozioa, betiere mundu-ikuspuntutik hitz eginda, hierarkizaturiko egitura batean artekaturiko erakundeen bidez burutuko da. Lehen aurrirakusten genuen Europa horretan, beharbada, hiru antolakuntza-maila bereiziko dira. Lehenengoa mundu-merkatu globalean ihardungo duten banku edo erakundeek osatuko dute, berauek garrantzirik handieneko herrialde eta merkatuetan negozioak izango dituztelarik. Izatez gutxi batzuk baino ez dira izango, gehien jota dozenaren bat erakunde, nagusiki bankuak, Estatu Batu, Japon, Britainia Handia, Alemania Federalekoak eta, baliteke Frantziakoak.

Bigarren maila batean banku-multinazional talde bat dugu (40tik 50era bitartekoa). Hauek ez dute globaltasun-mailarik izango, eremu geografiko hedatuetan ihardungo dute baina. Hauen tamaina edo indarra zenbait nazio-eta arlokako merkatutan aritze-ko bestekoa izango da. Honez gain, banku global handiekiko menpekotasun-ez maila altua izango dute. Bigarren maila honetan Europako Banku ezagunenak ditugu, baita Banku japoniar eta amerikarren bigarren maila osatzen dutenak ere.

Azkenik, piramide handi honen hirugarren mailan pila bat erakunde izango ditugu, handi zein txikiagoak, eta, batipat, beren

jatorrizko merkatuetan ihardungo dutenak, beren helburua merkatu honetaz guztiz jabetzea edota espezializatzea izango delarik, aurrerantzean lurralde- edota arlokako eremuak kontrolatu xedez eta betiere beren tamaina eta asmoak kontutan harturik.

Aurreko guztia ikusi ondoren, ez zaigu arraro iruditzen Europako Bankurik prestatuenak, hots, egun "europartasuna" "globaltasun" era iristeko aurrepausua dela somatzen dutenak, herronka eskerga honi, ahal den baldintzarik egokienetan, aurre egiteko neurriak al bait arinen hartzen saiatzea. Banketxeak taxutzen ari diren planak askotarikoak dira, eta berauen sistematizatzea ez da eginkizun erraza izaten, baina, salbuespen horrekin, esan daiteke gure kontinentean antzematen diren banku-estrategiak, funtsean, ondoren laburbilduko ditudan laurok direla:

Lehenengo estrategiak elkarte mailan Banku unibertsalak sortzea du helburu, hau da, Europa osoan edo ia osoan bezeria-segmentu guztientzako banka egiten saiatuko diren erakundeak sortzea. Estrategia europar hau aukeratu izan dutenak, Europako banku-baimen bakarra azken ondorioetaraino erabiltzeko asmoa duten zenbait Banku handi izan dira. Normalean munduko nagusietarikoak izaten dira, dimentsio handikoak eta baliabide eskergak dituztenak. Maila honetan gutxi gorabehera 8-12 Banku europar handi ditugu (Deutsche, Barclays, Nat West, Frantziako bi Banku garrantzitsuenak, ezagunenak aipatzearren); hauetatik erdiak bainik ez dira mundu mailako erakunde izatera iritsiko.

Hedapen-ahalbideak eta negoziotarako aukera berriak era errealean eta eraginkortasunez ustiatu ahal izateko, hazkuntz ahalmen jaso beharko dute izan, baita gutxikako negozioekin zerikusi zuzena duten zenbait iharduketa-esparrutan aritzeko banaketa-sare egokiak edukitzea ere (adibidez, kontsumorako kreditua, kreditu hipotekarioa, bizi-aseguruak, etab.). Nolabaiteko garrantzia duen sare batez ahalik eta eperik laburrenean jabetzeko, Elkarte mailan negozioa planeiatzen duten Banku handi hauek, normalean, ez dira fusioez baliatzen. Banku handi hauen estrategia, berak baino arinagotik lanean diharduten Banku txiki eta ertainak erostean datza. Beraz, aurrera daiteke, behin European zeharreko lege-eragozpenak aienatu edo desagertutakoan, erakunde txiki, ertain eta, baliteke, handiren batzuk ere, irentsiak edo xurgatuak izango direla, batez ere, aurrera egiteko adinako ondarrerik ez badute.

Bigarren estrategia European iharduteko behar besteko mardul-tasun kritikorik ez duten erakundeek jorratzen dutena dugu, ale-

gia, mardultasun hori ahalik eta azkarren lortzeko bategite edo fusioetan oinarritzen direnen estrategia. Europan, erakunde ertainak izan dira bide honi ekin diotenak, bide honetatik lortu nahi dituzten helburuak honako hauek ditugula: erakundea bera handiago egin, berau eraginkortasun handiagoz hornitu, kostuak gutxitu, zenbait merkatutan sartzeko ahalmena handitu eta barne-merkataritzea sendotu, azken honen helburua, batetik, Europako Elkarteko Banku unibertsal nagusiei aurre egitea dela, eta, bestetik, baliabide-kopurua ugartzea, horrela finantz erakunde ahaltsuagoek xurgatu izatea eragotziz edo, behintzat, horretarako oztopoak jarritz.

Badugu, bai, estrategia honen adibide adierazgarriak. Gure artean, esaterako, Bilbao-Vizcaya eusko finantz taldea, bide honi jarraituz, Europa mailako hogeitamabigarren Bankua izatera iritsi da; eta alderen batzurekin, AmroBank holandarraren eta Générale de Banque belgiarraren artean oraintsu egindako elkarteak dugu bigarren adibide bat, eta, beste maila batean, Shangai-Hong Kong Bank eta Midland ingelesaren artean egindakoa.

Nazioarte mailan zabaltzeko eta diru-ezarketa askorik egin gabe beren bezeroei kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko, Europako Bankuek hirugarren estrategia batez baliatzen dira; itun, "joint-ventures" edota zenbait herrialdeetako erakundeen artean akzioen gurutzaketak burutzen dituzte, sarritan, hauekin batera sare eta baliabideak elkarrekin erabiliz.

Bategite edo fusiora ailegatu barik, merkatuetan sustraiak sakontzen dihardute, aldi berean, Banku bakoitzaren menpekotasuneza jagoteko nahiz benetan gogoko dituzten kideekin bihar-etzi elkartzeko behar dituzten oinarriak finkatzen direlarik.

Estrategia mota honetan sar ditzakegu Instituto Bancario San Paolo di Torino Banku italiarraren jokaera, eta baita lau Banku eskandinabiarraren arteko Banku-partzuergo sortu berria ere. Nere ustetan, ildo honetatik joan liteke "Europartners" delakoaren estrategia, baita, zertxobait aldatuta bada ere, Banco de Santanderrena ere.

Eta azkenik aipatuko ditugun Bankuak toki-, lurralde- eta estatutatu-mailatako merkatuetan ahalik eta sendoen sustraitu eta hazten ahalegintzen direnak ditugu, nazioarteko mailan iharduteari bizkar ematen diotelarik. Hauetariko zenbaitzuk Banku handiak izan arren ere, gehientsuenak ertainak edo txikiak dira. Europan ihar-

duteari uko egiten diote, lehen esan dugunez, batzutan, kostu-ara-zoengatik eta, bestetan, bertoko merkatuetan, lehiarako baldintza hobe eta eraginkorragoak direlako ustelako. Badirudi, izen batzu aipatzearren, Banco Popular, Guipuzcoano eta Bankoa dire-la ildo honetatik abiatzen direnak.

Ikus daitekeen moduan, aurreko urteetan ere izan dugu bategi-te aipagarririk. Hain zuzen ere, bide hau landuz, ezagun ditugun zazpi banku-multzo nagusi sortu ziren estatu-mailan, 1988ko urriaren 1era arteino ihardunez (data hau Banco de Bilbao eta Banco de Vizcaya bategin zirenekoa dugu). Edozelan ere, argi utzi nahi dugu bategiteak sarritan beharrezko suerta badaitezke ere, ez direla finantz erakundeek geroari aurre egiteko duten bide bakarra. Dimentsioa ezin daiteke inoiz, estrategia zuhur baten barruan, azken helburu izan berez, estrategia honen nahitaezko ondorioa baizik.

Beste era batera esanda, bategiteak (fusioak) bai... baina dago-kion Banku edo Aurrezki Kutxaren eraginkortasuna, errentagarri-tasuna, askotarikotasuna eta egonkortasuna bermatzeko estrate-giari erantzuna emateko denean baino ez.

3. Banco Bilbao-Vizcaya-ren bategitea

Irakurleak jadanik susmatu duenez, ez dago geroari erantzute-ko bide bakarrik. Aukeraketa egin bai, baina biderik egokiena asmatuz. Horrela adierazten zuen "Europa Banker" izeneko aldiz-kariak 1988ko apirileko alean, bertan nazioarte-mailako finantz erakundetako hamabi adituk, 93ari begira, zein Banku egon zitez-keen egoerarik hoberenean aztertzen zutelarik. Adituok eredu ba-liogarriztat eta etorkizunez beteriko bidetzat jo dute eusko Banku bik, Banco de Bilbao-k eta Banco de Vizcaya-k, Europako herron-kari eusteko, oraintsu hartu duten bidea. Denok dakigunez, honen ondorioz, Banco Bilbao Vizcaya (BBV) sortu zen.

Euskal Herriko banku-esparruan burututako fusio historiko horren zergatiak, zerikusi zuzena du arestian aztertu nahi izan ditudan gertakizunekin. Europako Bankuek oraindik gure Estatu-ko barne-merkatua den horretan sortuko duten konpetentzia edo lehia gogorak, gure Bankuen merkatu-kuota jaistea ekarriko du. Honen adierazpen modura, hona hemen atzerriko bankak,

oraindik mugapen ugari izan arren, urte gutxitan lortu duena: oso urte gutxitan, ia-ia %15a finantz eragiketetan, eta %40a enpresetan. Merkatu-liberalizatuagoan zer gerta litekeen ikusteko, gogora dezagun atzerriko bankak Britania Handiko banku-aktiboen %60a duela, Belgikako %50a eta Holanda, Frantzia edo Alemaniako %20a.

Beste erreferentzia puntu bat ospe handiko kontu-ikuskaritza (auditoria) batek kaleratu berri duen txostena dugu. Bertan, hama sei finantz produkturik eredarrienen prezioak aztertzen dira, Europako arau-mugak hautsi aurretikoak zein ondorengoak. Europako Elkarteko zortzi herrialde aztertu ondoren, esan daiteke gure banka dela finantz zerbitzuen prezioetan beherakadarik handienak jasan ditzakeena: bataz besteko %21a eta agiango %34a, Europako Elkartean %21a izango delarik. Honek gutxikako banku-zerbitzuetan izango du eraginik handiena, berauek, ezbairik gabe, garrantzitsuenak diren ulean.

Egoera hau orekatu eta beroni erantzuna emateko batetik, eta, bestetik, geroz eta azkarrago internazionalizatuz doazen gaur egungo bezeroei zerbitzua bermatzeko, banka unibertsala egitea asmotan duen Bankuak hautabide bakarra du: arlokako eragiketa berrietan, merkatu-eskualde berrietan, eta, batez ere, 1993an zabalduko den Europa berri horretan kuota-mailak igotzea.

Guzti hau lotuz gero, argi dago BBV sortzea dela, beste hautabide batzuren artean, bateginiko bi erakunde hauek, beren iharduera erabat internazionalizatzeko ekinean, behar dituzten dimentsioa eta mardultasun kritikoa egokiro lortzeko estrategiarik proposena, aldi berean, finantz taldearen eraginkortasun handiagoa eta hautaketazko askotarikotasuna ere lortzen delarik.

Euskal Herriko bi banku nagusion arteko bategitea, bazkiderik egokiena hautatzeko aukeran egin da, horrela, hasiera batean behintzat, badirudi, hurrengo egingo diren bategiteekin konparatuz, egoera hobean gaudela. Eta hori egia da, nahiz eta ez diren inoiz ere gutxietsi behar horrelako bategite batek izan litzakeen zailtasun teknikoak. Pentsa dezagun eragiketa hau egitea 6 bilioi t'erdi pezetatako aktibodun banku-taldea sortzea dela, 33.000 langile ingurukoa eta bere jabetzapean ehunen bat inguru elkargo dituen, alegia.

Europar ziurtasun osoz jokatzeko, zehatz-mehatz programatu da bi Bankuon bategitea, programazio hori hertsiki betetzeak era-

kunde integratu bakarra lortzeko bidea ematen digula, zuzendaritza eta kultura bakarreko erakundea hain zuzen. Asmatu den estrategia lau zutabe nagusitan oinarritzen da: prozesuak sortuko dituen sinergia, eskala-ekonomia eta gestio-ekonomia guztiak ustiatzea; arloko aitzindaritza teknologiko eta berritzaileari eustea; negozio arlo berria garatzea; eta azkenik, Banku berriaren internazionalizatzea, Europako merkatuetako lehian, eta epe luzeagora mundu mailakoetan gaitasun osoz parte hartzeko asmoarekin.

4. Ondorioak

Artilulu honi amaiera emateko, bere edukina barik, bere mezua jaso gura nuke hiruzpalau hitzetan. Batere zalantzarik gabe, gaur egun, bizirik dirau gure artean Ortega y Gasset-ek aipaturiko "azpinortasun europarra" delako horrek. "Europarra naiz" lelo hori nortasun-adierazgarri izatera iritsi da. Enpresa batentzat ere "europarra naiz" ideia hori oso helburu ederra da. Eta zenbait kasutan, gailurrean egon nahi dutenentzako ezinbesteko erantzuna ere bai. Hortxe ikusi behar dugu kokatua Banco de Bilbao eta Vizcaya-ren bategitea.

Bada, bai, beste hautabiderik. Erantzunak, ere anitz dira. Edozelan ere, denek ebaluatu beharko dute behar besteko zehaztasunez herronka hau, geroaren oinarri izango dugun egitasmo hau, Europa alegia.

Orain gutxi, politikari europar aipagarri baten idaz-txatal bat irakurri nuen. Hauxe zioen eta egoki esan ere: "Europa deitzen diogun lur-eremu txiki horretan bizi diren 320 milioi gizonezko eta andrazkorentzat, gizaldiz gizaldiko historiak berak eta amankomuna duten kultura itzelak elkartu dituen gizaki hauentzat, ez dago ezinezkorik".

Ene ustetan, ez dut uste eginguratsu dihardutenentzat edota ideiak dituztenentzat ezinezkorik egon daitekeenik. Ez da ezinezkorik Euskal Herriko enpresentzat. Ezta egitasmo mardul, ongi prestatu eta heldurik gauzatzen saia daitezen Bankuentzat ere. Ekin diezaigun guztiok mugarik gabeko Europa egiteari.

P.L.U.

LA NUEVA ESTRUCTURA DEL SISTEMA FINANCIERO: LAS FUSIONES BANCARIAS

NOUVELLE STRUCTURE DU SYSTEME FINANCIER: LES FUSIONS BANCAIRES

La creación de un mercado único en la Europa comunitaria, a partir del 1 de Enero de 1993, y la conclusión en la misma fecha del período transitorio de adaptación que fue negociado por el Estado tras la integración en la Comunidad Económica Europea van a originar un cambio de escenario decisivo que supondrá para la Banca la apertura hacia las grandes corrientes del mundo financiero actual y enfrentarle al reto decisivo de tener que asimilar una competencia mucho más aguda.

Ante la situación, el artículo analiza las cuatro estrategias básicas que, en estos momentos, se están siguiendo en el sistema financiero: construcción inmediata de bancos universales a escala comunitaria; desarrollo de esa vocación europea mediante el logro de una masa crítica que se quiere conseguir rápidamente apoyándose en operaciones de fusión; aumento de la presencia internacional mediante alianzas, "joint ventures" o participaciones cruzadas de capital entre entidades de distintos países; y por último crecimiento y consolidación de la posición en los mercados locales, regionales o estatales, renunciando a la posibilidad de acceder a una presencia internacional importante.

Tras analizar cada una de estas cuatro estrategias, el artículo concluye mostrando su aceptación a la vía de la fusión, pero sólo cuando sea la respuesta necesaria para garantizar la eficacia, la diversificación y la rentabilidad de la entidad de que se trate. Bajo ese prisma, analiza la fusión de los Bancos Bilbao y Vizcaya y las consecuencias que va a tener para los mismos, concluyendo que nada debe ser imposible para las instituciones bancarias que pretendan llevar a término proyectos ambiciosos y meditados para responder así al reto de una Europa sin fronteras.

La création d'un marché unique dans l'Europe communautaire à partir du 1^{er} janvier 1993 et la fin à cette même date de la période transitoire d'adaptation qui a été négociée par l'Etat suite à l'intégration dans la C.E.E. va provoquer un changement décisif qui obligera la Banque à s'ouvrir vers les grands courants du monde financier actuel et la mettra en présence du défi décisif de devoir assimiler une concurrence beaucoup plus forte.

Devant cette situation, l'article analyse les quatre stratégies fondamentales qui, pour l'instant, sont suivies dans le système financier: construction, immédiate de banques universelles à échelle communautaire; développement de cette vocation européenne par le moyen de la réussite d'une masse critique qu'il est nécessaire d'obtenir rapidement en s'appuyant sur des opérations de fusion; augmentation de la présence internationale moyennant des alliances, "joint ventures" ou

participations croisées de capitaux entre des entités de différents pays; et finalement croissance et consolidation de la position dans les marchés locaux régionaux ou d'état en renonçant à la possibilité d'accès à une présence internationale importante.

Suite à l'analyse de chacune de ces quatre stratégies, l'article se termine par l'acceptation de la voie de la fusion à condition seulement qu'elle soit la réponse nécessaire pour en garantir l'efficacité, la diversification et la rentabilité de l'entité en question. Sous ce point de vue, il analyse la fusion des Bancos Bilbao et Vizcaya et les conséquences que celles-ci supporteront en concluant que rien ne doit être impossible pour les institutions bancaires qui prétendent mener à terme des projets ambitieux et réfléchis pour répondre ainsi au défi d'une Europe sans frontière.

Aurrezki-Kutxen Elkarketa

Iñaki Zabala

Sarrera

Banku-bateratzez hitz egitea modan dago. Bihotzeko aldizkarietan orrialdeak betetzeraino bai behintzat. Bilboko Bankuak Banaestoren aurka jaurtitako OPA ez-adiskidearekin, hasi zen bateratzeen lasterketa. Hala ere, beren protagonistetako batzuren gehiegikeriak, prozesu hau itxuragabetzen ari dira eta publiko zabalarentzat, finantz sistemarentzat eta funtsean gizartearentzat izango duen garrantzi izugarria, mozorrotu baino ez dute egiten horrela.

Martxan dauden bateratze-mugimenduak, ez dira ulertu behar afektatutako erakundeen kapritxo edo protagonismo-gogo soil bezala, beren lehia-ingurunean obratzen ari diren aldaketa sakonen aurrean sortutako erreakzio bezala baizik. Azken urte hauetan, finantz sistemak eraldaketa anitz jasan du, eta 1993-1-lean ezarriko den merkatu europar bakarrari begira, berriz, beste aldakuntza batzuk ere ikusten dira. Mehatxuei baldintza hobetan aurre egin eta ingurune berriaren aukerak hobeto ustiatzeko, finantz erakundeak, birkokatzen ari dira eta bateraketak ere, mugimendu horietakoak baino ez dira.

Euskal Aurrezki-Kutzak, beste edozein finantz erakunde bezalaxe, ingurune berri honetan baldintzarik onenetan lehiatzeko aukera emango dien egitura zein datekeen birplanteatzen ari dira. Logikoki, elkartzetxe-mailaren baten hautabidea, bateratzea barne, kontutan hartu beharreko alternatibetako bat da.

Artikulu honetan, bateratzeen gaia kokatu behar deneko ikuspegi kualitatiboa eskaintzen da lehendabizi eta ondoren, gaur Euskal Kutxek dituzten arazoei gainbegirada ematen zaie, azkenik, beraientzako elkartzetxe-formula desberdinen komenigarritasunari edo kaltegarritasunari ekiteko.

Gainean dugun etorkizuna

Duela gutxi arte, finantz negozioa, kreditu- eta gordailu-zerbitzuak prestatzera mugatzen zen. Gaur, negozioaren kontzeptu estrategikoa aldatu egin da eta erakundeak, harik eta ekoitzi-gama erakargarriena eskaintzeko borrokan ari dira, aholkularitza-zerbitzuak barne eskainiz (finantzaletakoak, fiskalak, aseguruak, atzerrikoak, etab.), edo eta kudeaketakoak (altxortegikoak, ondarekoak, etab.), edo eta finantz titulu, bateratze, enpresa-eroste, eta abarretako era guztietako igorpen, jarpen eta kudeaketakoak. Gainera, beren iharduera nagusia finantzaletakoa ez duten enpresak ere, geroz eta gehiago sartu dira finantz zerbitzuen alorrean, horrela, biltegi handien kateek, aseguru-konpainiek, industriako enpresek (beribilenek bereiziki) eta agian baita Estatuak berak ere, lehendik zituzten lehiakideen zerrenda ugalduz.

Zentzu honetan ez da ahaztu behar, jadanik bizi dugun nazioartekotze-prozesu azeleratua, berau ari bait da finantz sistema atzerriarren jokamoldeekiko parekidetza eragiten, orokorki guzreak baino lehiakortasun handiagokoak diren sistemak bestalde.

Finantz ingurunerik iraultzaileenaren aldaketa eta ondoriorik handienak dituen, teknologia berriena da zalantzarik gabe, eta hauek dira ekoizkortasunaren hazkuntza ikusgarriak bideratzen ari direnak, usariozko zerbitzuak prestatzeko modu berriak eskaintzen ari direnak, zerbitzu -gama zabaltzen dutenak, etab., aldi berean, antolakuntz eskema berriak exijituz.

Deskribatzen ari garena bezalako lehiakortasun hazkorreko ingurune batean, kudeaketan eraginkortasuna izatea, funtsezko ba-

lorea da eta horrek berekin dakar kudeaketa eta marketing-eko teknika berri eta sofistakatuen agerpena. Guzti horrek aldi berean, egungo batezbestekoa den baino pertsonal koalifikatuagoa eskura izatea eskatuko du.

Merkatu bakar europarra sortzeko aurrikusitako xedapenen barruan, bermetasun-koefizienteen sendokuntza aurrikusita dago eta horrek, erakundeek beren autofinantzaketa-maila jaso egin beharko dutela esan nahi du.

Aurreko lerroek, jadanik eta benetan gainean dugun etorkizunaren finantz ingurunea ezaugarrituko duten zertzeladetako batzuk marratzen dituzte. Edozein modutan ere, finantz sisteman gertatzen ari diren eraldaketa guztien aipamena eta balorazioa egitea, amaiezina litzateke.

Euskal Kutxen egoera

Euskal Aurrezki-Kutxen egoera, orokorki ona bada ere, horrek ez du esan nahi, deskribatu dugun etorkizuna kezkarik gabe beha dezaketenik.

Funtsean, diferentzia handiak daude beren artean eta ez tamainarengatik bakarrik, erabakiorragoak diren beste kontzeptu batzuren inguruan baizik, hala nola beren errentagarritasun-maila, kaudimena, etab. Zehatz esanda, kutxetako batzuk zailtasunak izan ditzakete beren bermetasun-koefizienteak eta pentsio-fondoak estaltzeko eta beste batzuk berriz lasaitasunez betetzen dituzte.

Zentzu dinamiko batean hitz eginda, errentagarritasun handiko eta hazkortasuneko ekoitzieta merkatu-kuotaren galera antzematen da eta alderantziz, urritzen doazen ekoitzieta hazkuntza somatzen da. Kuota orokorra beraz, gutxituz doa eta egungo beren kuota altuak, mehatxatuta aurkitzen dira.

Azkeneko urteetan lortutako errentagarritasun bikainak, hein on batean bederen kanpoko faktoreei egotzi behar zaizkie, hala nola gordailuen interes-murrizteei eta Burtsan lortutako irabazi ez-ohizkoei. Logikoki, faktore hauek ez daude noski Kutxen kontrolpean eta beste ekitaldi batzutan aurkako norantzean ere joka dezakete.

Ustiapen-gastuak handiak dira orokorki, Banketxe eta Lan-kide Aurrezkiarenekin erkatzen badira, eta erkaketa hori are eta aurkagokoa suertatzen da, baldin eta erakunde europarrekin egiten bada, hau bera berez, elkarte europarreko finantz merkatu bakarrari begira, egundoko herronka delarik.

Kontestu honetan, McKinsey aholkularitzak egindako azterketak, bi kutxa-mota bereizten ditu, bere egoera eta etorkizunari aurre egiteko ahalmenari so eginez. Alde batetik, konpromezuzko egoeradun abiapuntua dutenak daude, gehienaz ere egungo egoera mantentzeko defentsa-jarrera izateko helburua izan dezaketenak daude. Bestaldean, abiapuntuko egoera aldekoa duten Kutxak daude, ekoitzi berrietan beren jarrera hobetzeko asmoa izan dezaketenak, merkatu berriekin, bulego-sarearen hobekuntzarekin, kostu-murrizketarekin, etab. Nolanahi ere, egun berek duten estrategiarekin jarraituz gero, azterketak, merkatu osoko kuotaren neurri bateko galera igartzen du kutxentzat.

Eraginkortasuna erizpidetzat

Zentzu zabalean, finantz sistemaren betekizuna, aurrezki eta inbertsioarekin erlazioa duten gizarteko beharrianak asetzea da, horretarako egokiak diren finantz tresnak eskainiz. Beraz, ondorioz, Euskal Aurrezki-Kutxak elkartzeko prozesuaren komenigarritasuna epaitzeko erizpidea, kutxek epe luzerako ikuspegitik beren eginkizuna hobeto betetzeko elkartze horrek zer ekarpen egin lezakeen jakitea izan behar du. Beste hitzetan esanda, epaitu behar den gaia zera da, gizartearentzat eraginkorragoa izango den finantz sistemarentzat zein egiturak garamazkeen jakitea.

Zentzu honetan, elkartutako egitura batean arriskuak ere badaudela ahaztu gabe eta horiek aurrerago aipatuko dira, ondorengo abantailak atxeki dakizkioke Euskal Aurrezki-Kutxen elkar-ketari:

- a) Eragiketen eraginkortasun handiagoa, hots, eragiketen kostu txikiagoak, horrek dakarren bezeroarentzako kostu gutxiago-ko zerbitzuarekin eta/edo erakundearentzako irabazi handiagoekin. Hori noski, lor daitekeen zalantzagabeko bikoiztasunak kentzetik eratorriko da eta tamaina minimoetatik aurrera bakarrik izan daitezkeen xedeak espezializaziotik, kapital-on-

- dasunen eta pertsonal espezializatuaren erabilpen hobea bezalako faktoreetatik, aktiboaren egitura likido gutxiagoduna izatetik, arriskuen barriaketa handiagotik, marketing-a, publizitatea, etab. bezalako gastu batzuren izaera ez-elastikotik ere.
- b) Eraginkortasun dinamiko handiagoa, berritzeko eta ingurunearen beharrian aldakorrei egokitzeko trebetasun bezala ulertuta. Zentzu honetan, egitura elkartuak, teknologia berrien sarra, nazioartekotzea eta Euskal Herritik kanpora irtetea, kudeaketa- eta marketing-teknika berriak onartzea, pertsonal koalfikatuagoa eskura izatea, etab. erraztu egingo ditu. Faktore guzti hauek, gehitu egiten dituzte erakundeak epe luzera iraun ahal izateko ahalbideak.
 - c) Ekoitzi- eta zerbitzu-gama handiagoa, teknologia berriak, zerbitzu sofistikatu batzutarako pertsonal koalfikatuagoa, etab. eskurago izatearen ondorioz eta hau benetan faktore giltzarria da erakunde batek eskainitako zerbitzua baloratzeko. Zentzu honetan, elkartzeak, banka-zerbitzu batzuk handizka hornitzea eta neurria erabakitzaile den merkatuetan sarbidea izatea ahalbidetuko lituzke.
 - d) Aurrezki-Kutxen azpisistemako egitura-egonkortasun handiagoa, beren arteko kaudimen-defizit, ekoizkortasun, pentsio eta gizarte-egintzetako konpromezuen estalmen, eta abarri buruzko konpentsazjibidez. Guzti horrek, sor litezkeen eta erakunde batzuren biziá arriskutan jar lezaketen halabeharrezkotasun ahaletatik hobeto babestuta egoteko aukera ematen du.
 - e) Inbertsio-tamaina handia eta proiektuaren arriskua elkarrekin joan ohi diren eskala handiko inbertsioetarako baliabideak mugitzeko ahalmen handiagoa.
 - f) Kutxen geografi hazkundearen razionalizazioa, bai Estatuan eta baita atzerrian ere, bulego-sareen bikoizketak ekidinez.

Behar adinako elkarlaguntzarik ez

Elkartze-eredu ahalbide desberdinak daude, eta elkarketa hitza ez da oso zehatza, ulertzeko modu anitz onartzen ditu eta.

Elkartze-modurik arinena, gai puntualetan elkarlaguntzarako akordio soiletara iristea dateke, hala nola, ekoitzi berri baten gara-

pena edo eta erakunde-kanpaina bat. Begibistakoa da noski, irtenbide hauskorra dela hau eta edozein unetan eten daitekeela, elkarlaguntza hori merkatuari dagokion gairen batean bada bereziki. Gainera, irtenbide honek, osotasuneko ikuspegi gabeziaren akatsa du.

Beste elkartze-formula bat, elkarrekin sortutako sozietate espezializatuen bidez arlo batzuk hartzen dituen litzateke, nahiz eta kutxa bakoitzaren aldetiko merkaturatze independentearekin izan. Irtenbide hau ere, eteteko oso erraza da, merkatuan nahitanahiez emango den eguneroko borroka dela bide.

Eta elkarrekin merkaturatzeko akordioetara iritsi arren, Aurrezki-Kutxen Federazioan metatutako esperientziak, Kutxak bere emaitzen kontu propioa salbatu behar duenean akordio horiek errespetatzea zeinen zaila den erakusten du. Oharpen berberak egin daitezke, baldin eta elkartze-soluzioa, usariozkoak diren ekoizpen-bitarteko batzuk elkarrekin jartzera mugatzen bada eta hauen adibiderik garbiena informatika litzateke. Merkaturatze independentea eta emaitzen kontuak berezita mantentzen diren bitartean, soluzioak ez luke inongo bideragarritasun praktikorik izango.

Holding-motako halako bateratze-modu arin batek, zerbitzu zentralen bateratzea eginez eta halaber erabaki estrategikoena, baina izenak, merkatal egiturak eta behar bada baita Kontseilu desberdinak ere nork bere lurraldean ahalmen batzuk dituela, printzipioz behintzat, arrakasta-ahalbide gehiago du.

Azkenik, irtenbiderik bateragarriena, Autonomi Elkarteko sei Kutxak bat bakarrean bateratzea eta biltzea da, bere mugan, aurreko irtenbidearen kidekotasun handia duen soluzioa izan daitekeelarik, baldin eta merkatura gehiago hurbiltzea lortzeko lurraldezuzendaritzak mantentzea aurrizusten bada.

Aurreko formuletak edozein bidera daiteke lurralde bereko Kutxen artean ere, edo eta Udal-Kutxak edo municipalak alde batetik elkartuz, eta probintzialak bestetik. Lehenengo kasuan, hiru Kutxa oso desberdin izatera iritsiko ginatke, baina lurralde bakoitzaren neurrien proportzioa ondo samar gordeko luketenak. Bigarren kasuan oso irtenbide desorekatua lortuko litzateke, ezen "probintzialen" Kutxak, lurralde bakoitzeko kutxarik indartsuenak elkartuko bait lituzke, "udalenak edo municipalak" aldiz ahulenak elkartuko lituzkeelarik, Kutxa bakoitzaren lehiakortasun-indarraren ikuspegitik, abiapuntuko egoera oso ezkorra edo negatiboa sortuz.

Edozein modutan ere, behin-betiko ereduaren hautaketa, Bizkaian bere garaian (eta gainerako Kutxak ezertarako kontutan hartu gabe) onartu zen lurralde bakoitzeko kutxak bateratzeko ereduaren aldeko hautapenak guztiz baldintzatu du.

McKinsey-k proposatutako bateraketa

1988ko udaberrian, Autonomi Elkarteko sei Kutxek, beren elkartzearen komenigarritasunari buruzko azterketa sakona egiteko agindu zioten McKinsey ahokularitzari eta era berean komenigarriena zatekeen bidea proposatzeko eskatu ere. Oso modu laburrean esanda, aholkularitza horrek eskainitako gomendioak, ondorengoak izan ziren:

- a) Lurralde bakoitzeko bi Kutxak bateratu lehenik, horrela, egungo sei Kutxak hirutara murriztuz. Era honetan, ondorengo abantailak lortuko lirateke:
 - Ondorioz sortutako Kutxak, beren hurrenez hurreneko merkatuetan halako jarrera nagusi garbian gelditzea, hurbileneko lehiakideak halako bitik lauerako bulego-kopuruarekin eta %50aren inguruko merkatu-kuotarekin geldituz.
 - Kutxak eraginkorrago bihurtu koste gutxiagoko zerbitzu zentralekin, sare-estalten handiagoarekin eta sistema nahiz teknologia berrien hobekuntza potentzial handiagoarekin.
 - Giza- eta material-baliabideak liberatu, beste xede batzuetan edo eta bezeroaren zerbitzua hobetzeko erabiltzearren.
 - Legezko obligazio-estalmena erraztu (bermetasun-koefizientea, etab.).
- b) Ateratako hiru Kutxen artean kontsorzio bat sortu, bere helburua, eskala-ekonomikoak eta ahalmen-arloak leudekeen atal-atan beraien arteko elkarlana erakundetzea helburu lukeelarik. McKinsey-k kontsorzio honi izendatzen dizkion ezaugarriak, funtsean ondorengoak dira:
 - Bere zuzendaritza, partaide liratekeen Kutxei bakar-bakarrik legokieke.
 - Bere nortasun juridikoa eta egitura independentea edukiko lituzke.

- Erabakiak, Kutxen botuen gehiengoz hartuko lirateke eta onartuko litzateke Kutxa jakin batek kontsorzioaren iharduera jakin batean ez esku hartzea, baina ez hala iharduera independenteki burutzea.
 - Lehendakaritza txandaka ezarriko litzateke.
 - Funtzionamendu-modu autonomoago bateranzko bilakaera ahala onartuko litzateke.
- c) Hiru Kutxetako bakoitzak, lurralde-mugak errespetatu behar-ko litzuzke. Era horretan, Kutxen beren arteko lehia deuseztea lortzen da.

Probintziarteko elkarketaren garrantzia

McKinsey-k proposatutako probintziarteko Kontsorzio-bidearen bidezko elkarketa-moduak, eragozpen larriak ditu. Kontsorzio honen eskemek, gehiegi gogora erazten dute egungo Aurrezki-Kutxen Federazioaren funtzionamendu-eskema eta begibistakoa denez, ez da nahikoa gertatzen lortu nahi diren helburuentzako. Zehazki esanda, proposatutako ereduak behar adina estaliko ez litzuzkeen ondorengo puntuok aipa daitezke:

- a) Eragozpenik handiena, Kutxen aldetik behar-ko liratekeen etengabeko akordioak behar izatetik letorke, horrek Kontsorzioari eraginkortasuna murriztuko liokeelarik, gaur egungo Federazioari gertatzen zaion bezala. Goimailako Zuzendaritzak, erabaki estrategikoak hartzen baino denbora gehiago pasa behar-ko luke diferentziak ebazten.
- b) Bestalde, ereduak ez da egokia Autonomi Elkartetik kanporantz hedatzeko, erbestean Euskal Kutxek hiru sare ezberdin izango bait litzuzkete.
- c) Ereduak halaber ez da egokiena, neurri handiak eskatzen dituzten ihardueretarako, handizkako Banku-zerbitzuentzako adibidez.
- d) Kontsorzioaren politizazio-maila handia izan daiteke, baldin eta hiru Kutxak alderdi desberdinek kontrolatuak gertatuko balira.

- e) Lehendakaritzaren txandakatzeak, jarraipena etengo lioke bere bilakaerari.

Eredu alternatibo eta askoz ere eraginkorragoa, Kontsortzioaren ordez, ondorengo ezaugarriak lituzkeen beste Ente bat sortzetik letorke:

- a) Erabakiak hartzeko bere boterea ahala lukeena, Kutxen eta beren ihardunen estrategien gainera beharbada. Botere edo ahal hau, Kutxek beren aldetik benetako subiranotasuna lagatzetik letorke.
- b) Bere nortasun juridikoa izatea, bere organo errektore, baliabide, aurrekontu eta Lehendakari exekutatzailerik batekin.
- c) Organo errektore horietan, Kutxek beren ordezkartza izango lukete, baina ez pisu berdinekin, baizik eta beren hurrenez hurrenko potentziaren arabera.
- d) Bere eginkizunak, Kutxen iharduerak ordenatzetik hasi eta bere antolakuntz egitura bidez nahiz elkarte filial espezializatu sail baten bidez zerbitzuak prestatzeraino iritsiko litzateke.

Bidea ez da arrisku gabea

Bateratze baten arrakasta ez dago bermatuta. Benetan, ugariak dira porroten adibideak ere. Partikularzki, baztertu ezinezkoak diren pertsonal-bikoizketetatik ondorioztatutako arazoak dira arriskutsuenak. Edozein zerbitzu-enpresatan gertatzen denez, giza gaia funtsezkoa da eta desamotibazio-fenomenoek, aurreratutako erretiroen beldurrek, igoera-itxaropen etenek eta abarrek, arriskutan jar ditzakete bateratzearen lorpen-ahalak.

Barneko nahiz kanpoko komunikazio-eskema egoki bat izatea behintzat, funtsezkoa gertatzen da.

Kutxen arteko lehia-erabakia gutxitzeagatik merkatu osoko kuota-galeraren arriskua ere badago. Halere, Kutxa gipuzkoarrek egindako azterketaren batek adierazten duenez, kopuru hori ez litzateke aipagarria izango.

Eskala-ekonomiak ere ez leudeke bermatuta, are gutxiago antolakuntz egitura egokia lortuko ez balitz.

McKinsey-ren azterketak, bateraketarako funtsezkoak liratekeen bi faktore seinalatzen ditu: Kutxen goimailako zuzendaritzak guztiz komertzituta egotea eta bateraketa-prozesuaren jatortasun bikaina.

Bietako edozeinek huts egiteak, pikutara bota lezake gizarterako eraginkorragoa den euskal finantz sistema lortzeko bide litzatekeen Aurrezki-Kutxen bateraketa.

Euskaratzailea: Andoni Sarrigi

I.Z.

INTEGRACION DE LAS CAJAS DE AHORRO

FUSION DES CAISSES D'EPARGNE

En el presente artículo se hace una reflexión sobre la situación actual de las Cajas de Ahorro Vascas y la conveniencia de una estrategia de integración/fusión como arma para afrontar el futuro.

Como se pone de manifiesto en el artículo, el objetivo a perseguir por las Cajas de Ahorro es la eficiencia a largo plazo, lo que implica, además de funcionar con unos costes operativos menores, una mayor habilidad para innovar y para adaptarse a un entorno cambiante.

Hoy las Cajas se enfrentan a serios retos (pérdida de cuota de mercado global, elevados gastos de explotación, rentabilidades amenazadas, nuevas tecnologías, entorno crecientemente competitivo, etc.).

En este contexto, la integración es una estrategia deseable, puesto que contribuye a afrontar con mayores garantías los retos planteados. De las diferentes fórmulas de integración posibles, la más viable en el País Vasco puede ser la fusión de las dos Cajas de cada territorio, con lo que se contaría con una Caja en cada uno de ellos.

No obstante, la fusión intraprovincial no es suficiente y resulta deseable complementarla con una integración interprovincial de las tres Cajas en un Ente superior, con personalidad y potestades propias sobre las Cajas, que, además de ordenar la actividad de las Cajas, pueda prestar asimismo servicios a las mismas en áreas donde la integración resulte ventajosa.

Dans cet article, on se penche sur la situation actuelle des Caisses d'Epargne Basques et l'opportunité d'une stratégie d'intégration/fusion en tant que moyen face à l'avenir.

Comme l'article le met en relief, l'objectif prévu par les Caisses d'Epargne est l'efficacité à longue échéance, ce qui implique en plus de fonctionner avec des coûts opératifs moindres, une plus grande habilité d'innovation et d'adaptation à un environnement changeant.

Les Caisses d'Epargne aujourd'hui font face à de sérieuses menaces (perte de la quote part du marché global, frais d'exploitation élevés, rentabilités menacées, nouvelles technologies, environnement en compétitivité croissante, etc.).

Dans ce contexte, la fusion est une tactique souhaitable, car elle contribue à affronter avec de plus amples garanties les défis projetés. Parmi les différentes formules de fusion possibles, la plus viable au Pays Basque peut être celle de deux Caisses de chaque territoire, ce qui donnerait lieu à une seule Caisse dans chacun d'eux.

Cependant, la fusion à l'intérieur de la province, n'est pas suffisante et il est souhaitable de la compléter avec une intégration inter provinciale des trois Caisses en un seul Organisme supérieur ayant sa propre personnalité et faculté sur les Caisses qui en plus d'ordonner les activités de celles-ci, puisse leur prêter des services dans les zones où la fusion est la plus avantageuse.

Aseguruak, Pentsio-Planak eta Aurrikuspen Sozialeko Entitateak

Jose R. Urrutia

Aseguruaren alorreko perspektibak

1. Eboluzioa

Aseguruaren munduan eta 70eko hamarkadaren hasieratik, bi aro estrategiko ongi bereiziak garatu dira. 1970etik 1979ra doazen urteak, egonkortasunaren ezaugarria erakusten dute, sektorearen hazkunde moderatu batekin eta konpainien iharduteko era oso ohizko batez, agian herri garatuetan nagusitu zen krisi ekonomikoak eta inflazio altuak sortua, hala nola bai atzerriko taldeetan eta baita estatuko Konpainietan ere zegoen berrikuntza teknologiko eta humano eskasak eragina.

80ko hamarkadak dinamismo interesgarria aurkezten du ordea, herri garatueta errekupeazio ekonomikoak, inflazioaren euspenak eta nazioek EEEan izan duten anexo-prozesuak sortua. Aseguru-konpainiek ekintza berritzaileei heltzen diete beren eskaintza gehitu asmoz eta horrela aseguru-produktuen eta finantz produktuen arteko mugak zedarrigaitzak dira, baita espezialistentzat ere. Epe motzerako termino finkoko aseguru bat eta aurrezki-plan bat epe horrextarako, ia gauza bera bezala jotzen dira. Betidanik fi-

nantzario bezala ulertu izan denari aseguruari baino gehiago lotzen zaizkion Aseguru-produktuak agertu dira (Prima Bakarrak). Eta alderantziz, badira Finantz Erakundeek (Aurrezki-Kutxek eta Bankuek) eskaintzen dituzten produktuak, ohituraz aseguru bezala ulertu izan denaren oso gertu daudenak (Jubilazio-Kontuak, Pentsio Indibidualen Planak, etab.).

Bestalde, talde atzerritarrak hasi dira edo oso interesatuak daude Estatuan sartzen edo/eta beren posizioa marko horretan sendotzen, behar bezala ez zaindu eta ez motibatu ere ez den merkatu potentzial posible bati begira. Defentsako arrapostu gisa Aseguru-Konpainia Estatalen artean kontzentrazioarako joera nagusitu da, bategite eta eskurapenen bidez, edota tekniko eta finantzarioki oso egoera zailean aurkitzen direnen likidazio-prozesu bat.

Aurrezki-Kutxak eta Bankuak, arriskua eta aurrezkoa nahasturik dituzten zerbitzu posibleak eskaintzeko beti prest, aseguruaren ohizko kontzeptuarekin hautsiz, beren bezeroei, ekonomia domestikoei eta enpresa txiki eta ertainei bere beharrianetara egokitu daitezkeen produktuak eskaintzen saiatzen dira, era honetan atentzio eta arreta handiagoa ematea lortzen dutelarik. Horrela uler daiteke azkenaldi honetan Finantz Erakundeen aldetik Bizis-Aseguru eta Pentsioen Konpainia gero eta gehiago sortu izana.

Aseguru-sektorearen garapen-mailak egokia dirudi ekonomia espainiarraren testuinguru orokorrean, baina populazioaren usadio eta ohiturak aldatzen ez diren bitartean hazkundea mugatua izango da. Dena den, esan daiteke aseguratu potentzialaren atentzioan eremu zabala dagoela oraindik jorratzeko.

Horretarako beharrezkoa izango da arreta berezia eskaintzea aseguru-produktuen banaketa-bideei (bizi-aseguruak, kolektiboak edo indibidualak, arrisku industrialak, automobilak, pertsonal orokorrak, etab.), edota eskaria estimatu ahal izateko inizatiba-sail bat martxan jartzea.

2. Nazioarteko egoera: herriz herri

Aseguru-primen kopurua mundu osoan 1984. urtean bilioi-erdi dolarretaraino igo zen, gutxi gorabehera. Area handiei begira, EEBBek eta Kanadak eskaintza horren erdia baino gehiago hartzen dute (%54), ondoren EEEko nazioak %20) eta Japonia (%15) datozelarik.

Aseguru-primen kopurua (1984)

Area	Prima-kopurua*	Banaketa (%)
Ipar Amerika	270.250	54,05
EEE	101.500	20,30
Japonia	73.900	14,78
Europa (EEE salbu)	16.100	3,22
Ozeania	9.500	1,90
Bestelakoak	28.750	5,75
Guztira, Mundu osoan	500.000	100,00

* Milioika USA dolarretan

Biztanleko primen ratioa hartzen bada kontutan, EEBB dira berriro ere aseguruaren ezarpen handieneko herrialdea, 1.071 dolarrekin 1984ean, eta atzetik datoz Suitza (880 \$), Kanada (629 \$) eta Japonia (613 \$). Europako Ekonomi Elkarteko nazioetatik Alemania da lehen postuan dagoena, 531 \$ekin. Bestalde, herririk gehientsuenentzat, aseguru-primak beren BPGaren %5,5 eta %7 bitartekoa suposatzen dute.

3. Espainiako aseguru zuzena

1985eko ekitaldian Espainiako aseguru zuzeneko primen kopurua 530.000 milioi pezetatik gora estimatzen da, aurreko urtearekin %13,9ko gehikuntza batekin. Errekargu gehigarria beste 44.678,2 milioitara iritsi zen, %8,7ko gehikuntza batekin, honek garrantzi erlatiboaren pausoz pausokako beherakada suposatzen duelarik. 1984eko ekitaldian, aseguru zuzeneko primak %18,25eko hazkundea jasan zuten. Bestalde, 1973-1983 denboraldia bitarteko hazkundea urteko %19,7 izatera iritsi zen.

Adarrei begiratu, aseguruaren pisurik nagusia automobilen borondatezko adarrari dagokio, primen %22,76arekin; ondoren datoz bizi-aseguruaren adarra (%13,55) eta osasun-asistentziarena (%11,91). Gehikuntzarik handiena arriskuanitzei (%33 1985ean)

eta bizi-aseguruei (%24,65 azken urtean) dagokie. Beste muturrean nabarmentzekoa da suteen, istripu pertsonalen eta lapurreten adarrek jasan dituzten gehikuntza txikiak.

Aseguru zuzeneko primen banaketa, adarren arabera

Adarra	Banak. % 1985	Gehik. % 1985	Gehik. % 1984
Automobila, borondatezkoa	22,76	14,13	17,30
Bizia	13,55	24,65	22,70
Osasun-asistentzia	11,91	21,52	18,60
Automobila, derrigorrezkoa	8,58	2,52	15,70
Suteak	7,91	8,41	12,60
Istripu pertsonalak	7,52	9,06	11,80
Arriskuanitzak	6,65	32,84	31,00
Garraioak	5,87	-0,63	22,00
Heriotzak	5,16	13,63	16,80
Kreditua eta Kauzioa	2,24	13,82	3,20
Erantzukizun zibila	2,07	16,59	12,90
Lapurreta eta espoliazioa	1,15	5,37	7,10
Bestelako adarrak	4,63		28,90
Guztira	100,00	13,86	18,25

4. Euskal Herriko merkatu aseguratzailea

Aseguruen merkatuak Euskal Herriko Komunitate Autonomoan eta Nafarroan duen bolumena datu ezezaguna da oraindik. Ezagutzen ditugu beren egoitzak eremu honetan dituzten konpainiek jaulkitako primak, 1984ean 29.423 milioitaraino iritsi zirenak. Horietatik 2.659 bizi-aseguruen adarrari dagozkio eta gainerakoak beste adarrei. Hala ere, datu hau ez da baliagarria gertatzen konpainia hauek gure esparru geografikotik at ere iharduten bait dute, eta beren egoitza soziala Euskal Herriko K.A. edo/eta Nafarroatik kanpo eduki arren hemen ari diren beste konpainia asko ere bai bait daude.

Zifrak estimatu ahal izateko saio batean, 1984ean Euskal Herriko Komunitate Autonomoko eta Nafarroako biztanleria kontutan hartuz (2.655.000 biztanle) eta biztanleko aseguru-primen ratioa eta dolarraren kotizazioa urte horretan, 1984erako, guztira primen kopurua 35.000 milioi pezeta inguruan dago.

Aseguruaren sektorea %14 inguru hazi zenez 1985ean gutxi gorabehera, Euskadiraiko estima dezakegun merkatuaren bolumena 40.000 milioi pezetakoa izan daiteke gutxi gorabehera, Estatu mailako 530.000 milioi pezetan aldean %7,55 inguru suposatzen duena hain zuzen.

Espanian 1985ean izandako aseguru-primen adarkako banaketa aplikatuz, ondorengo estimazioa lortuko genuke Euskal Herriko Komunitate Autonomoko eta Nafarroako merkaturako:

Primen estimazioa

<i>Adarra</i>	<i>Banak. % 1985</i>	<i>E.H.K.A. eta Nafarroa</i>
Automobila, borondatezkoa	22,76	9.104
Bizia	13,55	5.420
Osasun-asistentzia	11,91	4.764
Automobila, derrigorrezkoa	8,58	3.432
Suteak	7,91	3.164
Istripu pertsonalak	7,52	3.008
Arriskuanitzak	6,65	2.660
Garraioak	5,87	2.348
Heriotzak	5,16	2.064
Kreditua eta Kauzioa	2,24	896
Erantzukizun zibila	2,07	828
Lapurreta eta espoliozioa	1,15	460
Bestelako adarrak	4,63	1.852
Guztira	100,00	40.000

5. Sektorearen erronka berriak

Asegururako joera, bai Euskadiko geure esparru geografikoan eta baita Estatuan ere, gero eta handiagoa da.

Estaldura-maila ez da nahikoa gertatzen arriskuan eta, bereziki, aurrezkian eta dirudienez, logikoa den bezala, Bizi-Asegurua-ren eboluzioa Estatuko gainerantzekoan izango denaren paraleloa suertatuko da.

Orientazio gisa 10.000 eta 15.000 milioi pezeta bitartean zifratu daitezke urteroko primak Euskal Komunitate Autonomoan 1988rako, Bizi-Aseguruari dagokionez. Prima bakarrik zifra garrantzitsuak ari dira lortzen eta beren etorkizuna legeria fiskalak eskainiko dien arreta-mailaren araberkoa izango da. Bizi-Asegurua, prima bakarrik gabe, hazkundera %30etik %40 bitartekoa izan da azken urteotan, igurikapenak optimistak izanik datozen urteetarako (%40 1989rako).

Erronka berriei aurre egiteko Aseguru-Konpainiek har dezaketenen edozein estrategiaren garapenak antolamendu-egokitzapenen sail bat eskatuko du haiengandik, batez ere giza balia bideei edota beraien arkitekturaren berrikuntzari dagozkienak, sistemak edo teknologia direla.

Bestalde eta gure artean inizatiba edo ekimen pribatuko borondatezko Aurrikuspen Sozialeko Planek lortuko duten garrantzia izango da Konpainia Aseguratzailerak eta Finantz Erakundeek hartu beharreko erabaki berriei zerikusia duten arazoek modu egokian erantzuteko ahalmena emango diena.

Pentsio-Planak eta Borondatezko Aurrikuspen Sozialeko Entitateak

1. Aurrekinak

Euskal Herrirako Autonomi Estatutuak Lege Organiko bezala 3/1979, Abenduaren 18koa, bere I. Tituluan (Euskal Herriko konpetentzietan dagokienez) eta bere 10,23 artikuluan konpetentzia esklusiboa esleitzen dio Euskal Herriko Komunitate Autonomoari Gizarte-Segurantzian integratu gabeko Mutualitateen arazoan.

Konpetentzia eskusibo honek zera esan nahi du, gai honetan egon daitekeen muga bakarra testu konstituzionala dela eta, beraz, Euskal Parlamentuak legistatzeko gaitasuna zuela Euskal Herriko eta bertako pertsonen berezitasun eta idiosinkrasiara ongien moldatuko litzatekeen lege-marko berri eta egokia eraikitzeko, Euskal Administrazioa eta berau ordezkatzeko luketen Erakundeak mutualismoaren mundura hurbiltzeko, alor honek gure hiru Lurralde Historikoetan garapen garrantzitsua eduki bait zuen.

Gai honek Eusko Jaurlaritzarentzat zuen interes eta garrantziaren adibide gisa, esan beharra dago lege 12/1981, Maiatzaren 13koa, egungo gure autonomiaren oinarriko bigarren zutabea den Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen legea publikatu eta bi urte geroago, eta Errege-Dekretu 3228/1982, urriaren 15ekoaren bidez Batzorde Mistoan Gizarte-Segurantzaren integratu gabeko Mutualitateen transferentzia onartu eta urtebetera, gehingoaren eritziz onartu zela Gasteizko Parlamentuan lege 25/1983, urriaren 27koa, Borondatezko Aurrikuspen Sozialeko Entitateei buruzkoa. Lau hilabete beranduago eta otsailaren 20ko Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluren deliberazioaren ondoren, onartu zen dekretu 25/1983koa, Borondatezko Aurrikuspen Sozialeko Entitateen Legearen Erregelamenduari zegokiona, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 64. zk., 1984eko Apirilaren 16koan argitaratua.

Lege 33/1984ekoak, Abuztuaren 2koak, Aseguru Pribatuko Ordenazioari buruzkoak, bere IV. atalburuan, Aurrikuspen Sozialeko Mutualitateen gain legistatzen zuen eta Errege Dekretu 2.615/85ekoak, Abenduaren 4ekoak, Euskal Herrian baino ia bi urte beranduago, Estatu-mailan, Mutualitate, Montepio eta Entitateen funtzionamendua erregulatzen zuten printzipio tekniko berriak ezartzen zituen, Aseguruen Zuzendaritza Orokorren menpean jarritz, Lan-Ministraritzaren menpean egon ordez.

Lege 8/87koa, Pentsio-Planen eta Fondoeren Erregulazioei buruzkoa, eta Dekretu 1.307/1988koa, Irailaren 30ekoa, Arautegiari buruzkoa aprobatzeak zalantzan jar erazten digu Estatuak Entitate hauek garatzeko duen interesa, aurrikuspen sozialeko sistema interesgarri bat osa bait zezaketen, Gizarte-Segurantzak gaur egun jasaten duen eta datozen ekitaldietan ere jasango duen presioa nolabait arinduz.

Oro har Pentsio-Planen eta Fondoeren Erregulazio-Legean dauden artikulatua eta lege hori garatzen duen Arautegia askoz ere gogorragoak eta zehatzagoak dira borondatezko Aurrikuspen So-

zialeko Entitateena baino, eta honek zailtasunak eta arazoak sortezaziko dizkie bai sustatzaileei eta baita partaideei ere, Pentsio-Plan batera bildu eta egokitzeko orduan.

Estatu-mailako legeria berriaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat bere konplexutasuna da (kontratuei eta antolamenduari dago-kienez), kasu askotan konplexutasun hori erabat artifiziosoa izan-rik, Legea jaio deneko baldintzek eragina (sozialak nahiz politiko-ak).

2. Aurrikuspen Sozialeko Entitateen eraketa eta funtzionamendua

Borondatezko Aurrikuspen Sozialeko Entitateak (BASE) borondatezko aurrikuspen sozialeko iharduerak burutzen dituzten erakundeak dira, beren helburu zehatz gisa bazkide edo mutualistak beren gertakizun desberdinetan (jubilazioa, alarguntzea, zurtasuna eta baliaezintasuna) edota beren ondasunak arrisku ustekabeko edo/eta aurrikusgarrietatik babestea izanik.

Ez dute irabazi-asmorik; beren nortasun juridikoa erabatekoa eta independentea da eta ondarea Elkartea edo Erakunde sustatzailearengandik banandua daukate.

Entitate hauen ezarrera-eremu territoriala Euskal Herriko Komunitate Autonomoa da, bertan eduki behar dutelarik beren egoitza soziala.

Asoziazio hauen gestioa berei eta bere bazkideei soilik dagokie, eta berorien erantzukizuna ez da ez Euskal Administrazioa ezta honen funtzionarietara ere heltzen.

Entitateko bazkide izan daitezke interesaturik dauden pertsona fisikoak, beraientzat edota beren kausadunentzat onuraren bat lortzen badute, eta borondatezko baja eman dezakete gertakizuna jazo aurretik, beti ere gutxienez 10 urtez BASEan egon baldin badira eta estatutuetan horrela balego aurrerabakita.

3. Bestelako xehetasunak

Puntu honetara iritsi ondoren, beharrezko deritzot xehetasun batzuk egiteari, Euskal Herriko Borondatezko Aurrikuspen Sozialeko Entitateak erasan ditzaketenenak bait dira.

Aseguru Pribatuko Ordenazio-Legeak (84.8.2.) eta Aurrikuspen Sozialeko Entitate estatalen Erregelamenduak beren artikulatua eranskin bat dakarte, bere kompetentzikoak diren gaitan, Aurrikuspen Sozialari dagozkionak hain zuzen, Administrazio Zentralaren eta Autonomikoaren arteko harremanak era oso garrantzitsu batez ukitzen dituena. Aurrikuspen Sozialeko Entitateen ihardueraren ordenazioko zenbait alderdi Estatuak oinarrizko arau bezala kontsideratzeak aurrez aurre ezarri ditu Administrazio biak.

Onuradunentzat pentsio bakarragatik 5.000.000 pezetako launtza ekonomikoa, eta hileroko 100.000 pezeta errenta aldi baterako edo bizitza osorako bezala ezartzeak muga gisa, aldizka Gobernuak eguneratu ditzakeenak Ekonomi eta Hazienda Ministraritzaren proposamenaz Aurrekontuen Legeetan alde batetik eta Bazkide Babesleen partaidetzak Entitateen Gobernu-Organoeetan bestetik, organo sozialen kontrol eraginkorra suposatuko duen boto-kopurua inola ere lortu ez dezatela galdutuz, desberdintasunak areagotu egin ditu eta harremanak zaildu egoera nahikoa nahasia sorteraziz. Azken gai honetaz oraindik ere epaiaren zain dagoen errekurtsio bat egoteak gertaera bitxi samar bat sortu du errealitatean, eta zera da, Eusko Jaurlaritzak BASEaren baimenarekin eta ondoriozko Erregistroko inskripzioarekin batera doan inprimakian parrafo bat ezarri duela, honela dioena: "Era berean adierazten zaie Entitatearen Gobernu-Organoen osaketa etorkizuneari finkatu eta Komunitate Autonomo honetan aplikatuko den garapeneko arau batek ezarritakoari moldatu beharko zaiola".

Bestalde Eusko Jaurlaritzak 1987ko Irailean Auzitegi Konstituzionalaren aurrean Lege 8/87koaren aurka, alegia Pentsioen Plan eta Fondoaren Erregulazioari buruzko Legearen aurka tartertatutako errekurtsioa, haren artikulatuak Gernikako Estatutuak Euskal Herriko Komunitate Autonomoari Gizarte-Segurantzaren integratu gabeko mutualitateen gainean esleitzen dizkion kompetentziak urratzen dituela kontsideratuz, izaera eskusibo ezartzen den eskubidea hain zuzen, kontutan hartu beharreko beste alderdi bat da.

1988ko Abenduaren 27ko datan, Eusko Jaurlaritzak inkompetentzi errekerimendu bat egitea erabaki zuen Administrazio Zentralaren aurrean, Dekretu 1.307/1988, Irailaren 30ekoari buruz, Pentsioen Plan eta Fondoaren Erregulazioaren gainean. Erabaki honek Auzitegi Konstituzionalaren aurrean errekurtsio bat tarteratu baino lehenagoko aurre-pauso bat suposatzen du.

Konklusioa

Lege 8/87, Pentsioen Plan eta Fondoen Erregulazioari buruzkoa eta Erregelamendu Errege Dekretu 1.307/88, irailaren 30ekoa, aurrekoa garatzen duena, agertu izanak eta Gizarte-Segurantzaren derrigorrezko sistemaren transformazio eta krisi sakonaren zurrumurruek Estatuan eta munduaren gainerantzeko lekuetan (Fuentes Quintana irakasleak El Escorial-en ospatutako Unibertsitate Konplutentsearen ikastaroetan Gizarte-Segurantzaren Institutu Nazionalaren ordainketa-etendura iragartzen zuen 2010 urterako), puri-purian jarri dituzte Aurrikuspen Sozialeko Entitateak eta be-rauek eskain ditzaketan diru-laguntzak.

Behin Foru-Arau Harmonizatzaileak onartu eta hiru Lurralde-etako Buletin Ofizialetan agertu direnean, eta Administrazio Zentralak errekurritu ez dituenean, autonomien esparru legal eta fiskala osatua geratzen da, nahiz eta oraindik zalantzaren bat egon.

Berarekin, enpresek, elkarteek, elkargo profesionalek, finantz erakundeek, pertsona indibidualek, etab.ek badute beste aukera bat Pentsioen Plan eta Fondoenaz gain. Kontutan eduki beharko dituzte hori bai, lurraldeari eta helburuei dagozkien mugak (Foru-Arauen 2. eta 3. artikulua), zorrozki bete beharko dituztenak, kaltetuak izan nahi ez badute.

Euskal Instituzioen hurbiltasun eta interesak batetik eta arategi autonomikoaren malgutasunak bestetik, Kontzertu Ekonomikoaren mugen barnean, euskal administratuaren zerbitzuan jartzen dute borondatezko aurrikuspen sozialeko sistema pribatu bat, Gizarte-Segurantza Publikoak hain murriztuak dituen jubilazioak arindu ditzakeena eta gainera bultzada eta bizitasun-premia hain handian dagoen euskal finantz sistema indarberritzeko balio dezakeena.

Euskaratzailea: Jabier Agirre

J.R.U.E.

Federazioko Aurrezki-Kutzak eta Aseguruaren Esparrua. 1986 Abendua. Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa.

Espanian Aseguru-Konpainiei planteaturiko herronka eta perspektibak. Mc Kinsey Txostena. 1988ko otsaila.

Pentsioen Plan eta Fondoei buruzko ihardunaldien ponentziak. Bilbo. 1988ko Abendua. Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa.

SEGUROS, PLANES DE PENSIONES Y ENTIDADES DE PREVISION SOCIAL**ASSURANCES, REGIMES DE PENSIONS ET CAISSES DE PREVOYANCE SOCIALE**

La aparición de la Ley 8/87 de Regulación de Planes y Fondos de Pensiones y del Reglamento Real Decreto 1307/88 de 30 de setiembre que la desarrolla y los rumores de crisis profunda y transformación del sistema obligatorio de la Seguridad Social en el resto del mundo y en el Estado, el Profesor Fuentes Quintana hablaba recientemente en los cursos de la Universidad Complutense, celebrados en El Escorial, de suspensión de pagos del Instituto Nacional de la Seguridad Social para el 2010, han puesto otra vez de actualidad a las Entidades de Previsión Social, y a las prestaciones que las mismas pueden conceder.

Con las Normas Forales Armonizadoras aprobadas y aparecidas en los Boletines Oficiales de los tres Territorios, y no recurridos por la Administración Central, el marco legal y fiscal autonómico queda completo aunque con alguna incertidumbre.

Con él, las empresas, asociaciones, colegios profesionales, entidades financieras, personas individuales, etc. etc., tienen otra opción frente a la de Planes y Fondos de Pensiones. Habrán de tener en cuenta, eso sí, las limitaciones territoriales y objetivas, (artículo 2 y 3 de las Normas Forales) que tendrán que cumplir a rajatabla, si no quieren verse perjudicadas.

La proximidad e interés de las Instituciones Vascas y la flexibilidad de la normativa autonómica, dentro de los límites del Concierto Económico, ponen al servicio del administrado vasco, un sistema de previsión social voluntaria y privado que puede aliviar las jubilaciones tan recortadas de la Seguridad Social Pública y puede servir además para vigorizar el sistema financiero vasco tan necesitado de empuje y vitalidad.

La publication de la Loi 8/87 de Contrôle des Régimes et Fonds de Pensions et du Règlement Royal du décret 1307/88 du 30 Septembre qui la développe et les rumeurs de crise profonde et de transformation du système obligatoire de la Sécurité Sociale dans le reste du monde ainsi que dans l'Etat, le professeur Fuentes Quintana parlait récemment dans les cours de l'Université "Complutense" tenus à l'Escorial, de la suspension de paiements de l'Institut National de la Sécurité Sociale pour l'année 2010, ont remis à jour les entités de prévoyance sociale et les prestations que celles-ci peuvent offrir.

La cadre légal et fiscal autonome se complète malgré quelques incertitudes avec les "Normas Forales Armonizadas" approuvées et parues dans les Bulletins Officiels des trois Territoires et dont l'Administration Centrale n'a pas fait appel.

Avec celui-ci, les entreprises, associations, corporations professionnelles, entités financières, particuliers, etc., etc., ont une autre option face aux régimes et Fonds de pensions. Il faudra tenir compte certes, des limitations territoriales et objectives (articles 2 et 3 des Normes Forales) qu'ils devront respecter rigoureusement s'ils ne veulent pas se voir lésés.

La proximité et l'intérêt des institutions basques ainsi que la souplesse de réglementation autonome, à l'intérieur des limites des conventions économiques, mettent à disposition de l'administré basque, un système de prévision social volontaire et privé qui peut soulager les retraites si restreintes de la Sécurité Sociale Publique et peut servir en outre à fortifier le système financier basque qui a tant besoin d'énergie et de vitalité.

Bilboko Burtsaren oraina eta geroa

Alfonso Basagoiti Zabala

Nire ustez Bilboko Burtsari buruzko gai hau eremu zabalagoan kokatu behar da, Euskadiko Finantza-Merkatuan hain zuzen, nahiz eta Bilbok —finantzagune denez— eta bere Burtsak izan in-darrik handiena Merkatu horretan.

Hori horrela, hain ezagunak ez diren baina garrantzi handia duten alderdi batzu erabiliko ditut aurrena, gure Elkarteko finantz mundua osotzen bait dute beroriek, eta ekonomiaren garapen hobe-bea lortzeko laguntza bait dira. Alderdi horietan aspalditik dihardu lanean gure Jaurlaritzak:

1. Lehenen, agian gutxien ezagutua den Erakundeari buruz hitz egingo dut, Bankuarteke Kitapiderako Etxeari buruz (“Cámara de Compensación Bancaria”z alegia).

Denok dakigu gutxi gorabehera zer den Kitapiderako Etxea, arlo jakinen batetan diharduen edozein Finantz Erakunderen kargura igorpendutako edo alde jaulkitako edozein motatako agirien truke eta kitapen tokia.

Gaur egun gure Elkartean Bilbo, Donostia eta Gasteizko Etxeak ditugu, bakoitzak bere kabuz diharduela eta euren artean agiriak trukutzen dituztela.

Ahaleginak egiten ari gara banku agiriatarako Kitapiderako Etxe bat bakarra sortzeko Euskadi guztirako, Bilbon, nahiz eta Estatuaren 1987ko Dekretu bat egon, gure ustez gure aginpideak murrizten dituen eta Konstituzio kontraktotzat dugulako aurkako errekurtoa egin erazi diguna.

Banco de España-k Madrilen batu nahi ditu elkartruke hauek denak. Horri begira kontutan izan behar da lehenik eta behin, egiten diren kontabilizazioetako %90 Autonomi Elkarteko bertako diru-etxeek eginak direla eta %10 besterik ez dela gure Elkartetik kanpoko bulegoekin egiten den kitapen kopurua.

Euskadin informatika sistema bakarra jartzea —Bilbon bada horrelako zerbeit—, ekonomi onurarako izango litzateke, edozein gora beheraren irtenbidea ahalbidetuko luke eta gure artean aspaldikoa den erakundeari eutsiko lioke.

Banco de España-k gure asmoak ulertuko eta irtenbidea iritsiko dugulakoan gaude.

2. Bigarren, interesgarria iruditzen zait Eusko Jaurlaritzaren Herri-Zor Jaulkipenez aritzea ("Emisiones de Deuda Pública") izan ere, geure Autonomi Elkarte hau bait da, zorra Finantz Aktibo bidez eta ez bestela, maileguzko eragiketa bitartez, egiten duen bakarra. Horrela eginda kostu hobeak lortu ezezik bertoko Zor-merkatua sortzea du helburu, Bilboko Burtsaren inguruan, Jaurlaritzak duen Kontrakontuko Bazkuneaz.

1988ko amaieran Euskadiko Herri-Zorreko 55.000 milioi pta. baino gehiago zebilen Merkatuan zabalduta eta ekoizpena —Eusko Bonoa—, guztiz finkatuta, balioetsita eta onartuta zegoen, batez ere norbanakoen ekonomietan.

Zorren oraingo hainbateko honek Aldundiek eta beste zenbait Herri-Erakundek jaulkitakoekin batera, bide eman behar liguke Bilboko Burtsaren kontuko oharterazpen-Merkatua antolatzeko. Baina eragozpen txiki bat daukagu eta Banco de Españarekin garbitu nahian gabiltza. Oztopo hori honetan datza, hots, berrerosteko itunaz egindako gure Zorraren lagapenak koefizientea dakarrela eta horrelakorik ez dela gertatzen estatuarenarekin, koefiziente horiek kontuko oharterazpenetarako Egoitzan sartuta egonez gero.

3. Hirugarren, adierazpen labur bat gure kutxen batzea dela eta.

Inorenak diren 1.300.000 milioitako baliabideak dituzten sei Erakunde horiek, gizartearekin halako zerikusia dutenak gainera, Aurrezki Kutxak alegia, gure garapenerako beharrezkoak direla uste izan dugu beti.

Horregatik esan dugu behin eta berriz sendotu egin behar direla eta handitzea oinarritzotzat jotzen dugula. Baina horretan egi-ten ari den aurrerapen eskasa kezkarria da guretzat; are kezka-garriagoa Mc Kinsey txostena irakurri ondoren, gure Kutxetan antz ematen diren ahuleziak agirian jarri ditu eta. Ahulezi horiek beste Erakunde askorenak bezalakoak badira ere, argi dagoela uste dugu datozen urteotan aurrera lasai Finantz Erakunde puntakoena eta sendoenak egingo dutela. Eta gure sei Aurrezki Kutxak horien artean izatea nahi dugu.

Baturik banatuta baino hobeto ibiliko direlakoan gaude eta horretarako irudimenez, eskuzabaltasunez eta kemenez jokatu beharra dago.

4. Euskadiko Elkarrekiko Garantia Elkargoaren alde jarraitzen dugu. Kaudimenari eta bazkide kopuruari dagokienez, arlo horretan ez da horrelako beste Bazkunik. Euskal Autonomi Elkar-teak 1.100 milioi pta. baino gehiago eman dizkio Elkargo horri, zerbitzurik egokienak preziorik onenetan eskaini ahal izan ditzan, batez ere enpresa txikientzako, hauek bait dira finantzei buruzko ezagupen eta negoziatzeko ahalmen-beharrik handiena dutenak.

Orain bertan 1.700 enpresa baino gehiagori eman zaie E.G.E.-ren berme bidez lortutako 11.000 milioi pta.ko mailegua. Mailegu horiek eskuarki bost urte baino epe luzeagokoak dira eta horrela izatea ekonomi eta dirubide segurantza da.

5. Eta azkenik idazlan honen gaia: Bilboko Burtsa.

Gure inguruan eta orain, Bilboko Burtsaren geroko egoera garrantzi osoa lortzen ari da komunikazio bideen artean eta garrantzi horretaz jabetzen ari dira bai hiritarrak, bai Agintariak. Bilbo izan-gu litzateke Euskadiko finantzagune nagusia.

Gaurreguneko egoeran, zenbait arrazoiengatik, eskaintza murrizta da, gero eta murriztagoa gainera eta horregatik gure Erakun-de honek gero eta partaidetza txikiagoa du Estatuko balore-nego-zio osoan.

Hori abiapuntua, laster Balore-Merkatua arautzeko Legea eza-riko da eta horrek Burtsaren negozioaren planteamenduak erabat

aldatuko ditu. Besteak beste, "parquet"ak kendu egingo dira ia erabat, oraingo burtsariak banketxetan sartuko dira, merkatua etengabekoa izango da eta eragiketa guztiak informatika bidezkoak. Planteamendu honek arazo batzu sortuko ditu, baina baita aukera berri ederrak ekarri ere Bilboko Burtsari. Zerbitzuak hobetuko bait ditu eta Estatuko merkatuetara, eta seguru asko estatuartekoetara ere bai geroago, iristeko aukera berdina eskainiko bait du.

Onartutako Legeak, beraz, Espainiako Burtsetako gaur eguneko ereduaren aldaketa handia dakar eta, nahiz eta batetik anglo-sajoniar ereduaren antzekoa izan nahi —profesionalizazio hobegoren eta, itxuraz behintzat, ekintzetarako askatasun handiagoaren bila bait dabil—, bestetik arauak garatzeko aukera zabala uzten du. Aukera horren arabera izango dira, zati handi batean, Merkatu berrien posibilitateak eta iharduera.

Hori horrela, oraindik indartzeko dago gehiegizkoa den araudia, geroko Merkatu horretako alde guztien honakoak zehaztuko dituen: egitura, legezko era, kapital kopurua, jokaera arauak, ikuskaritza, zigorrak etab. Legearen hasieran estutasuna eta koloka badugu, egiten ari den araudiak bide eta posibilitate berriak dakarzikie gurea bezalako Burtsa txikiei.

Arazo honek duen garrantzia kontutan, Euskal Herri-Administrazioak hasieratik arretaz eta kezkaz hartu ditu Lege Aurregiasmoak.

Arretaz, beti izan bait gara Burtsaren ihardueraren aldaketa sakon baten aldekoak. Kezkaz, Bostgarren Burtsaren bitarteko elkarloturak Bilboko Burtsari ekar diezaiokeen ondorengoagatik eta batez ere erakunde horretan edo erakunde horretako burtsariekin diharduten 130 familiei.

Bilboko Burtsak gaur egun Estatuko balore-negozio guztiko %7a du (errenta finkoa barne dela). Hainbateko hori oso txikia da Madril eta Bartzelonako Burtsen aldean eta baita orain urte batzu berak zuenaren aldean ere. Horren arrazoia hau da: Estatu guztietako kapital-buruek dena erdigunera eramateko duten joera, hemengo kasuan Madriler. Erdigune horretan batu dira atzeritarren Banku eta Bazkun asko. Hauek eske-eskaintzaren alde gogor jarri dira, azken urteotan batez ere, eta inguruetako Burtsei zenbait eragiketatarako bidea itxi diete.

Hori dela eta, gure kezkarik handiena ez da izan Burtsaren iraupena bakarrik, baizik eta Merkatua bideratzea, gure parketean ahalik eta eragiketa gehien egin daitezela nahi dugu eta.

Euskal Herrian kokatutako Finantz Erakunde garrantzitsuenei sarritan eskatu zaie Bilboko Burtsan egiteko euren eragiketak eskaintza murrizketa hori apurtzeko. Eskaera horiek izan dute erantzuna eta negoziok hobera jo du.

Halaber, Bilboko Burtsarekin bat, Burtsako bazkune berriak egin daitezzen ahalegindu gara, honelako hauek —gure Elkartean eratuak edo sortuak badira behintzat—, Madrilgo Burtsan bakarrik sar ez daitezten. Baina Legearen indarrean sartzea Autonomi Estatutuan jasotako aginpideen kalterako izanez gain (Konstituzio-aurkakotasun errekurtsua sartzera behartu gaitu), aurrean, geure gustoz zein derrigorturik, dugun errealitate berriari egokitzeko ekintzak antolatzea bultzatzen gaitu nahitaez.

Berriro ere esango dut, Legeak dakarren ekinbide berriak ez liokeela sortu behar, gure ustez, galerarik gure Burtsari; alderantziz, elkarloturaz sortuko den Merkatu bakar horren bitartez Euskadin diharduten burtsari guztien jarreraz baliatzeko aukera eskaintzen duela. Aukera hau garrantzi handikoa da gure Burtsa lehen izan zuen mailan kokatzeko, azken urteetan eskaintzaren eskasiagatik Madrilgo Burtsara bideratua zegoen eta.

Elkarlotura honek bai kantitatez eta bai kalitatez garrantzitsua den baina orain bere ez duen balore-kopurua heltzeko bide izan behar du Bilboko Burtsarentzat. Horrela, gure parketak jasan ohi duen eskaintza-eskasia ezabatu egin behar litzateke eta hala gure herriko diru-ezarketei beste Burtsetatik egiten dieten arreta bera hemendik egiterik izango litzateke.

Horretarako oinarrizkoa da profesionaltasun handiagoa eta dirubide eta aholku zerbitzu gehiago, diru-ezartzaileek —batez ere norbanakoek— Bilbon eskainiko den Balore-Merkatura joateko bidea izan dezaten.

Eskaintza hori orain arte baino seriooki egingo da eta, horrela, Burtsari buruz zabaldua dagoen eritzia —zortea edo loteria dela, alegia— piskanaka galdu. Horretarako laguntza bikaina izango da argibide mugatuaren erabilpenaren kontrola, horren bidez benetako ustearekin eta pertsona guztiek lor dezaketen informazioarekin ados ez dauden salneurrien erabilpena alderatzen dela.

Laburbilduz, gure gaitasuna hobetu egin behar dugula, Madrigo Burtsak egiten eta egingo digun kompetentziari begira ezezik, Estatuarteko Merkatuetako eragiketagileenari begira ere bai. Ez dugu esan nahi Burtsa jakin baten bidez aritu behar denik, baizik eta gure inguruan kokatutako eragiketagileen bidez. Hauek diru-*-ezargileak* geroan Espainiako Merkatuko baloreetara eta baita kanpoko Merkatuetakoetara erakarri behar lituzkete.

Gure Jaurlaritza Burtsa berriarentzako dirulaguntza sorta prestatzen ari da. Laguntza horietako batzu ezagunak dira, hor dugu oraingo etxea erosteko eskaintza, horretarako 1988ko Aurrekontuetako diruak erabiliko direla eta 1989ko beste batzu ere bai.

Badira, bestalde, gure Herrian Finantz Erakunde behar bezain sendoak eta negozio-kopuru handikoak, Burtsa-Bazkune berrian parte hartu behar dutenak, ez soilik laguntza sinbolikoa edo soziala emanaz, baizik eta negozio eta diru-errentabilitate oso batean oinarrituta.

Gainera ez dugu ahaztu behar Burtsa enpresei dirulaguntza emateko dela batez ere eta gure kasuan Euskadiko enpresei bereziki.

Herriogasun eta Dirubideetarako Sailekoen ustez Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak, norbanakakoen eta Erakunde Pribatu-*-tuen* laguntzarekin bat, gure Burtsari jarraipen bidea eman behar dio. Baina ez dugu ahaztu behar Burtsa ez dela gauza abstraktua; merkatu bat izan behar duela atzean, hemen sortutako eta hemen ihardungo duen negozioa zerbitzu-kalitate ona baino hobea lortzea helburu duela. Hortik gainerako guztia eutsi ezinezko ekin-*-asmoa* besterik ez da.

Laburbilduz, eta oraintxe amaituko dut, ez naiz ari itxura huts-*-teko* zerbaitetaz, baizik eta egin daitekeen eta egin behar den zeredozertaz. Gogora dezagun gure arbasoek, duela ia ehun urte Finantzagune hau ezerezetik sortzeko egin zituzten adimen-ahale-*-gin* eta lanak eta behar izan zuten kemena eta beren ekintzarekiko uste ona gureak baino eskasagoak ez zirela izan, askoz ere handia-*-goak* baino. Haiek hasi eta lortutakoa indartzea eta aurrera eramatea da gure beharra.

A.B.Z.

PRESENTE Y FUTURO DE LA BOLSA DE BILBAO**PRESENT ET FUTUR DE LA BOURSE DE BILBAO**

El autor examina de forma previa, los diferentes aspectos que configuran el mundo financiero de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como son:

- 1.- *La Cámara de Compensación Bancaria.*
- 2.- *La política de emisiones de Deuda Pública del Gobierno Vasco.*
- 3.- *Fusiones de las Cajas de Ahorros.*
- 4.- *La S.G.R. de Euskadi.*

Pasa a continuación a examinar el hoy y el mañana de la Bolsa de Bilbao a la luz de la nueva Ley del Mercado de Valores, analizando las sinergias positivas que pueden derivarse de la misma y especialmente de la interconexión informática de todos los Mercados del Estado Español, así como de los efectos de apoyo de las Entidades Financieras ubicadas en el País Vasco.

Las ayudas del Gobierno Vasco deben de impulsar la situación, sin asumir el claro protagonismo y responsabilidad que corresponde a la iniciativa privada.

L'auteur examine au préalable, les différents aspects du monde financier de la Communauté Autonome du Pays Basque, tels que:

- 1.- *La Chambre de Compensation Bancaire.*
- 2.- *La politique d'émission de la Dette Publique du Gouvernement Basque.*
- 3.- *Les fusions des Caisses d'Epargne.*
- 4.- *La S.G.R. d'Euskadi.*

On passe ensuite à l'examen du présent et futur de la Bourse de Bilbao dans le contexte de la nouvelle Loi du Marché des Valeurs, en analysant les synergies positives qui peuvent dériver de celle-ci et spécialement de l'interconnexion informatique de tous les Marchés de l'Etat Espagnol, ainsi que les effets de l'aide des Entités Financières situées au Pays Basque.

L'aide monétaire du Gouvernement Basque doit inciter la situation sans en assumer le clair protagonisme et la responsabilité qui correspond à l'initiative privée.

GAIK

LIBURUAK



Prentsa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren Garaian

Joseba Agirreazkuenaga

Ez dugu oraindik orain ezagutzen zehatz-mehatz euskal prentsari buruzko azterketarik, prentsaren iraganbideaz bereziki, zientziaren abiapuntu sistematikoetan oinarriturik; ez da ez gure asmoa arazoaren gunea arakatzea ez eta ahitzea. Beraz egiteke jarraituko da neurri batetan eta ondoko urteetan seguru asko baten batzuek helduko diotelakoan gaude.

Eibarren aldarrikatu zen Errepublika berriaren garaian eta 1936.eko guda zibilaren inguruan, sortu zen prentsa eta komunikabideen ikerketarako antolatu den ihardunaldi honetan, euskara, komunikazio-bide nagusizat erabili zuen prentsaren azalpen bat eskaini nahi genuke, antolatzaileen ikerketa proiektuari ahalik eta egokien erantzunez¹.

Gure egitekoa esparru bitan finkatuko da: alde batetik ageriaren ingurunea zer nolakoa zen erakusten saiatuko gara, kazeta-enpresa gisa. Bestalde guda garaian euskaraz soil-soilik ate-

ra zen egunkaria eta aldizkariaren kazetaritza moetak eta ikuspegi zein joera ideologikoak aztertuko ditugu.

Euskal prentsaren sorrera iparraldean mamitu zen, duela ehun urte hain zuzen ere²: *Le reveil basque* (1886) eta *Eskualduna* (1887) asterokoak dira lehen kazetarien kabia. *Eskualdunak*, iraupen luze bat izan zuenez, 1887tik 1944arte, aldi batzuetan izenburua aldatu arren, etenik gabeko kazetal tradizio bat sortu zuen. Lapurtar eta baxenafar euskalkien batasuna oinarritu eta finkatu zuen, euskara komunikazio-tresna bihurtu zuelarik. Hala ere, ez da nabarmentzen hizkuntzarekiko kontzientzia politiko berezirik. Azken batez, euskara, hesirik propioena zen, ikuspegi kontserbadoreak eta tradizionalistak zaintzeko, hiriko kutsadura eta eraberritzeari aurre egiteko berezko bitartekoa.

Hegoaldean, berriz, aldi berean, euskarak lurraldez atzerakada nabarmenak jasaten zegoen garaian, (XIX. mendean Nafarroan, baina lehenago XVIII. mendean Araban) Batzar Nagusietan euskararen aldeko berbizkundea sortzear zegoen: Gogotu baino ez, P. Iturriaga, J.I. Iztueta edo J.P. Ullibarriren ahaleginak³. Horrela, euskara, prestijio soziala irabazten hasi zen eta erakunde publikoetan, kezkaren bat bizkortzen. Baina XX. mendeko abertzale-joera berrian, komunikabide tresna edo propaganda bide baino indar gehiago izan zuen ikur edo sinbolo huts bezala, euskararen aldeko joerak erabat politizatuz eta instrumentalizatuz. Eliz erakundeak, aldiz, komunikabide tresna legez gero eta sarriago erabiltzen zuen. Gaur egungo ikerketa-mailaren bidetik abiatuz, esango genuke euskarazko prentsaren lortzea edo urre-aro joria, unean uneko egitura politiko ekonomiko kulturarelen kinka larriaren bariabileak baldintzatzen duela. Bestalde, jendoldeen protagonismoaren mendea dugu eta jendoldeentzako buruturiko zen kazetal diskurtsu berri bat, jendoldeen kulturaren bultzada eta gorakadarekin batera, euskararen berrikuntza etorriko delarik. Honela esandakoaren arabera hiru momentualdi bereiz gentzake:

1. XIX. mende-bukaera: Hego Euskal Herrian etsien politika, ohizko gizatearen gainbehera. Reclus geografo ezagunaren ustez, euskal munduaren amaiera⁴. Baina iraultza industrialaren lehen abiada sendoa. Bizkaiko Ibaizabalen hertzetan, euskarazko prentsa lehendabizikoz: *Ibaizabal*, *Euskaltzale*, *Euskalerrria*, *geroxeagoa*, *Euskal-Esnalea*. Iparraldekoak, goian aipatu ditugu.

2. XX. mendean, Errepublika garaian eta Euskal gobernuaren agintaritzaren garaian, lehenagotik zetozen *Argia* eta *Zeruko Argia*-z gain, *Ekin*, *Euzko*, *Ereintza* eta *Eguna*, eguneroko bakarra gure kondairan barrena. Aipagarriak direlarik, Eliz giroko aldizkariak: *Jesus Biotzaren Deya*, edo Kardaberaz bazkunaren boletina.

3. Azken hamar urteotan ere, euskarazko prentsaren loratzean gaudela esan genezake, euskal egunkaririk lortu ez arren oraindik.

Esan dugun bezala, Eliza eta eliz-gizonak izan badira euskal prentsa goiztiarraren zutabea eta kazetari-idazleen harrobia, hegoaldean, Errepublikaren garaian, hau da askatasun demokrati-koen giroan eta bereziki autonomia indartu zenean, indar aber-tzaleen eraginez batipat, euskara prentsa komunikabide eta administrazio zein politikaren esparruan, berba batetan gizarte zibilean eta politikoan agiri-agirian erabiltzen hasi zen. Euskal egunkariaren proiektuak asmoa hutsetik errealitateranzko jauzia irabazi zuen.

Ondoko orrialdeetan Euskal Gobernuaren garaian, azaldu zi-ren bi agerkiaren azterketa egingo dut: EGUNA egunkaria eta EREINTZA aldizkaria.

1. Egunkariaren sorrerako lehen urratsak: Lizardi

Euskadi egunkariak euskal atala izeneko orri bat argitaratzen zuen euskaraz eta 1929an eztabaida interesgarri baten topaleku egin zen⁵. Zergatik ez euskal egunkari bat?

Lizardi idazle haundiak, Mendi-lauta (Txomin Arruti) eta beste euskaltzale batzuek proiektuaren inguruan zenbait artikulua idatzi zuten. Lizardiren hitz lauuko lan artean euskal egunkaria-ren gaia gunetariko bat dugu. Kalkulu ekonomikoak ere zehatz-mehatz burutu zituen. Baina euskal egunkariaren gaia erdaraz-ko egunkarietara ere hedatu zen. Adibidez *El Sol* Egunkari ospe-tsuak edo Donostiako *La Voz* mesfidantzazko eritziak agertu zituzten. Guztiei erantzunez, Lizardik 1930.eko martxoaren 9. an Zumaiian Euskaltzaleen biltzarrean euskal egunkariaren proiektuaz bere eritzia argi eta garbi azaldu zuen:

"Gure egunkaria kristau garbia katoliko zuzena izango litzake, gaur, ortan ari geranoi dagokigun eta barrenak agintzen digun bezelakoxea. Sanchez Guerra'k esango aal-lukenez gure egunkaria egin nai degu ez iñorena... Katolikotasunaren zuzenbidea eta ortodoxia bat bakarra da ta bakar ori izango litzake gure egunkariaren zuzendari. Baña gure egunkaria —ori ere esan bearra dago— katoliko galtzaduna egingo genduke, ez eleiz orria. Katoliko gañera gure egunkaria euskozale sutsua izango litzake, au da, euskeraren alde ta euskadunen eskubideen alde beti garbi yokatuko lukena, naiz politika-alderdi-gabekoa izan. Ta orain, nik esaten dizuet: iñork lurbira osoan egunkari ori baño ezer zeatzagorik, ezer margodunagorik, ezer "más definido" asmatu aal-ba lezake, yaso beza eskua"⁶.

Testu honek ondo erakusten digu garai hartako euskaltzaleen arteko pentsamolde nagusiaren abiapundu nabarmena. Baina Lizardiren proiektuak ez zuen aurrera egin bere bizitzaren garaian behintzat. Beste poeta bat, Lauaxeta, izango genuen azken bultzada eta indarra emango ziona, abagadune larri-larrian.

2. Egunaren sorrera: Lauaxeta

1936.eko guda biztu zenean, *Euzkadi* egunkariko euskal atalaren zuzendaria Lauaxeta olerkaria eta kazetaria zen⁷. Gero guda-arazoetan erabat murgildurik eta arduraturik ibili zenez gero, ez zuen astirik izan euskarazko kazetaritzan aritzeko baina, A. Zubikarainen ustez, *Eguna* egunkariaren azpiko bultzadan bera zegoen.

1936.eko gabonetan, Abeletzek (Manuel Ziarzolak) Agustin Zubikarairi adierazi zion eguneroko bat euskaraz ateratzeko agindua jaso zuela. Idazle gaztea, Agustin, Bilboko giroan ia ezezaguna genuen, baina ordurako Lauaxeta, A. Zubikarai *Euzkadi* egunkarira ekartzeko ahaleginetan zebilen eta abenduan, *Guda-otsak* saila bere ardurapean zuelarik, *Euzkadi*-n aurkitzen zen lanean.

Egunkari berria sortzeko erabakian, beste unean uneko gertakizun batek ere bere eragina izan zuen: ohizko egunkariak beraien orrialde kopurua murriztu beharrean aurkitu zirela eta *Euzkadi* egunkariak aurrerantzean ez zuen euskal atalik argitaratuko, baina, jakina, ordez bere euskal atala egunkari berri bate-

tan bihurtuko zuen. 1936.eko abenduaren 30.eko *Euzkadi*-n, "Eguneroko barrija" sailean zera idatzi zuten: "Zorijonak euzkeltzale. Urte-barri egunetik euzkel-egunerokua ixango dogu. Bapatian auxe erabakijau artu biarran aurkitu gara. Zergatik? Bai-edo dakixu, egun oretatik aurera izparingijak lau ingozki baño ezingo dabezala argitaldu ta au dala bide gure eguneroko onek atal batzuk gixitu biarko dauz. Euzkel-orri osua beintzat ezin inundik inora argitaldu, euzkeraz lenengo orrialdian edo zerbait idatziko dogun aren. Utsune au betetako alde batian exin dana bestian egiteko, izparringi barrija urtengo da, euzkel eguneroko dotoria ta emetijek, geure etxe onetan urten be". Honela esan dezakegu, *Eguna*, *Euzkadi* egunkariko euskal atalaren luzapena eta osokuntza izan zela. 1937.eko martxoaren 4.ean, *Euzkadi* egunkariak, euskarak prentsan ezagutu duen aurrerapenaren berri ematerakoan, besteak beste Mario de Mendioreguren artikuluan esaten da: "Así aparece «Eguna» magnífica ampliación de la página euzkérica de EUZKADI con seis páginas repletas de artículos rebosantes de sentimiento patriótico⁸⁾".

Egunaren lehen zenbakia 1937.eko urte barriari atera zen: "...ezin dogo siñestu. Euzkeltzale ta euzkeldun gustion ames zoro ta exintzat uste zana, egi ta ixatean biurtuteko agindua artu dogu goxetik gabera... EGUNA gustioi deika, oroen maitasun eskale euzkeldunon kutun ixateko miñez... Euzkerea erabilkatxa dala uste dabenei arpegi emoten dautsoegu eta gure aberkidiei atsegin yakezan izparrak euzkeraz bakarrik argi-argi eta ziatz ziatz emoteko ustietan agertuten gara... eta EGUNA biotz, begi eta gogoe-tan darabilgunok idazle zar aren kanta bero ta gartsuz didar dagi-gun: Euzkera, jalgi adi kanporal Euzkera jalgi adi plazara! Euzkera abil mundu gustira EGUNA'ren egoetan!

Euzkadi'ko zelai loratsutan ludi osuari begira, jel ikurritza oso-oso ta zindo zindo aldeztu ta erakutsiko dogu, ikurritz orren maitasun ontasun eta zuzentasuna bazter gustietan eredu, zabaldu, sendotu ta indartuteko gogo biziz".

Bere propaganda *Eguna* honela azaltzen zen: "Euzkel izparringi Egunerokoa, Euzkeraz idatzija osoro. Edonungo izparrak eta idazlan jakingarriak aurkituko dituzu euzkaldun orrek". Ondarreta izengoitiz izenpetzen zuenak, hara zer idatzi zuen *Euzkadi* egunkarian, 1937.eko urtarrilaren 26.an: "Eguna" en estos momentos va a cumplir con dos grandes misiones: la misión de la euzkerización de nuestro pueblo y la misión de la cristianización del mismo".

Gure ustez *Eguna* ez zen gudariei begira sortu zen egunkari soil bat, gudarien artean indarra kemena eta abar eragiteko tresna. Jakina, horretarako ere bai izan zitekeen erabilia baina guldaldiko egunkari gisa ez zegoen asmatu⁹. Beste helburu batzuek eragin zuten euskal egunkari horren sorrera, hots helburu euskaltzaleak, euskara gizarteko harremanetarako eta komunikabideetarako tresna egokia izan zitekeela ere frogatu nahi zuten, besteak beste. Lehen zenbakitik ideia hau argi eta garbi azaldu zen. Unamunoren heriotzaren berri eman zutenean, euskara kultur eta zibilizazio hizkuntza bezala azaltzen zela azpimarratu zuten egunkari jaio berrian.

3. "Eguna" egunkariaren azterketa

Eguna egunkariaz han-hemenka sarritan azaldu zaizkigu nobalabiteko eritziak, baina, nik dakidanez behintzat, ez dut ezagutzen, argitaraturik, egunkariaren azterketa sakonik, aipamenak baizik, eta ez beti guztiz zuzenak. Guk geuk egingo dugunak honako interesgune hauek izango ditu:

- Egunkariaren enpresa-antolaketa.
- Egitura narratiboa.
- Jendolde garaiko kultur eta komunikabide-itxuran egokituriko agerkaria ote zen, eta, beraz, egunkariaren modernotasunaz zerbait.
- Joera ideologikoa.
- Euskara eta euskal kulturaren ingurua.

3.1. Enpresa-egitura

Eguna Euzkadi egunkariko azpiegituran oinarriturik argitaratu zen. Bilbo zaharreko Correo kalean zuen bere egoitza *Excelsior* kirol egunkariaren tokian, moldiztegia *Euzkadi*-ren "Tipografica General" delakoan zegoela eta bertan euskaldun bakar bat baino ez. Paperaz eta gaineratiko arazoez *Euzkadi* egunkari-koak arduratzen ziren. Beranduago, *La Gaceta del Norte*-n, argitaratu zen, *Lan Deya* egunkariarekin batera.

Bestalde, 1932tik 1934era Bizkaiko jeltzaleen eraginez argitaratu zen *Euzko* euskal astekaria *Eguna*-ren aitzindarizat har genezake, itxuran, ataletan eta sarritan mamian ere, gauza berbera ez izan arren.

Egunkariaren zuzendaria Abeletxe zen, baina azken orduan baino ez omen zen agertzen, beste zeregin batzuetan arduratsua go zegoen eta. Zuzendariordea, Agustin Zubikarai ondarrutarra, 21 urtetakoa; azkenik hiru erredaktore: Eusebio Erkiaga (Lekeitio) Jose Mari Arizmendiarieta (Barinaga) eta Alejandro Mendizabal (Mutriku). Zuzendariordeak *Euzko* Gudarostetik kobratzen zuenaren gain, *Euzkadi* egunkariak 350 pezeta gehiago eransten zion. Beste erredaktoreek *Euzko* Gudarosteko soldata zuten. Eusebio Erkiaga, adibidez, Eskolapioetan zegoen koarteleko komandantea zen eta bere egiteko garrantzitsuena egunkarian lan egitea zen. Azken batez, egunkaria ateratzeko ardura, A. Zubikarai eta E. Erkiagaren eskuetan aurkitzen zen. Hauek ziren herrietatik heltzen ziren kronika eta artikuluen zuzentzailak eta hutsuneak betetzeko ardura zutenak, itzulpenez gehienetan. Goizeko hamarretan hasten ziren ekinean eta goizaldean bukatu.

Zabalkundeaz, ohizko tokietan gutxi saltzen zela esan behar, eta kaleko saltzailerik ez zuela. Gehienak banatu egiten ziren, gudarien artean eta abar. Guztira 10.000 ale argitaratzen zituen, egunkarian 20.000 zirela argitaratu arren. Martxoan, harpidetza kanpainari ekin zion, Euskal irakurleen bazkun bat sortuz. Kanpaina honetan *Euzkadi* egunkariak ere laguntza handia erakutsi zuen.

3.2. Kazetari eta idazleen nortasuna

Eguna-ko erredaktoreen lana batez ere euskaratze lan bat zen edo eta hartzen zituzten berrien moldakuntza. Gazteak ziren, 21-24 urte bitartekoak. A. Zubikarai, Saturraranen ikasketak egin ondoren, hasi zen idazten, herriko kronikalari legez, *Euzkadi* egunkarirako, eta *Euzko* astekarian ere artikulua pare bat idatziak zituen. E. Erkiaga kontadore legez lan egiten zuen eta herriko kronikalariak gain, *Euzkerea* aldizkarian olerki batzuk argitaratuta zituen. J. M. Arizmendiarieta apaizgai zegoen, Kardaberaz bazkunaren partaidea eta A. Mendizabal ere apaizgai ibilia zen. Lau hauek Bizkaia eta Gipuzkoako mugalde-

koak ziren eta beraz nolabaiteko euskararen batasuna pre-miazkotzat jo zuten, sabindarren ikuspegi estua gaindituz. Bestalde, Gobernazioko sailean Euzkadiko Agintaritzaren egunerokoa euskaratzen Gipuzkoako beste idazle talde bat elkartu zen: Txomin Arruti "Mendilauta", J. Intxausti "Uzturre", Andres Arzelus "Luzear" Iñazio Eizmendi "Basarri", Fausto Leunda, Andoni Arozena. Idazle hauek, *Eguna*-n sarritan idatzi zuten. Batzuek beren sail berezia zuten, besteek noizbehinka gogoetazko artikulua edo, T. Arrutiren kasuan, adibidez, nobela bat ere. Barrensorok (Tomas Agirre) ere literatur kutsuko lanak argitaratu zituen, ohizko bertso eta olerkietatik at. Idazle gehienek izenordez sinatzen zituzten lanak, eta zaila egiten zaigu kolaboratzaile guztien nortasuna ezagutzea. A. Zubikaraik, eraskin gisa argitaratzen dugun dokumentuan, baten batzuen nortasuna agertu digu.

Idazle gazteek burutuko zuten egunkaria; kazetari legez espezientzia laburrekoak, gehienbat herriko kronikalari izatetik edo apaiztegitik, kazetari profesionalera eman zuten jauzia.

Lehendabiziko hiru hilebeteetan nabari-nabaria da euskaltzaileen partaidetasun kolektibo bat zegoela egunkariaren alde: Kolaborazio ugari, herriko zein eritzizko kazetari legez. Baina 1937.eko martxoaren 31z geroztik, faxisten azken erasoaren unea hain zuzen ere, *Eguna*-k erredaktoreek buruturiko egunkariaren itxura azaltzen zuten eta batez ere A. Zubikarai eta E. Erkiagaren eraginez, azken honek azaldu digunez, automata bezala ekin eta ekin, itzulpenak egokitu eta abar, beste ezertan pentsatu gabe ari ziren. Kazetari-lanari buruz, hara A. Zubikarairen eritzia: "*Euzkadi* berak emoten euskun teletipuen hartzen zituen gauzak. *Euzkadi*-k ez eban askorik hartzen baina guk bai, labur-labur, laburrean notizi asko, beste periodikuek ez ebenak ekarten guk sartu".

Horrez gainera, Euskal Gobernuak barruko kontseiliarientzako egiten zuten boletina, Leizaolaren bidez lortzen zuten, informazio iturri garrantzitsua zelari. Hutsunerik nabarmenena, A. Zubikaraik berak aitortua, zerau zen: Frontean, gudaldiaren berri emateko kazetaririk ez zutela. Honela gogoetazko kazeta gehiago zen, kronika eta berri hutsezkoa baino.

3.3. Egitura narratiboa

Prenetsaren historiako lehen ihardunaldian duela urte bi, J.M. Treserras, J.L. Gómez Mompert eta E. Marin Ottoren lanak¹⁰ abiapuntu teoriko metodologikotzat harturik, *Eguna* egunkariaren bilakabideari aplikatzen saiatu gara.

Arazo honetan ere, Martxoaren 31 data garrantzitsua dugu, aldaketa nabarmena agertzen delako. Beraz, batez ere lehen hiru hilabeteetako zenbakiak arakatu eta gero zera iruditu zaigu:

– Izenburuak: Hasiera-hasieratik garrantzi handia jokatzeko dute hauek. Lehen orrialdean, mantxetaren azpian molde haunditan albiste nagusiaren laburpena agiri zaigu. Hirugarren eta laugarren orrialde buruan ere izenburu haundiz hasten dira gehienetan. Izenburuak irakurriz gero, egunekoaren nondik norakoa berehala igartzen da. Sail berezietan, kazetari jakin batez sail propioan, izenburua, molde txikiz erabiltzen da. Apiril eta maiatzeko zenbakietan, izenburuaren garrantzia areagotu egin zen. Momentu latzak, eta une horietan propaganda zuzenaren funtzioa gehiago betetzen zuela nabarmenago agiri da. Izenburuak idazteko ardura, Eusebio Erkiagarena zen eta ondo landutako hizkuntza agiri zaigu.

– Albisteraren egitura: Aipatu dugunez, ajentzietako berriak erabiltzen ziren eguneroko berria jasotzerakoan eta ajentzien hizkuntza berbera erabiliko da; hau da berri labur-laburra, zehatza, hizkuntza kasi aseptikoa eta, beraz, gaurkotasunez girotua.

Egunkariak ez du beti itxura berbera erakusten berri eta artikuluen banakuntzan, baina badaude egon gutxigorabehera, sail finko batzuk: Editoriala edo “egunekua”: Ez da egunero idazten. Lehen orrialdean agertzen zen eta sinatu gabe.

Berriak: Euskal Herrikoak eta atzerrikoak. Bi sail hauetan banatzen ziren gehienbat. Espainiako berriak ere ematen dira, batez ere gobernu eta gudaldikoak, baina ez dira agiri hain nabarmen.

“Euzkadi, Errijetako izparrak”: Tokian tokiko kronikalariak herriko berriak bidaltzen zituzten. Guztiz jakingarria dugu orrialde hau, hainbat herritako gorabeherak ezagutzeko.

Guda oñetan: Fronteko berriak agertzen zituen. Azken bi hiletan berririk garrantzitsuenak bihurtu ziren.

Euzko zaingoetan: Guda zela eta herrietan buruturiko lanak; janariaren banakuntza eta abar azaltzen da.

Bilbao'ko izparingiak diñuena: Atal honetan, Bilboko egunkarietan agiri ziren albisterik nabarmenenak laburturik jasotzen zituen. Egunkari guztiak agertzen zaizkigu: *La Gaceta del Norte*, *El Noticiero Bilbaino*, *Euzkadi*, *El Liberal*, *Euzkadi Roja*, *CNT*,

Tierra Vasca, Lan Deya. Atal hau finkoena zen eta amaiera arte irauin zuen etenik gabe. *Eguna*-ren ikuspegi zabalaren islada du gu berau nolabait.

Horrez gainera, bazeuden idazle batzuen sail finkoak, ez zenbaki guztietan baina bai sarritan agiri zirenak:

– *“Jel Azija”*: Mendilainek sinatzen zuen. Berez artikulua ideologiko doktrinario bakarrenetarikoak ziren, eta Kizkitza (Engrazio Aranzadi) hil ondoren gehiago ez zen argitaratu. Beharbada Kizkitzak berak idazten zuen, eta, zalantzarik gabe, kazetaririk zaharrena genuen; ordurarte bere produkzio guztia gaztelaniaz burutu ondoren, damuturik zegoela aitortu zion A. Zubikarairi eta bere azken egunetan euskarazko artikulua idazteari ekin zion.

– *Nere bordatxotik*: Basarrik betetzen zuen. Azken zenbakietan, gogoeta sakoneko artikulua idatzi zituen.

– *Kaleko marmarra*: Uzturreren txokoa zen, eta abagaduneko edo unean uneko arazoak arakutzen zituen.

– *Naskaldija*: Berri laburrak eta handik eta hemendik hartuak.

– *Xelataka*: Berri baten inguruan nolabaiteko solasaldia erakusten zuen.

– *Gure idazleak*: Noizbehinka Euskal idazleen argazkia eta izena azaltzen zen, idazleen munduaren berri eman asmoz. Honenkin batera, kapituluka, literatur lanak, ere argitaratzen ziren.

– *Kirolak*: Hasierako zenbakietan, frontoietako berri erakusten digu, baina sail honek garapen laburra ezagutu zuen.

Albisteen egitura arakatu ondoren, esan dezakegu, jendolde-tako diskurtso periodistikoak erabat nagusiturik zegoela *Eguna*-n, garain garaiko periodismo moetan murgildurik. Beharbada eritzizko kazetaritza gehiago lantzen zuen, albiste zuzeneko baina; dena dela, egunean eguneko albisteen ugaritasuna ere agiri-agiri-koa du.

– *Jeneroak*: Goian aipatu dugun bezala, eritzizko kazetaritza nagusi iruditzen zaigu, informazio soilaren aurrean. Baina honen ez digu adierazi nahi egunkari ideologikoa eta doktrinarioa zenik. Harrigarria bada ere, gutxi dira Euzko Alderdi Jeltzalearen aldeko artikulua, beharbada PNV-k eratu zuen ingurugiro

edo komunitatearen islada berez berezkoa zelako. Albisteak eta gertakizunak gogoeta- gai bihurtzen ziren, baina era berean, sail berezietan berri laburra eta zehatza, ezelango komentarioarik gabe erakusten da. Estilo inperzsonala nabarmenduz doa, era berriko kazetaritzaren berezitasunetariko bat dugularik. Saiakera sakonak ez dira oparoak; idazleei idazlan laburrak eskatzen zitzaizkien. Azkenik, literatur kutsuko lanak ere agiri ziren: olerki mailan eta prosaz. Aipagarriena *Lorettoa* izeneko nobela, T. Arrutik idatzia.

– *Hizkuntza*: Euskara moeta dela eta, hasieran *Euzkerea* aldizkariok, hau da sabindar garbizaleak kritikatu egin zuten, Sabino Aranaren eredu jarraitzen ez zelako. Erredaktoreak Bizkaia-Gipuzkoako mulgaldekoak izanik, batasunaren premia argi ikusi zuten eta ahaleginak egiten saiatu ziren; dena dela, bakoitzak bere erara idatzi zuen, batzuek bizkaieraz eta besteek gipuzkeraz. Bestalde, erabiltzeko era, telegrafikoa, inperzsonala, aseptikoa eta labur laburra zen. Garbizaletasunaren ikutuak badiu, baina eguneroko lehiak beharturik agian, ez da hain estua.

– *Argazkiak*: Orrialde guztietan erabiltzen ziren argazkiak. Horrez gainera larunbatetan, “Argazki Ingostea” hau da argazkien erreportaia argitaratzen zuen. Gaiak, eguneroko bizimodua, paisaiak eta pinturazko laukiak, J. M. Uzelai eta Arrue margolariena, adibidez. Argazkien gaiak begiratzuz gero, pentsa daiteke, eguneroko gudaldiko giroa ahazteko azaltzen zirela, giro baketsu eta gozatsuen islada amestua. Hori gorabehera, erreprodukzioaren kalitatea, nahikoa txarra zen.

– *Marrazkiak*: *Eguna* egunkariaren mantxeta burua Nik sinatzen zuen marrazkiliariarena dugu, hau da Kintana Portugaletekoarena. Bestalde sail bakoitza bere marrazki bereziz ilustraturik agiri zaigu eta kasu batzuetan *Euzko* euskal astekariarenak dira; *kirolak* saila, adibidez, modu berdinez agiri zaigu aldizkarian eta egunkarian edo “Euzkadi. Errijetatiko izparrak”. Beste batzuetan *Gudari* astekarikoak dira, adibidez, “Jel Azija” edo beste marrazki batzuk. *Gudari* 1936.eko azaroaren 4.ean atera zen, eta euskarak orrialde batzuetan espazio erdia hartzen zuen. Azken batean giro berberean hazi eta hezitako argitalpenak ditugu, Euzko Alderdi Jeltzalearen magalpean. Txiki marrazkilari ospearen marrazkiak ere badira, 74. zenbakian, edo Goiko izenpezen zuenarenak ere. Aipatzekoak ditugu Alberto Arruek, VI. Aberri Eguna ospatzeko 74. zenbakian, 1937.eko Epailaren 28.an egin zituen marrazkiak. Lehen orrialdean Bilboko Sabin

etxea erdi-erdian dugula, gizon bi pentsalari legez, bata dotore-dotore jantzia, liburu bat eskutan duela, zerbaiten irakasle, beste, berriz, itxura arruntagoa berorren ikasle gisa; bien buruan ikurrinaren gurutzea. Azken orrialdean berriz, baserri-kutsuko jaialdi baten eszena erakusten du: mutur bakoitzean bertsolariak edo bailira gizon bi, tartean gizon-emakumeak begira; guzti hau natura giroa erakusten duen marrazki bizi-bizian. Egunkari guztiko marrazki ederrenak ditugu agian.

Karikaturak ere erabiltzen dira, faxistenak adibidez, oinetan komentario barregarriak edo ironikoak ziria sartu nahian, gehinetan Abeletzek burutuak, A. Zubikarairen eritzian. Azkenik, aipatu nahi dugu gaurko begietarako behintzat nahikoa gauza bitxia. Karikatura batzuetan, Hitlelerren itxura, edo hegazkinak, adibidez, nazitarren gurutzez marrazturik ateratzen dira, eta egunkarian barrena, artikuluen arteko bereizketa egiteko, gurutze berbera erabiltzen zen. Jeltzaleen artean delako gurutze-ikurra hedatua zegoen, baina urte horietan nazitarren ikurrak, faxismoaren adierazletzat zegoen arren, artean iraun egiten zuen jeltzaleen artean ere.

Laburbilduz eta orohar, egunkariaren modernotasunaren zeinuak, jendoldeen aurreko diskurtsu periodistikoarenak alegiak, nabarmenak ditugu eta berriz ere azpimarratu behar dugu ez dela gerraren produktua edo seme soila, lehen hiruhilabeteetan behintzat. Nahiz eta formalki asistematika bat nabari, badu bere edukia halako barne-logika bat, eta egunkariaren lehen eta hirugarren orrialdeko izenburuek albiste garrantzitsuenen laburpena esaldietan laburbildurik erakusten dute, lehenengoak gehienetan, Euskal Herriko arazoez diharduela, eta hirugarrenak, berriz, nazioartekoak. Azken orrialdean, sistema berberaz, izenburu haundietan Euskal Herriko zein estatu mailako albisteak sarritan agiri dira.

Euskal Herriko arazoak eta nazioartekoak, beraz, bereizketa garbia dute egunkarian. Estatu mailako berriek, aldiz, noizbehinka baino ez dute irabazten izenburu nagusiaren tokia.

Sail berezien banaketari begiratzuz gero konturatzen gara gizarite modernoaren kezketan oinarriturik daudela, gure kasuan eta gerraren eraginak beharturik, kirolak moduko sailak, espazio txikia baino ez du hartzen.

Publizitaterik ia ez da agertzen, eta eskela gutxi. A. Zubikarairen eritzian, "goikoen" aginduz debekaturik. Beharbada,

Euzkadi egunkariko publizitatea ez murriztearren, edo *EGU-NAK*-k bere kabuzko gaitasun finantzierorik lor ez zezan. Hala ere, iragarki txiki batzuk agertu ziren; adibidez: "Mueta gustieta-ko kristalak Gorbea y Cia", 139. zenbakian eta aurreko beste batzuetan. Eskelak ere kasu batzuetan argitaratu ziren.

3.5. Diskurtsu ideologikoaren gunekak

EGUNA izenburuaren azpian JEL azaltzen zen, hau da, "Jaungoikoa eta Lagizarra" ikurraren laburpena. Beraz, jeltxideen esparruan kokatuko da egunkaria, hots, Euzko Alderdi jeltzalearen (PNV) zuzendaritzapean; baina politika jokaera hau gehiago nabarmentzen zen egunkariaren giro ezkutuan, agiri-agiri-koan baino. Kasu batzuetan *Euzkadi* Buru Batzarreko adierazpenak lehen orrialdean agertu ziren, eta "gure Euzko Alderki Jeltzaleaz" mintzaten da baina ez gehiegi.

Diskurtsuaren ardatz nagusiak honela labur genitzake: 1.- Antifaxismoa eta askatasuna, 2.- Euskal abertzaletasunaren alde, 3.- Euskara abertzaletasunaren muina, 4.- Kristautasuna, 5.- Euskal Gobernuaren defentsa, 6.- Baserritarren alde.

Noizbehinka argitaratzen ziren editorialak, eta bertan nabari da gehienbat egunkariaren diskurtsu ideologikoa. Egunkariaren zenbaki bakoitzak, aldiz, lehen eta azken orrialdeko goi zatiko laukian, *Eguna* izenburuaren ondoan, sloganak argitaratzen ziren. Ezbairik gabe, adierazle doktrinarioaren adibide garbienen isla dira. Edukizko artikuluetan berriz, lehen hilabeteko zenbakietatik at, orohar artikuluko doktrinarioak gutxi direla esan genezake. Horrexegatik, lehendabizi, *Eguna*-ren diskurtsu ideologikoaren nabardurak arakatzeko, sloganak sailkatu eta aztertu-ko ditugu.

Slogan bakoitzaren maiztasunari begiratuz gero, zenbaki bakoitzean, lehen eta azken orrialdean, berbera azaltzen zen, beraz birritan, hasieratakoan ezik, gehienetan, lau sei aldiz, bi edo hiru zenbakitan slogan bera argitaratzen zen. Arau hau apurtu egiten da, apiril, maiatz eta ekaineko zenbakietan hau da gudaldiaren unerik gordinenean, faxismoaren joaldiaren azken ahaleginean. 79. zenbakian hasten den slogana 36 laukitan agertzen da; 111. zenbakikoa 42 laukitan; 97. zenbakikoa 24 laukitan, eta 110.eko 12 laukitan. Egoera larriaren aurrean, behin eta berriro

errepikatzen da slogan berbera, gudari eta ez gudariei zuzendurik: Aberria da balore absolutuena eta heriotzaren arriskua ere onartu egin behar da aberria bizturik jarrai dadin. Euzkotar bat nahikoa litzatekela aberria salbatzeko eta beraz gizabanako bakoitzak bere erantzukizun handia du zeregin kolektiboaren baitan. Azken batez, aberriaren etorkizuna eta euskal zibilizazioa antolatzeko eta ulertzeko era bat, gudan garbitzen eta erabakitzen zegoela adierazi nahi da slogan hauen bidez; azken kemena eta adorea erantsi nahian gudariei deika ari zen egunkaria. Slogan agonikoak direla ezin ukatu, eta ondoko urteetan ikuspegi agonikoak abertzaletasunarekin bat eta batera iraungo du.

Gainerako sloganek honako gaiak adierazten zituzten:

1. Euskararen aldeko ahalegina, abertzaleen zeregin nagusia "Zure aberri elia maite ezpa dozu, zeure aberria bez, eztozu maite". Sei zenbakitan argitaratu zen.

2. Abertzaletasunaren aldekoek, Sabino Aranaren esaldiak berrargitaratuz, sendiberatasuna ikutu gura zuten, baina askatasun-zentzua erantsiz, faxismoak proposatzen zuenaren aurrean.

3. Arazo soziala eta zuzentasuna.

4. Gudako giroa; arerioen aurka zur.

5. Historiazko oroitzapenak.

6. Deiak eta iragarkiak: Elizkizunak edo beste ospakizunak.

7. Hasierako zenbakietan argazkien bidez, zerbait berria erakutsi.

1. Antifaxismoa, askatasuna eta berriaren defentsa kristautasun katolikoaren ikuspegitik

Hona hemen *EGUNA* egunkariaren gune ideologiko nabarmena, orain arte ikusi ditugun sloganetan eta edukizko artikuluetan azalduko dena. Ia inoiz ez zen polemika eta eztabaidetan sartu beste egunkariekin. Bilbon argitaratzen ziren egunkarien laburpena, aldiz, egunero argitaratzen zuen. Baina iparraldean argitaratzen zen *Eskualduna* kazetaren aurka bai izango ditu pare bat artikulua. Jakina, gudaren beste ikuspegi erabat diferentea erakusten zuen eta interesgarria deritzagu, bi euskal kazeta hauen arteko eztabaida, euskaldunen arteko hesiaren erakusle baita.

EGUNA-rentzat 1939.eko guda faxismoaren aurka eta askatasunaren alde da, aberriaren aldeko borroka bat ere bihurtzen dela. Ez du adierazten, berez, fronte popularreko alderdi ezker-tiarrekin uztarturik daudenik Euskal Gobernuan edo borrokan, erabat loturik ez egon arren; sarritan goraiatu ziren Errepublikaren garaipenak Espainiako fronteetan. Egoera honek kontraerasanak ez ditu ukatzen, badaki, jakin, katolikoak bi alderditan aurkitzen direla baina aberri arazo batek banaturik eta bereizirik. VI. Aberri Egunaren 1937.eko Epailaren 28.an "Aleluia" izeneko gogoeta artikuluan Leoburu'tar Bikendik hau idazten zuen: "*Kezkatia naiz berez eta «Alleluia» itz goxoari ezin diot Maitasun goxo ulertu. «Aintza Españari», «Aintza Francori», esan nai ote duen, «Euzko Kristau zintzoei gorroto» esan nai ote duen kezkan jarrita naukazute*".

Beste euskal kazetak, Baionako astekari *Eskualduna*-k alegia, bestelako ikuspegia eskaintzen digu. Ybarnegaray diputatua zen aitzindari ideologikoa, Xalbat Arotzarena apaiza, 1937.eko martxoaren 24etik kudeatzaile berria eta idazlea. (10) *Auzo-erresumetan* izeneko sailean, bigarren orrialdean gerrako berriak ematen zituen, Mola eta frankisten ikuspegitik erabat. 1937.eko errearoaren (ekainaren) 11.eko zenbakian, "*gogotik gure egiten ditugu Ybarnegaray-en eranak(sic)*" adierazten zuen S.A.k sinatzen zuenak, zuzendariak agian. Ybarnegaray-*ren* diskurtsu bat laburtzen du eta ederki laburtu ere beraien jokabidea:

"Mendiz-haindian, lau eskualdeetako eskualdunak dira, bat-bertzeen kontra altchatuak...zazpiak bat da gure banderetan ezarria; eta hitz horiek dauzkagu argi edo manu. Bainan gaude erakasten deraukuten batasuna, arraphiztuko othe den behinere".

Euskaldunen arteko guda zibila dela argi eta garbi bereiztu eta azpimarratzen du. *Eguna*-n, berriz, arerioa atzerritarra da, mairua, alemana, italianoa eta hauekin batera faxistak, baina ia ez da aipatzen faxisteen artean euskaldunak ere burrukatzen ari direnik. Ybarnegaray-k honela jarraitzen zuen: "*Lau probintzia baitu Eskual-herriak: Nafarra, Alaba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Nafarra, oso-oso, altchatu da komunisten kontra; beste hiru eskualdeak, heiek ere, jarri dira Mola jeneralaren alde: harekin dira, Gipuzkoarretan, hiru-laurdenak eta Bizkaiatarren erdiak*".

Euskal Gobernuaz aztergai du, *Eskualduna* kazetak sortu zeneko berririk eman ez arren: "*Eskualduna da Aguirre, katoliko suhar eta zintzoa da; eta gizon horrek lituzke nahi Frantziako*

Eskualdunak ekharri beren gain jarterat. Herri handi bat, berari bitiztea aski nekhe zaio egungo egunean; eta bortz ehun mila arima ere ez luzkeen herri tipi bat, nahi laukukete Frantziaren eta Espainiaren artean landatu! Bainan nola bizi laiteke? Zein buru-buztanik gabeko ametsa?... Asmu horiek erhotzen dituzte gizonak”.

Komunistak dira arerio nagusienak; baina, agiri denez, aber-tzale euskaldunak ere.

Esan dugun bezala, *Eguna*-n bi artikulu agertu ziren *Eskualduna*-ren jokabidea salatuz, bigarreanean zuzenki, Ibarnegai-ren marrazki bat, lehen orrialdean “*Sasi euzkotarra*” izenburupean; ondoan De Valera Irlandako lehendakariaren marrazkia “*Abertzale eredua*”, biak kontrajarriz. Honela salatzen zuen Egunak:

“Euzkera parra parra ta eztiatsua erabiltzen daki: Erabiliko ezpaleu obe, aberriaren izkuntza zoragarri au azkatasunaren kaltez itz eta lan egiteko dau-ta. Aberria estu eta katez beterik ikustean atsegin dau... Gudea asi zanetik kalterik egin dausku, paxista amorratu lez jokatuaz. Or dabil “Eskualduna” bere asterokoa su ta gar gure aurka euzkeldun fededunen artean gorrotoa eta ikusi ezina sortzen”.

Euskal hizkuntza, baten batzuen ondarea balitz bezala agiri zaigu honetan. Dena dela, ikuspegi kontrajarriak begibistakoak ditugu:

Katolikotasun-ortodoxia bakarrean finkatzen ziren euskaldunak, eta euskal zibilizazioaren oinarria kristautasunean zetzala defenditzen zutenak, bidegurutzean aurkitu ziren; batzuek, industrializatu gabeko herrialdeak alegia, ohizko integrismo tradizionaletik abiatuz ikuspegi totalitario eksklusiboan agian; faxismoaren proposamenak zuzen-zuzenak ikusiko dituzte. Aitzitik, oinarri berdintsuetatik abiatu arren, industrigintzak eragindako hiritar bizimoduak eta gizarte antolakizun berriak eta pluralak beharbada, abertzale alderdiko buruzagien bilakaera ideologikoak ere ezbairik gabeko garrantzia izanik, euskal abertzaletasuna aukera demokratikoaren bidean ezarriko zen, zalantzak izan arren. Bi kazeta hauek, euskaldunen kinka larriaren erakusle ditugu, Europako herrialdetan ere sortu zen kinka berberaren islada alegia.

2. Euskal abertzaletasuna

Eguna-ren abertzaletasuna jelkidea izango da, Euzko Alderdi Jeltzalearen joerakoa. Hala ere, ez dira ugariak egunkarian argitaratu ziren artikuluko doktrinarioak. Lehendabiziko hilean "Jel Azija" izeneko sail bat argitaratu zen, Mendigainek sinatua, E. Aranzadi "Kizkitza"ren beste izenorde bat agian. Baina Otsailean, PNVren ideologo hau hil zenean, sail hori, *Gudari* aldizkarian ere azaltzen zena, desagertu egin zen. Abertzaletasun-mota honek bere helburu nagusia, euskal izatearen defentsan jartzen du, euskal izate hori modu berezian ulertuz, kristautasun katoliko erromatarraren ortodoxiarenean. 1937.ko urtarrilaren 24.ean lehen orrialdean azaltzen zen: "*Gure Euzko alderdijak atiak zabaltzen, deusez barriz bazkidegu gura dabenai*", ondoren gogoratuz, "*ointxe da orduba batu gatezan danok euzko ikurrin zoragarrijaren babesbian geure asaba-zarren otura ta ekandun gustijak bezpiztu daiguzan*". Agiri denez, garai batekoa berpiztea eta indarrean jartzea da abertzaletasunaren helburu nagusia, iragana beti oraina baino hobea zelakoaren uste finkoa azpimarratuz; jakina, iraganaren ikuspegi berezia.

3. Baserritarren alde

Gizarte-azuziaz, Mendilautak (Txomin Arruti) zenbait artikuluko idatzi zituen, baina egunkariaren kezka nagusia baserritarren gan kokatu zen. Baserritarren arazoa behin eta berriro aztertu zen, eta badirudi baserritarrei begira idazten zela egunkaria bera. 33. zenbakiko lehen orrialdean izenburu nagusiz "*gure baserritarren alde*" hasten zen. Editorial gisakoak honela bukatzen zuen jarduna: *EGUNA'k beintzat, ez dauz aztuko ta pozik agurtzen dauz*. Erredaktoreen artean, baserri kutsukoa J. M. Arizmendi-rieta zen; baina besteak arrantzale girokoak genituen. Arrantzaleei buruz ez dugu, artikulurik aurkitu, arrantzale baten argazkia baizik.

Bestalde, hiriko langileak aipatu ere ez dira egiten. Egia esan bazuten beste egunkaria, *Euzko Langille* eta gero *Lan Deya*, eta, beharbada horregatik, ia ez dira kontutan hartzen, azken batean talde edo giro politiko berebetean burutuak bait ziren. Honela, bada, konturatu gabe, ezkutuko diskurtsuaren adierazle gisa, abertzaletasun euskalduna, baserritarrekin lotzen zen, eta beraz zera galde liteke: ez ote zen *Egunaren* kezka-esparrua baserritarren gizarte eta euskaltzale sutsuena soil soilik, hauetariko ba-

tzuek hiritar bizimoduan egon arren. Garai hartako kultura aberzalearen zeinua dugu baserritartze-kutsua. Dena dela, Bilboko beste egunkarien berri emateak, beste ikusmira bat ere erakusten zuen edo behintzat aukera hori zabaltzen saiatzen zen; Euzko Alderdi Jeltzalearen propaganda diseinuan beharbada, *Eguna* agerkariaren destinoa goian aipaturikoa izan.

Agerpen antikapitalistak ere azaltzen hasten dira, kapitalismoaren bide okerrak salatuz, 113. zenbakian eta 115.ean "Euzkel erriaren jokabidea" zein behar duen izan asmatzen saiatzen da.

4. Euskal Gobernuaren defentsa

Euskal gobernuaren aginduak eta diskurtsuak egunkarian agerpen zehatza dute, beharbada nabarmenagoa, ospakizunetan eta gudaldiaren kinka larrietan. Dena dela, behin baino ez zen azaldu Agirre lehendakariaren argazkia, eta beste behin Leizaola eta Monzonena. Kritika bat ere aurkitzen da. Euzkadiko Jaurlaritzak txanpon berriak erdaraz huts-hutsean atera zituen eta 1937.eko otsailaren 18an EGUNAK adierazten zuen "euzko irudiz eta euzkeraz eginak izan balira" gurago izango zituztela.

3.6. Euskara eta euskal kulturaren abiadaz

Euskararen eguneroko erabilpenak, halabeharrez ekarri zuen sabindarren molde estuei gaina hartzea. Horregatik, A. Zubikarai-k dioskunez, egon ziren bai zirikada batzuk. Baina azkenean bakoitzak bere erara idazten zuen. Dena dela, batasun bideak leuntzen saiatu ziren. Baina erredaktoreen euskara, bizkaierazkoa izango den bitartean, Gobernazio sailekoena gipuzkerazkoa izan zen. Orohar, egunkarian, bizkaiera nagusi da, kazetaritza arruntaren egitekoan, eta kazetal hizkuntza berri bat sortzen ari zela esan genezake. Esaldi laburra, zehatza, ajentzietako hizkera berezia euskarara itzulia; jakin dakigunez, ajentzietatik eta atzeritar egunkarietatik itzultzen zen zuzen-zuzenean eta egiteko honek euskararen ere bere eragina sortu zuen.

Literaturak egunkarian bere txokoa zuen. Olerkiak eta bertsoak sarritan argitaratzen ziren, baina baita ipuinak eta nobela laburrak ere, atalka. Aipatzekoak Barrensorok idatzitakoak edo Mendilautaren *Lorettoa* izenekoa. Kultur arlo honek bere es-

parrua zuen, ete lehen zenbakitik, *Gure idazliak* sailak idazle bakoitzaren promozioa egiten zuen, argazki eta guztiz.

Azkenik, egunkariak berak "*Euzkeldun irakurle batza*" erakunde sortu eta indartu zuen, *Euzkadi* egunkariaren laguntzaz, harpideak lortzeko eta irakurleria emendatzeko.

Laburbilduz, *Eguna* egunkariak, ohizko egunkariaren ildotik, euskal egunkaria izateko bokazioa azaldu zuen; projektua 1929.an izan zen eztabaidatua, eta EAJren *Euzko* euskal astekaria eta *Euzkadi* egunkariko euskal atala izan zituen aurreko zuzenak. Lehen hiruhilabeteetan, jendoldeei begira egindako diskurtso periodistikoa nagusi; gudaldiaren baldintzak eta propaganda soilaren maila gainditzeko ahaleginak, nabariak dira. Azkenaldian, bai, esan genezake gudariei eta gudaldirako propaganda tresna bihurtu zela, halaberharrez. Bertan kazetaritza berrirako euskararen prestakuntza nabarmena da eta harrigarria iruditzen zaiguna zera da: Hain egoera larrian, 1937.an, euskal egunkaria burutzeko eta egunero ateratzeko gai izan ondoren, azken hamar urteotan bitartekoak errazagoak eta oparagoak izanik, oraingo euskaldunok kaskarragoak izango ote garen?

4. Ereintza. Euzkadi'ko nekazaritza zaingoan entzukia

Ereintza aldizkaria nekazaritza zaingoak atera zuen agerkari ofiziala dugu. Nekazaritza zaingoko burua Gonzal Nardiz zen, ANV-EAE.ko kidea, Telesforo Uribe-Etxebarria idazkari nagusia, Koldobika Eleizalde zuzendaria, J. Basterretxea arazo burokratikoaren zuzendaria, guztira funtzionariak hirurogei ziren. Euskarazko argitalpenen arduraduna, beraz, *Ereintza*-ren zuzendaria Bernabe Orbegozo. Kazetari oparoa berau ANV-EAE aldizkarietan, eta nobelagilea ere bai, behin Donostian gaztelaniazko nobela laburren sariketan irabazlea. *Ereintza*-n honako hauek idatzi zuten: Ixaka, Basterretxea C., Bitxor, Angel buru, Karrandi J., Alkorta M., Muñagorri K., Murua Gabin, "Zigertatxu", K. Eleizalde, T. Uribe-etxebarria.

Nekazaritza sailaren politika eta ekintzabidearen zabalkunderako laborarien laguntzarako eta zerbitzurako asmatu zen aldizkaria. Horregatik, aldizkariaren mami edo edukian murgil-

du aurretik, ikus dezagun lehenik, zein izan zen nekazaritza sailaren ekintzabidea. Bi ziren helbururik edo jokabiderik nabarmentenak:

1.- Laborantza eta abelazkuntzaren bultzadarako oinarrizko azpiegituraren garapena eta proposamen berriak.

2.- Laborarien lur-jabetzarekiko egoera aldatzea.

Lehendabiziko atalaren baitan, tabakoa (20.000 kilo tabako bildu zen Euzkadiko Jaurlaritzako lurraldean), patata eta beste produktu batzuen hazkuntzarako neurriak proposatu ziren, haziez eta ongarriez edo inguruko lur agortuez erabakiak hartu ziren. Honekin batera abelazkuntzaren garapen eta zaintzeaz gain, ehizaren debekua eta zuhaitzen birlandaketaren premia azaldu eta onartu zuten.

Bigarren atalari dagokionez, lur-jabetzaren aldaketa burutu nahi zuten, baina hain arazo larria bezain premiatsua, aurreproiektua buruturik egon arren, ezinezkoa bihurtu zen antolatzeara eta gobernu-mailan, adostasunez, erabakirik hartzea.

Aipaturiko arazook, *Ereintza* aldizkariako gaiak beteko dituzte. Iragarkiak ere onartzen zituen, euskaraz nahiz erdaraz.

4.1. Aldizkariaren itxura

Izenburuaren mantxetari begiratuz gero honako hau adierazten zaigu: Izenburua, Jaurlaritzaren armarrria, Itsasaldeko Euskal Herri hezean eraikitako basetxearen marrazkia eta gizonezko gazte baten burua. Mikel delako batek sinatzen du. Martínez Ortiz marrazkilariak, *Euzkerea* aldizkariaren bigarren aldirako, 1934.ean egin zuen marrazkiarekin antz handia du.

Beraz, baserri-laborantza dugu Euzkadiko nekazarien adibiderik garbiena; ildo honetan, jakina, mediterranean kutsuko laborantzarik ez da aipatuko, ezta gogoratu ere.

Aldizkarian agertzen zaizkigun argazkiak, honako gai hauen erakusle dira: Idi-demak; behi bi laborarien paisaian Lekeitiotik Mendexa bidean; artaldea; laiaketan, ohizko baserriko sukaldea, amona goruetan, eta gizona, *Ereintza* irakurtzen; artoa labean sartzen. Marrazkiez ere beste horrebeste erakusten dutela esan genezake. Hau da, Bizkai-Gipuzkoetako laborantza-moeta

egongo da Nekazaritza zaingoko asmoetan giharturik. Ulegarria dugu neurri batetan, Jaurlearitzaren lurraldea Bizkaira mugaturik zegoelako.

Aldizkariaren barruko espazioaren banaketari buruz, ageraldi edo editorial antzerako zerbait dago, Nekazaritza saileko aginduen argitalpena eta ondoren moeta guztietako artikulua, saileko funtzionarioek idatzita gehienbat.

Iragarkiak azaltzen zaizkigu eta kasu batzuetan gaztelaniaz argitaratzen dira.

4.2. Euskararen arazoa

Gipuzkera erabili zuen, Bernabe Orbegozoren jaioterrikoa alegia. Hau dela eta lehenengo zenbakiak Ibon delako baten kritika jaso zuen (Uribitarte tar Ibon zen Imanol Enbeitaren izenordea, garbizalea eta sabindar porrokatua) Bizkaian ulergaitza zelako. Eztabaida honek badu eduki eta ikutu ideologikoa ere, jeltzaleentzat bizkaiera jatorragoa zen, Arana Goiri maisuak horixe erabili zuelako. B. Orbegozok, berriz, euskara batuaren premia argi eta garbi adierazi zuen: ...*“baño ez litzake txarra alde-gun guztia euskera batutzea egitea. Eta ortarako artu leike euskera geiena itzegiten dana eta garbiena baita errexena ere, Gipuzkoa'ko goierrikoa dala. Eta izkuntza orren ondoren sartu leizke eskubi-eskerretik itz egokienak eta onela egin benetako izkuntza laterritarra, Euskadi guztirako”* (2 zenbakian).

Hara, bada, eredu bat ere proposatu zuen, Goierriko euskara, R. M. Azkueren gipuzkera osotutik hurbil agian. Egoera politiko berriak hizkuntza laterritarra, Euskadi guztirako eskatzen zuen.

Baina horren ondoan, aldizkariak beste arazo bat ere bazuen, beharbada larriena: nekazal arazo profesionali buruz euskaraz idazteko, idazlerik ez. Hara B. Orbegozoren hitzak: *“Lenengo zenbakian bi lankide euskaldunak izan ditut bakarrik eta berak bialdu bezela agertu dira bere iazkiak aldizkingi artan. Beste danak erderaz idatzi dute eta neonek euskeratu ditut, nik dakitan bezela”*. Beraz aldizkari gehiena erdaraz idatzia zegoen, 6 artikululu hain zuzen ere eta euskarara itzulia. B. Orbegozok esaten du ez dela, ez, *“euskal idazle arrigarria”*, ikasteko aurkerarik ezagutu ez duelako. Baina, hala ere, euskara, lanbide-arazoetarako,

komunikabide bihurtu nahi zuen; ahalegin ikusgarria bezain txalogarri agian. Azkenik, aipatu, Euskadi hitza, *s* eta *z* hizkiz idatzita azaltzen zen. Kritiken aurrean, Orbegozok: "*Berdin da nerretzat Euskadi edo Euzkadi esatea danok berdin idatzi ezkerok. Aranatar Sabineke z izkiakin idatzi bazuan, txapela kendu zagun*". Doktrina ofizialari amor emateko prest azaltzen zen.

Zornotzako Jaungoiko-zaleren irakorlan ateratzen zen eta zabalkundea, dirudienez, doan egiten zuten.

4.3. Edukina

Aldizkariak, laborantzazko arazoak, profesionalki azaldu eta sakondu nahi ditu. Beraz, hasieran behintzat, nekazari guztien aldizkaritzat agertu zen: "*Zabalpen edo entzuki onek ez du politika asmoak*". Baina, hala ere, jestioa burutzen zuen alderdiaren eraginak nabarmenduko ziren.

ANV-AEA alderdia, ezkerreko eremuan mugitzen zen eta isladaren batzuk agiri zaizkigu Sloganak adibidez: "*Gaurko egunean ludia eta ludiko iztilloak bi erata zaituta daude: Aberatsak alde batera eta langileak bestera. Onela ere ezan leike: Bere lanan irabasiatik jaten dutenak eta besteren lanan irabasiatik jaten dutenak. Nekazariak, bidea oso garbi dago: zuek aukeratu*". 1 zenbakian). "*Eusko nekazarian bazkunak batu*" (2 zenbakian). "*Lugiña: Indarra lortu nai badezute Nekazari Bazkunak batu bear dituzute*" (5 zenbakian).

Slogan hauek, *Eguna* egunkariak erabiltzen zituenekin parekatuz gero desberdintasunak nabariak dira. Beste mundu ikuskerara bat adierazten dute: gizartearen antolaketa klase antagonikotan banaturik dagoela eta, beraz, nahietazko borrokan sartuta, da ideietako bat. Ikuspegi hau ez zetorren bat, gizarteaz izan zitekeen harmoniazko Euzko Alderdi Jeltzalearenarekin alegia.

Artikuluen gaiak honela sailka genitzake:

– Baserritarren elkarte profesionalen alde, "*baserritarrei dagozkiten artu-eman eta arazoak bakar bakarrik lortutzeko sortuak*", azken ondorioa hau dugula: "*Alkartu erosteko, alkartu saltzeko, alkartu zuen eskubideak aldeztu ta gordetzeko kopoeratik, suaroak eta naidiak era batez sortu eraziaz*". (1 Zenbakian, 6 orr.). Ale guztietan ardura hau, argi eta garbi, helburu nagusi bezala azaltzen zaigu.

– Laborantzaren garapenerako gomendioak: Haziak, abereen gaixotasunak abereen emankortasunaren alde, kortak nola antolatu, eta etxebizitza eroso eraikitzeko aholkuak, sagardoa-ren produkzioa emendatzeko eta hobetzeko neurriak eta higiene arazoak, aztertzen dira, zenbaki guztietan.

– Arazo soziala: Nekazaritzaren garapena, arazo tekniko eta ekonomikoa soil-soilik ez zela, argi zegoen sailburu eta ardura-dunen asmoetan. Horregatik, 1937.eko epailaren 1.ean argitaraturiko 3. zenbakian *“Nekazaritza zaingoa lugiñen alde. Aurki egingo du lege barri bat basetxean jabetza zuzentzeko”* izenburuarekin artikulu sakon bat lur-jabetzaren inguruan argitaratu zen. Besteak beste, honela zioen: *“Lurra da lan egiten duanentzat” oldozka, gezurrezko okerra “falsua da” ...lurra ez da inõna lurra da gizaki guztien bizitzako. Beste gauza bat izango litzake esatea lurrak emoten dituan igaliak eta barazkiak eta gauza guztiak bertan lan egiten duanentzat dirala”*. Zehaztaperon honetan finkaturik, problema honetaz, laburbilduz hara zer programa proposatzen zuen: *“Gaurko jabeari, lurretan lan egiten ez dutenari, kenduko zaiote bere jabetza eta ordainduko zaiote bere balioa erabidean kitatu (indemnizacion) bat”*. Hau da, lurrak administrazioarenak bihurtu eta laborariak lurraen administradoreak lirateke; zerbitzu hori, ondoko herederuek har lezaketela eragozpenik gabe. Horrez gainera, erraztasunak emango litzaizkieke, jabetun bihurtzeko.

Aldakuntza sakona ekartzen zuen ekintzabide honek, zera aldarrikatzen bait zuen: maizterrak inorenak izatekotan, administrazio publikoarenak bihurtzeko asmoa. Baina Euskal Gobernuak ez zuen izan astirik patxadaz gai hau eztabaidatzeko. Ez zen izango erraza erabakia, hainbat jauntxoren lur-jabetzak desargetuko bait ziren eta jakin egin behar EAJ alderdia horrelako urratsik emateko prest zegoen ala ez.

– Irakaskuntzaren garrantzia ere azaltzen zuen aldizkariak eta filmearen erabilpena proposatzen zuen.

Horrez gainera aldizkariak, literatur kutsuko bertsoak edo ipuinak ere ekartzen zituen.

Laburbilduz aldizkari honek, arazo profesionalak euskaraz erabiltzeko ahalegin berezia egin zuen. Laborarien egoera aldatzeko ekintzabide soziala eta teknikoa biak elkartuz, programa zehatza aldarrikatzen zuen baina bere egitasmoa sustraitzeko eta euskal aldizkari legez garatzeko ez zuen betarik aurkitu.

- ¹ Ikerlan honek helburu jakina du: Prentsari buruzko bigarren ihardunaldietan esparru zehatz bat bete, hots, 1936.eko guda zibilararen garaian euskaraz argitaratu zen prentsaren azterketarena, Euskal Herrian produzitu zen prentsaren azterketaren baitan.

Agustin Zubikarai eta Eusebio Erkiaga *Eguna* egunkariko erredaktoreen kritziak eta albisteak jasoten ahalegindu gara eta geure eskerrik beroenak agertu nahi dizkiegu, emandako berriak guztiz jakingarriak izan bait dira; euskal kazetari trebe eta adoretuak zirela ondo frogatu zuten. *Eguna*-ren 139 ale Bizkaiko Diputazioko bibliotekan aurkitzen dira eta Salamancako artxiboan ere bai. Bestalde, Jose Luis de la Granja lankideak *Ereintza* aldizkariaren bost aleak lortu dizkit. Salamancako guda zibilar buruzko artxiboan aurkitzen dira. Geure esker ona adierazi nahi diogu. *Euzkadí* egunkariaren azterketa ideologikoa eskaini digu eta bertan *Eguna*-ri buruz azaldu ziren berriak ere jakin erazi dizkit.

- ² LAFITTE P.: *Le basque et la littérature d'expression basque en labourd Basse-Navarre et Soule*. Bayonne 1941. LAFITTE P.: "Jean Hiriart - Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme en langue basque", in: *Gure Herria*. 1971, 321-338 orr. Eskual-astekariaren ixtorioa (1887-1969), in: *Gure Almana-ka*. 1971, 17-49 orr. Garai hartako giro soziala eta politika ezagutzeko: LOPEZ ADAN E.: "Ipar Euskal Herria: 150 urte historiari gabe (1789-1934)", in: *Saioak*, 2. 1978 99-135 orr. "Euskal prentsak 100 urte bete ditu", in: 1987. *Euskal Kulturaren urtekaria*". *Argia*. 243-257 orrialdeak.
- ³ A. P. Iturriagari buruz ikus LASA J. I. Y COL.: *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*. San Sebastián, 1968, 129-160 orr. J. I. Iztueta buruz ikus MITXELENA L.: "Iztueta testigo político de su época". *Euskal Herria*. 1789-1850. *Actes du colloques internationales d'études basques*. Bayonne, 1978, 167-169 orr. ULIBARRI J. P.: *Gutun liburua*. Gasteiz, 1975.
- ⁴ RECLUS E.: "Les basques un peuple qui c'est va", in: *Revue des Deux Mondes*, 68, 1867.
- ⁵ AGIRRETAR Joseba Mirena: *Itz lauz*. San Sebastián, 1972.
- ⁶ Ibidem: 144 orr.
- ⁷ Lauaxetak gaztelaniaz eta euskaraz landu zituen kazetaritza moeta desberdina. Ikus, adibidez, J. Kortazarrek prestatu duen bilduma: *Azalpenak*. Bilbao (Labayru ikastegia), 1982. Horrez gainera: KORTAZAR J.: *Lauaxeta. Biografia política*. San Sebastián 1984, 13-14 orrk. edo ONAINDIA S: *Urkiagatar Estepan. Olerki guztiak*. Bilbo, 1985, 14-17 orr. Lauaxeta eta *Eguna*-ren arteko loturaz, lan hauek ez dute barririk agiri.
- ⁸ 1937.eko martxoaren 4.ean *Euzkadín* Mario de Mendiorlegiren artikuluan, Euzkera-aldez, agertzen da. *Eguna* atera berri, *Euzkadín* 1937.eko urtarrilaren 9.an, Larrin-Etxebarrrik zera idatzi zuen: "*Eguna*" sale como robusto niño formado al calor del diario EUZKADI. EUZKADI debe mirarlo y mimarlo como fruto de su segundo seno y el patriota vasco que verdaderamente lo sea, debe acogerlo como la manifestación más vigorosa del progreso cultural vasco...".
- ⁹ Arizmendiarieta "periodista en el diario de guerra *Eguna*" dela dio AZURMENDI J.: *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*. San Sebastián, 1984.

¹⁰ GOMEZ MOMPART J. L. – MARIN OTTO E.: “Elements per a una caracterització de l’inici de la premsa diària de masses”. “La conformació històrica del discurs periodístic de masses a Catalunya al llarg del primer terç del segle XX. De la Mancomunitat a la II República, in: *La prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos*. Bilbao, 1986, 83-97 orr., 433-451 orr. TRESSERRAS J. M.: Els orígens de la societat de masses a Catalunya”, in: *La prensa de los siglos XIX y XX...*, 419-431 orr.

¹¹ ESKUALDUNA. 1937.eko Errearoaren 11.an. Euskal Muscoan. Baiona.

1988ko euskal liburugintza

Joan Mari Torrealdai

1987an astinaldi bat baino gehiago jaso zuen literaturaren munduak. Gogoratu, bestela, zenbait kritika zorrotz, adibidez: Bernardo Atxagaren "Henry Bengoa-Inventarium"i Antton Azkar-gortak, Arantxa Urretabizkaiaren "Saturno"ri Pako Aristik, eta Joxerra Gartziak Laura Mintegiren "Bai... baina ez" elaberriari. Eta gogoratu batez ere udazken beroa: Galesen, Verinesen eta Valentzian esandakoak edo izandako eztabaidak. Eta ez ahaztu, Jon Juaristiren planteamenduak/probokazioak. Hori dena 1987an.

1988a askozaz bareagoa izan da. Eztabaida, kritika eta polemika horien luzapentxo bat edo beste kenduta, ez da izan markaz kanpokorik literatur sailean. Liburugintzan, aldiz, bai. Kanpotarren desenbarkua aipatu zen uztailen, Alfaguarak zenbait liburu aurkeztu zuela eta, Jon Juaristiren ardurapean hain zuzen. Alde eta kontra azaldu ziren eritziak: literaturaren mesedetarako zela kanpotarren eskuartzea, zioten batzuek; oportunitatez gain arriskuak aipatzen zituzten beste batzuek.

Arazo hau, kanpotarren eskuartzea, areagotu eta larritu egin daiteke luza gabe. Orain oraingoz ez dira indarrean sartu: dozentik gora dira 1988an liburugintzan eskuhartu duten kanpotarrak, eta produkzio osoaren % 10 bat osatu dute. Baina zer da hau etxetzar hauen ahalmena kontuan izanik? Alfaguara-Desclée de


Brouwer, Anaya, SM, Santillana editorialez ari gara. Deskuidatuz gero etxe hauen indarra inposa egin liteke euskal liburugintzan, eta ez prezeski edo bereziki literaturan, irakaskuntz munduan baizik. Bertoko argitaratzaileen benetako erronka eta desafio larria irakaskuntz sistemaren aldaketan datza, honek aldean dakarren testugintzaren suntsiketan eta eredu berrien eraikintzan. Berrikuntza horri tertzioz eta azkar heltzeko ahalmenik, modurik eta bizkortasunik izango al dute gure editorialek? Ez badute asmatzen, bi irtenbide daude: kanpokoekin elkartu edota kanpokoa itzuli. Azken batean, kanpotarren morrontza bietan.

Egiaz eta benetako borroka (merkatu-borroka eta gatazka ideologiko-politiko) irakaskuntz liburuan dago, literatura guztien gainetik, eta borroka hau ari da gertatzen dagoeneko.

1. Ia 800 liburu

Arazo eta gorabehera guzti hauen artean euskal liburuaren produkzioa gora doa: % 29 igo da. Ia 200 liburu gehiago atera da 1988an. (Graf. 1). Asko da, gurea bezalako produkzio-maila duen liburugintza batentzat. 800 liburutara hurbildu gara.

Graf. 1: 1980-1988ko liburugintza



Espero zitekeen igoera hau. Hala tokatzen zela esango nuke, honela hitzegiterik balego. Amaitzeaz dugun 80ko hamarkada ho-


netan "konstante" bat da, izan ere, bi urteko gerakuntzaren ondoren goraldi bat izatea. Hamarkada honen seinalagarri da erritmo hori. Kopuru eta erritmo ahulagotan zebilen produkzioa aurreko hamarkadan, adibidez. 70 hamarkadan bizpahiru urte igoz mantentzen da produkzioa tamaina batean, baina jaitsialdiak ditu, erori egiten da atzera, gero berriz igotzeko. Orain, ostera, ez dago jaitsialdirik: gerakuntzaren ondoren gorakada gertatzen da beti. Konstatazioaren ondoren, esplikazioa? Konstatazioan utzi behariko dugu oraingoz, esplikazio zehatzetarako goizegi delakoan. Kausa orokorren artean daudeke, noski, produkzio-aparailuaren ahalmen handiagoa, idazleagoaren ekimena eta irakurleagoaren zaltzea.

Titulutan gora, orrialde idatzien kopuruan gora, eta, halere, ez da dena urrea euskal liburugintzan. Kopuru handitzea positibotzat jotzen dut, bere horretan, seinale ona iruditzen zait. Baina puntutxo bat besterik ez da hori, liburugintza orokorki balioztatzeko orduan. Barruagotik ikusi behar da produkzioa, eta barne-analisi horien ondoren baliozta daiteke, orduan bakarrik, urteko produkzioa, igoera eta guzti.

2. Itzulpenaren gorakada

Sekula baino liburu gehiago publikatu dela bistakoa da. Ez da hori bakarrik: idatzi ere sekula baino liburu gehiago idatzi da euskaraz. Eta, halere, aurten lehen aldiz, euskaraz sortu eta lehen-dabizikoz argitaraturiko liburu urteko produkzioaren erdira ez da iristen: % 49,5. Liburu itzuliaren, berrargitaratuaren eta produkzio propiokoaren urteroko proportzioak aldatu egin dira aurten. Itzulpena eta berrargitarapena urtetan parean joan dira, gero eta gorago biak, baina elkarren paretan. 1988an itzulpenak zazpi puntu gora egin du eta ia beste hainbeste jaitsi da berrargitarapena. Hori bateko. Eta besteko, arestian aipatua: barne-ekoizpena ez dela erdira iristen. Gertakari honek ere ez gaitu arras ustekabe harrapatzen. Idako hiruzpalau urtetan ari zen beheraka, urtero urtero lauzpabost puntu galduz. Taulak argi eta garbi erakusten du bai jaitsiera hori eta bai urtez urte liburu-mota ezberdinen arteko konposaketa. Delako jaitsiera edo beherakada hori zenbaki erlatibotan da noski, ez kopuru absolututan.

Graf. 2: Jatorriaren eta edizioaren araberako banaketa



		1985	1986	1987	1988
Elebiko liburua	%	8,5	10	12,5	12,5
Liburu itzulia	%	17,5	22	28,0	35,0
Liburu berrargitaratua	%	18,0	22	26,0	18,5
Euskaraz sortu eta lehenbizikoz publikatua	%	63,5	59	53,5	49,5

2.1. Kontzeptuz kontzeptu

Konstatazio orokor honen ondoren, hizkuntzari dagokionez, interesgarri da jakitea zein liburu-motatan mamitzen den kontzeptu bakoitza. Urtero egin ohi dudanez, kontzeptu bakoitzaren lehen bost gai-sail hornituenak hartzen ditut aintzat, eta horietan ikusi kontzeptu bakoitzaren lekua eta pisua zein den.

Sorkuntzaren lautik bat mamitzen da haur eta gazte-literaturan. Sorketazko lanaren lehen lekuan dator O1 saila, eta ez da harritzekoa, produkzio osoaren % 36,5 berak bakarrik osatzen bait du.

Berrargitarapena irakaskuntz liburuan bakarrik igo da. Jaitsi egin da literatur liburuan, eta, harrigarriago, euskararen irakaskuntz liburuan ere bai eta haur eta gazte-literaturan.

Sorkuntza

<i>Ordena</i>	<i>Saila</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
1	01	98	25,5
2	21	72	18,5
3	11	52	13,5
4	08	42	11,0
5	04	38	10,0

Berrargitarapena

<i>Ordena</i>	<i>Saila</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
1	08	50	34,5
2	01	40	27,5
3	11	24	16,5
4	21	22	15,5
5	03	7	5,0

Itzulpena

<i>Ordena</i>	<i>Saila</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
1	01	158	58,5
2	08	54	20,0
3	21	31	11,5
4	10	7	2,5
5	23	7	2,5

Elebitasuna

<i>Ordena</i>	<i>Saila</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
1	04	35	38,0
2	11	14	15,0
3	01	12	13,0
4	21	6	6,5
5	10	5	5,5

Normalizat jo behar da irakaskuntz liburuan ugari izatea berrargitarapena. Erritmo-problema da: testuliburuak eta laguntzai-

leak urtero behar dira. Eta argitarapen-problema da: merkeago zaie editorialei urterako tiraldiak egitea, inbertsio eta biltegi handitan sartu partez.

Berrargitarapenaren kultur garrantzia behar bezala neurtzeko, barne-konposaketa arakatu behar da. Alegia, zer da berrargitaratzen dena, itzulitako liburua ala euskaraz sorturikoa? Aurtengo berrargitarapenari dagokionez, euskal sorkuntzazko liburua gehiago da (% 64). Orohar horrela bada ere, ez du indar bera sail eta gai guztietan. Horrela da, bai, euskararen irakaskuntzan eta helduen literaturan, bietan nabarmen, gainera. Irakaskuntzako liburuetan, aldiz, parean doaz itzulitako liburuaren eta sorketazkoaren berrargitarapenak. Aldea dago, honetan ere, haur eta gazte-literaturazko liburuetan: liburu itzuliaren berrargitarapena da nagusi: % 62. Baina, bestalde, sorkuntzazko liburua sarriago berrargitaratu ohi da, itzulia baino.

Itzulpenaren kapituluak du hemen munta, nere ustez. Batez ere haur eta gazte-literaturan hezurmamitzen da itzulpena (% 58,5) proportzio izugarrian. Eta gero testugintzan (% 20). Bi liburumota hauek, biak dira oinarri-oinarrikoak irakaskuntzaren garapean. Bi sail hauetantxe dago, bada, arakatu beharra itzulpenaren funtzioa, proportzioa, kanpoko eta bertokoen ahalmenak eta jokatibideak. Itzulpenaren pisua hemen agertzen den baino ere handiagoa da. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak atera ohi dituen estatistika-liburuetan. Hauetan euskarazko bertsioa ere jatorrizkotzat ematen da, baina ziur itzulpena dela, nahiz eta liburuan bertan horren frogarik ez izan. Eta horrela hainbat kasu. Esan bezala, errealitate honek areagotu egiten du itzulpenaren pisua.

Elebiko liburuetan ez da nobedade aipagarriarik. Erakunde publiko eta parapublikoen edizio elebikoak hartzen du zatirik handiena. Elebikoetan sartzen ditugu, baita ere, hiztegi eta gisakoak, euskararen irakaskuntz materialak, eta, azkenik, zenbait autoreren idazlan guztien bildumak eta omenaldiak ere hortxe sartzen ditugu.

Ez ditut sartu elebikoen artean II. Euskal Mundu-Biltzarrak argitara eman duen liburu mordoa, nahiz eta liburuen tituluak eta sailen buruak denak euskaraz ere emanak izan. Engainu hutsa da, ordea, barruan ez bait dago ezer euskaraz, idazlanen bat edo beste salbu. "Bilingüismo de fachada" da hori, hainbat abertzalek modan jarria.

2.2. Saillez sail

Euskal liburugintzaren euskarri diren lau gai-sail nagusiotan ere, ekoizpen propioa ez da beti lehena, berriz diogu. Ez eta gutxiago ere. Haur eta gazte-literaturan itzulpena dabil denen gainetik, % 55,5ekin. Testuliburuetan orpoz orpo doaz itzulpena eta berrargitarapena. Euskararen irakaskuntzan eta helduen literaturan, aldiz, produkzio propio berria da lehena, % 69 eta % 57, hurrenez hurren. Baina bai literaturan eta bai irakaskuntzan krea-zioa jaitsi egin da iaztik hona, 11 puntu lehenean eta 7 puntu literaturan.


<i>Gai-saila</i>	<i>Eusk.</i>	<i>Eleb.</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Itzul.</i>	<i>Orot.</i>
01-Orotarik	34,5	4,0	14,0	55,5	284
08-Irakaskuntza	31,0	2,0	37,0	40,0	135
11-Euskara	69,0	18,0	32,0	-	75
21-Literatura	57,0	6,5	17,5	24,5	126

3. Hirutik bat haur eta gazteentzako liburua

Behin eta berriz aipatua dugu aurtengo produkzioaren gorakada nabarmena. Ez da gutxiago nabarmentzekoa haur eta gazte-literaturari zor zaiola gorakada hori, neurri handi batean, ia osorik ez esatearren. Ez dira, ez, tamaina eta proportzio berean hazi bestelako sailak, adibidez, literatura. Testugintza, bai, pittin bat hazi egin da, baina apenas literatura, apenas euskararen irakaskuntzako liburua, eta zertan aipatu ere ez beste batzu.

<i>Ordena</i>	<i>Saila</i>	<i>Gaia</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
1	1	Orotarik	284	36,5
2	8	Irakaskuntza	135	17,5
3	21	Literatura	126	16
4	11	Euskara	75	9,5
<i>Orotara, lau sailak</i>			620	79,5

Graf. 3: Lau gai-sail nagusiak



Horrela bada, hazkundera haur eta gazte-literaturan eman da gehienbat, eta ez du hobetu liburugintzako sailen arteko armonia. Sailen arteko orekatik urrun gaude oraino. Gauza bat da tituluak gehitzea eta beste bat liburugintza sanotzea. Aurten ere hamaika (11) gai-sail ditugu dozena bat liburu gabe, eta horietako bost liburu batño gabe. Sail gutxi batzutan pilatuz jarraitzen du produkzioak, eta doan martxan sail gutxiagotan kokatuko da ekoizpena, iaz kontrako joeraren hasikinak ustez ikusabartu banituen ere. Bai, aurten ere, lau gai-sailetan konzentratzen da produkzio osoaren % 80. Hiru sailetan gainditzen da saileko ehun liburuko marra. Eta gainerako gutzietan ez gara berrogei liburutara iristen.


Eredu jakinetik doa liburugintza, urtero berdintsu. Joera hori erremediatuko duenik ez dago, kanpoko interbentzioz ez bada. Administrazioaren eskuhartzeaz ari naiz. Liburu-politikaz, alegia. Normalizaziotik urrun gaude, zertan esanik ez da. Normalki anormala da gure egoera, horrelaxe ontzat emana badirudi ere. Ez da ikusten behintzat zerk edo nork jar dezakeen hobetze-bidean, eta are gutxiago bertoko argitaratzaileak ahultzen badira. Itzulpena eta haur eta gazte-literatura hazi egingo direlakoan nago, bestelako sailen pentsura, agian. Aurtengoak, alde horretatik begiratura, bidea seinatzen digula esango nuke. Alegia, haur eta gazteentzako liburua nagusituko da, eta, gainera, itzulia izango da. Dagoeneko, haur edo gazte jendearentzat egindako liburua gutxienez % 54 izan da aurten, eta liburu modu horietan itzulpenak duen pisua % 78.

4 Helduen literatura

Grafikoak begien aurrean jartzen duenaz gain deus gutxi dago berririk esateko moduan. Errepikatu, hori bai, gutxi hazi dela literatura: 13 liburu gehiago bakarrik, eta ez nahitaez euskal idazleek zuzenean euskaraz idatziak.

Barne-sailkapenari dagokionez, betikoa: narratibaren nagusitasuna (% 63), olerkigintzaren paradero tristea eta beste zenbait jeneroren presentzia sinbolikoa.

Graf. 4: Literatur jeneroen araberako banaketa



Ordena	Azpisaila	Azpigaiak	%
1	214	Elaberria	44,5
2	217	Ipuinak	18,5
3	216	Olerkia	14,0
4	215	Herri-literatura	8,0
5	211	Historia. Kritika	5,0
6	210	Denetarik	4,0
7	212	Bertoak	3,0
8	213	Antzerkia	3,0

Oharrak

1. Liburuen fitxa bibliografikoan ohar hauek agertzen dira:
 1. tituluaren ondoren eta parentesi artean: i=itzulpena; b=berrargitarapena; e=elebikoa.

2. izenen artean: /=itzultzailea; // =marrazkilaria edo/eta argazkilaria.
3. izenaren ondoren: * =moldatzailea edo paratzailea.

2. Ia 800 liburu atera direla 1988ko lege-gordailuz, idatzi dut. 820 liburu eta liburuska dira zehatz eta mehatz nik fitxatu ditudanak. Halere, bi erizpide osagarri/zuzentzaile erabili ohi ditut urtero eta horregatik aldaketak. Bat, aurreko urtean, berandu ateratzeagatik edo bestelako arrazoiren batengatik, zerrendan sartu gabekoak, sartu egiten ditut hurrengoan. Oraingoan, 34 sartu ditut horrela.

Bigarren erizpidea hau da: zenbait liburu, hitz gutxiko edo batere gabeko, ez dut kontabilizatzen, nahiz eta fitxa bibliografikoan azaldu. 80 liburuska utzi ditut kanpoan, erizpide hau dela eta. Egia aitortu, orain ez nuke berdin jokatuko, gaur hasi beharko banu. Baina aspaldi da estatistika-lan hauetan nabilela, eta hasi nintzenean testu-masari jaramon eginez hasi nintzen eta ez hainbeste lan editorialari. Erizpide berberak jarraitu beharrean aurkitzen naiz orain, urtetik urterako konparaketak balioko badute.

3. "Orotarik" sailean ez da haur eta gazte-literatura soilik sartzen, gai-sailkapenaren taulan ikus daitekeenez. Informazioa eta gai desberdinez osaturiko idazlanen bildumak ere hortxe kokatzen dira. Hori bai, gehien gehiena, ia osoa, esateko, haur eta gazte-literatura da. Aurten, zehazki, 284tik 26 dira bestelakoak eta 258 literaturazkoak, liburu-produkzio osoaren justu herena.

4. Fitxa bibliografikoa osatzerakoan izan dudan laguntzaren berri eman eta nere eskerrona azaldu nahi dut hemen. Eskerrak, hasteko, zenbait argitaletxe eta erakunderi, beren zerrendak emateagatik. Hona beren izenak: Arte eta Historia Museoa, Baroja, Deustuko Unibertsitatea, Elhuyar, Elkar, Erein, Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritza, Idatz, IKA, Kri-selu, Labayru, Maiatz, Mensajero, UEU, Xabier Gereño, Zabaltzen. Gainerako argitaratzaileek ez didate erantzunik bidali.

Eskerrak, baita ere, *Zabaltzen*-i eta bereziki Joseba Jakari, liburuak eskuartean izateko eta berrargitalpenak kontrolatzeko emandako aukera eta laguntzagatik. Eta eskerrak, nola ez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, diru-laguntzetara aurkezturiko liburuen fitxa emateagatik.

1988ko liburuak: gai-sailkapena

Sailak	Zenb. abs.	%
01.- Orotarik. Bibliografia, Kazetaritza. Urtekariak. Haur-eta gazte-literatura. Tebeo, komiki eta historioak. Bibliofilia. Saiakera eta artikulua gai desberdinez. Omenaldiak.....	284	36,5
02.- Filosofia.....	2	0,2
03.- Erljioa. Teologia. Teologia morala eta praktikoa, pastoral. Eskritura Saindua. Eliza jeneralean. Liturgia.....	31	4,0
04.- Soziologia. Estatistika. Gizartearen eta gizarte-zientzien filosofia. Gizarte-doktrinak. Lana eta gizartea. Sozialismoa eta komunismoa. Marxismoa. Hainbat estatistika.....	38	5,0
05.- Zientzia politikoak. Estatuaren teoria. Nazioa eta lurraldea. Finantza publikoa. Zor publikoa. Nazioarteko politika.....	4	0,5
06.- Zuzenbidea. Administrazio publikoa. Asistentzia soziala. Zuzenbide publikoa, politikoa, konstituzionala, administratiboa.....	4	0,5
07.- Arte eta zientzia militarrik.....	—	—
08.- Irakaskuntza. Hezkuntza. Hezkuntzaren teoria eta filosofia. Hezkuntz sistemak. Pedagogia. Hezkuntza sexuala. Irakaskuntza eskolaurrekoa eta oinarrizkoa. OHO, BBB eta UBI. Goimalko eta unibertsitateko irakaskuntza. LH.....	135	17,5
09.- Merkatalgoa. Komunikabideak. Garraioak.....	—	—
10.- Etnologia. Bizitza pribatu eta publikoetako ohitura eta usadioak. Folklore. Tradizio eta kondairak. Zuhurrizak, atsotitzak, ateraldiak eta izkirimiriak.....	26	3,5
11.- Hizkuntzalaritza. Filologia. Euskararen azterketa. Euskararen irakaskuntza. Hiztegia. Metodoak. Gramatikak.....	75	9,5
12.- Matematikak.....	—	—
13.- Natur zientziak. Astronomia. Nautika. Geologia. Biologia. Botanika.....	12	1,5
14.- Medikuntz zientziak. Higiene publikoa. Gaixotasunak. Terapeutika. Higienea. Sanitate publikoa. Osasunaren zaingoa.....	4	0,5
15.- Injinerutza.....	—	—
16.- Nekazaritza. Oihanlantza. Abelazkuntza. Ehiza eta Arrantza. Lur-lanketa.....	3	0,5
17.- Etxe-ekonomia.....	—	—
18.- Antolakuntza.....	1	0,1
19.- Arte ederrak. Artearen filosofia eta kritika. Arkitektura. Hirigintza. Fotografia eta zinematografia. Artesautza. Zeramika, altzariak.....	8	1,0
20.- Jostaldiak. Denborapasak. Jokoak. Kirolak. Mendia.....	2	0,2
21.- Literatura. Literatur kritika. Literaturaren historia. Bertsoak. Antzerkia. Elaberria. Olerkiak. Ipuinak.....	126	16,0
22.- Geografia. Bidaiak. Bidaiak, ikerkondeak. Eskualde-geografia. Bidaieri eta turistaren gidaliburuak. Euskal Herriko geografia.....	2	0,2
23.- Historia. Biografia. Euskal Herriaren eta honen eskualdeen historia. Biografia. Oroitzapenak.....	17	2,0
GUZTIRA.....	774	100

1988ko liburuak: fitxa bibliografikoa

- A ze ordenagailua!** (i) Kahn, Michelle/Burgoa, Antton//Lapointe, Claude. Alfguara / Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 × 11. 117 or.
- Abarrak.** (b) Kirikiño. Elkar. Donostia. 19 × 13. 148 or.
- Abereak.** (i) X.X./X.X.//Sanchez, Ricardo. Fher. Bilbo. 19,5 × 19,5. 30 or.
- Abereen etxaldea.** (b/i) Orwell, George/Elexpuru, J.M.//Alonso, Isabel. Elkar. Donostia. 19 × 13. 158 or.
- Adizki sintetikoak. Chourio-ren "imitacionea"-n.** Etxebarria, Jon Gotzon. Egile editore. Gernika. 16,5 × 12. 44 or.
- Afrika beltzean.** Gereño, Xabier. Egile editore. Bilbo. 20 × 14. 153 or.
- Afrikako Herri ipuinak. I. Animaliak eta beraien mundua.** X.X. Gero (Mensajero). Bilbo. 19 × 13,5. 71 or.
- Afrikako Herri ipuinak. II. Animaliak eta beraien mundua.** X.X. Gero (Mensajero). Bilbo. 19 × 13,5. 94 or.
- Afrikako Herri ipuinak. III. Gizona eta bere mundua.** X.X. Gero (Mensajero). Bilbo. 19 × 13,5. 101 or.
- Agarreko Garaixea / Horreo de Agarre. Zaharberttzea-Restauración.** (e/i) Aspiazu, Iñaki; Arregui, Jesus; Leizaola, Fermin/Mendizabal, Fernando. Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultur Departamentua. Donostia. 29 × 23. 74 or.
- Agotak, juduak eta ijitoak Euskal Herrian.** Sturtze, Alicia//Garcia, J.R. Txalaparta. Bilbo. 21,5 × 17. 195 or.
- Ahatetxoak lagun bat aurkitu du.** (i) Leonard, Marcia/Ormazabal, Joxantonio//Hockermann, Dennis. Elkar / Timun Mas. Donostia. 20,5 × 20,5 18 or.
- Ahotsik bako aita (bizkaieraz)** (i) Lluch, J.; Ginesta, M./Iraolagoitia, J.M. IKA / Elkar / La Galera. Euba / Donostia / Barcelona. 19 × 17. 24 or.
- Ahotsik gabeko aita.** (i) Lluch, J.; Ginesta, M./Ormazabal, Joxantonio. Elkar / La Galera. Donostia. 19 × 17. 24 or.
- Ahozko bizkaieraz.** Gaminde, I. AEK. Bilbo. 20,5 × 14,5. 259 or.
- Ai, nire hatzak!** (b/i) Lisson, Asunción/Mendiguren, Xabier. Elkar. Donostia. 16,5 × 15,5. 14 or.
- Airea.** (i) Rius, María/Navarro, Koro//Parramon, Josep M.^a Elkar. Donostia. 21 × 21. 28 or.
- Aise 2. Ikasle liburua.** (b) Aise Taldea. Elkar. Donostia. 24 × 17. 109 or.
- Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta "Orixe"ren etnologiazko zenbait gai.** Garmendia Larrañaga, Juan. Kriselu. Donostia. 17,5 × 11. 121 or.
- Aitaren pipa.** (b/i) Lisson, Asunción/Mendiguren, Xabier. Elkar. Donostia. 16,5 × 15,5. 14 or.
- Aitaren txalupan (bizkaieraz).** Landa, M.A.; Zabala, C/Iraolagoitia, J.M. IKA / Elkar / La Galera. Euba / Donostia / Barcelona. 19 × 17. 44 or.
- Aitonaren txalupan.** (i) Landa, M.A.; Zabala, Carlos/Ormazabal, Joxantonio. Elkar / La Galera. Donostia. 19 × 17. 32 or.
- Akerra ikusi dugu baratzean jaten.** Txiliku//Astrain, Luis. IKA / Elkar. Euba / Donostia. 20 × 17. 12 or.
- Akerra ikusi dugu baratzean jaten.** Txiliku//Astrain, L. Elkar. Donostia. 20 × 17. 8 or.
- Alaba.** (b) Garate, Gotzon. Elkar. Donostia. 19 × 12. 105 or.
- Aladino.** Cornejo, C.A./Unanua, Migel Angel²//Fuente, Chiqui. Kriselu. Donostia. 29 × 21. 47 or.
- Alaketen hiria.** (b) Sagarzazu, P.//Zubizarreta, I. Elkar. Donostia. 20,5 × 15,5. 58 or.

- Alexis.** (i) Yourcenar, Marguerite/Gonzalez Esnal, Maite. Elkar. Donostia. 19 × 12. 100 or.
- Algebra lineala eta geometria.** (i) Garcia Villar, Borja/Elhuyar. Arrasateko Eskola Politeknikoa. Donostia. 29,7 × 21. 597 or.
- Ali Baba.** (i) X.X./X.X. Izar bilduma. 20 × 19,5. 16 or.
- Alicia herrialde Miresgarrian.** (i) X.X./X.X. Izar bilduma. 20 × 19,5. 16 or.
- Altxor bat patrikan.** Genua, Enkarni "Txotxongilo"//Lucas, Jesus. Erein. Donostia. 30 × 21. 23 or.
- Amairu kontakizun.** Arrinda, Anastasio (Anes Lazkauko). Egile editore. Donostia. 20,8 × 15. 151 or.
- Ameriketako indioek kontatzen zuten.** Zabaleta, Josu//Olariaga, Antton. Erein. Donostia. 19 × 12,5. 98 or.
- Amesgaitzak.** Aizarna, Santiago. Baroja. Donostia. 18,5 × 13,3. 88 or.
- Amoroto eta Gizaburuaga.** Zubikarai, Agustin. Zubikarai, Agustin; Fernandez Eiguren, Juan. Bilbo? 21 × 15. 239 or.
- Amuarrantza.** Velez de Mendizabal, Josemari. CAM/DAK. Donostia. 24 × 16. 93 or.
- Ana sorgin.** (i) Edmondson, Madeleine/Artola, R.//Barandiaran, A. Elkar. Donostia. 19 × 13. 90 or.
- Andre Maria-ren Goratarreak.** (e) Etxebarria, Jon Gotzon; Baztarrika, Isidor. Egile editore. Gernika. 17 × 11,5. 55 or.
- Animaliak eta beraien mundua.** (i) Askoren artean/Egireun Totorica, Jose Luis. Gero (Mensajero). Bilbo. 19 × 13. 70 or.
- Animaliak eta gizona.** (i) Askoren artean/Egireun Totorica, Jose Luis. Gero (Mensajero). Bilbo. 19 × 13. 94 or.
- Animalien bizitza. Ahatea.** (i) Royston, Angela/Kintana, Xabier//Pledger, Maurice; Robinson, Bernard. Fher. Bilbo. 20,5 × 19,5. 24 or.
- Animalien bizitza. Azeria.** (i) Royston, Angela/Kintana, Xabier//Robinson, Bernard. Fher. Bilbo. 20,5 × 19,5. 24 or.
- Animalien bizitza. Igaraba.** (i) Royston, Angela/Kintana, Xabier//Robinson, Bernard. Fher. Bilbo. 20,5 × 19,5. 24 or.
- Animalien bizitza. Oreina.** (i) Royston, Angela/Kintana, Xabier//Robinson, Bernard. Fher. Bilbo. 20,5 × 19,5. 24 or.
- Animalien bizitza. Pinguinoa.** (i) Royston, Angela/Kintana, Xabier//Boyer, Trevor. Fher. Bilbo. 20,5 × 19,5. 24 or.
- Animalien bizitza. Tigrea.** (i) Royston, Angela/Kintana, Xabier//Alle, Graham. Fher. Bilbo. 20,5 × 19,5. 24 or.
- Antologia.** (e) Aresti-Espriu-Ferreiro. Erein. Donostia. 20,5 × 13. 171 or.
- Antonello Euskal Herrian.** (b) Gereño, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16,5 × 11,5. 150 or.
- Antonino Apreta.** Atxaga, Bernardo. Erein. Donostia. 20 × 16. 42 or.
- Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. I.** Apalategi Begiristain, Joxemartin. CAM/DAK. Donostia. 21 × 14,5. 239 or.
- Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. II.** Apalategi Begiristain, Joxemartin. CAM/DAK. Donostia. 21 × 14,5. 678 or.
- Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. III.** Apalategi Begiristain, Joxemartin. CAM/DAK. Donostia. 21 × 14,5. 374 or.
- Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. IV.** Apalategi Begiristain, Joxemartin. CAM/DAK. Donostia. 21 × 14,5. 313 or.
- Antton ez zegoen eguna.** (i) Schreiber-Wicke, Edith/Artola, R.M.//Barandiaran, A. Elkar. Donostia. 19 × 13. 125 or.
- Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 87.** Bertsolari Elkarte. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 21 × 13,5. 221 or.

- Arabelen belearen ipuinak. (i) Aiken, Joan/Sarasola, Juan Mari//Blake, Quentin. Alfaguara / Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 × 11. 229 or.
- Arantzak elorritik begiratzan digu. Idoate, Txiki//Idoate Iribarren, Xabi. Pamiela. Iruña. 19 × 13. 45 or.
- Arauzko erabakiak / Disposiciones normativas. (e) Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 29,5 × 21. 351 or.
- Arbol zarraren kimuak. Azpiroz, Jose. Etor. 19 × 12. 226 or.
- Argazkia. Bertso-paperak. Ipuina. Poesia. Komikia. "Arrasate-87" Lehiaketak. Sarituak. Askoren artean. AED Kultur Elkarte. Arrasate. 30 × 21. 112 or.
- Argazkiak. Gipuzkoa-Donostia (1941-1950) / Fotografias III. (e/i) Askoren Artean/Nazabal, Gotzon. CAM/DAK. Donostia. 29,5 × 24. 224 or.
- Argi bila. Galarreta, Xabier. Txertoa. Donostia. 19,5 × 13,5. 131 or.
- Argi galdua. (i) Rutgers, An/Mendiguren, Xabier//Errazquin, Luis. Elkar. Donostia. 19 × 13. 147 or.
- Argia gaixo dago. (i) Company, Merce/Ormazabal, Joxantoni//Elena, H. Elkar / Timun Mas. Donostia / Barcelona. 25 × 23. 32 or.
- Arkeoikuska 86. Investigación arqueológica. (e) Askoren artean. E.J. Kultura eta Turismo Saila. Gasteiz. 22 × 23. 147 or.
- Arrasate-87: Lehiaketak. Markuleta, G. eta beste. AED Kultur Elkarte. Arrasate. 30 × 21. 116 or.
- Arratoi zenbatzailea. (b/i) Alibes, M.D./Ormazabal, Joxantoni. Elkar. Donostia. 19 × 17,5. 29 or.
- Arratsalde euritsuua. (i) Leonard, M./Ormazabal, Joxantoni//Learner, V.M. Elkar / Timun Mas. Donostia / Barcelona. 20 × 20. 32 or.
- Arrotz ipuinak 2. Retolaza, Jose Antonio/Zabala, Enrique (gipuzkeraz)//Goiri, Pia. Kili-Kili. Bilbo. 26,5 × 18,5. 20 or.
- Arrotz Ipuinak 3. Retolaza, Jose Antonio. Kili-Kili / Euskerazaleak. Bilbo. 26,5 × 17,5. 24 or.
- Askatzailea. (i) Gourmelen, J.P./Mendiguren, Xabier//Palacios, A. Ikusager. Bilbo? 31 × 24. 73 or.
- Asmakizun polita. (i) Alcantara, R./Ormazabal, Joxantoni//Curto, R.M. Elkar / La Galera. Donostia. 19 × 17. 24 or.
- Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik. (b) Urretabizkaia, Arantxa. Erein. Donostia. 20,5 × 13. 92 or.
- Asterix Indian. (i) Goscinny/Azurmendi, Joxemari//Uderzo. Elkar / Grijalbo Dargaud. Donostia. 29 × 22. 48 or.
- Asterix-Aztia. (i) Goscinny/Azurmendi, Joxemari//Uderzo. Elkar / Grijalbo Dargaud. Donostia. 29 × 22. 48 or.
- Asterix-jainkoen egoitza. (i) Goscinny/Azurmendi, Joxemari//Uderzo. Elkar / Grijalbo Dargaud. Donostia. 29 × 22. 48 or.
- Asterix-Liskarra. (i) Goscinny/Azurmendi, Joxemari//Uderzo. Elkar / Grijalbo Dargaud. Donostia. 29 × 22. 48 or.
- Asterix-Zesarren erramu-koroa. (i) Goscinny/Azurmendi, Joxemari//Uderzo. Elkar / Grijalbo Dargaud. Donostia. 29 × 22. 48 or.
- Asterixen semea. (i) Goscinny/Azurmendi, Joxemari//Uderzo. Elkar / Grijalbo Dargaud. Donostia. 29 × 22. 48 or.
- Asto bahitzaileak. (i) Durrell, Gerald/Unamuno Garate, M. Victoria//Alvarez, Mabel. Alfaguara / Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 × 11. 186 or.
- Asto bat Hypodromoan. (b) Atxaga, Bernardo. Erein. Donostia. 20 × 16. 46 or.
- Atalase Maila. Europako Kontseilua. Askoren artean/King, Alan *. Kultur Lan-kidetzarako Kontseilua. Strasbourg. 29,5 × 21. 461 or.
- Ate debekatua. (i) X.X./Ezkiaga, P./Berzosa, M. Erein. Donostia. 20 × 14. 56 or.
- Atea bere erroetan bezala. Gil Bera, Eduardo. Pamiela. Iruña. 19 × 13. 142 or.

- Aupa, aupa.** (b/i) Olle, M. Angels/Ormazabal, Joxantonio. Elkar. Donostia. 17 × 15,5. 16 or.
- Azeri harrigarria.** (i) Dahl, Roald/Anselmi, Luigi//Elena, Horacio. Alfaguara / Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 × 11. 149 or.
